

# Jakin167

uztaila-abuztua  
2008



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen  
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*

---



KULTURA SAILA

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*



ZENBAKI HONETAN

**7**

LIBURUAK

**11** *Terra Sigillata*, memoriaren arkeologiak  
IRATXE RETOLAZA

HISTORIA BIZIA

**31** Balendin Lasueni elkarrizketa  
MIEL A. ELUSTONDO

EGUNEN GURPILEAN

**97** XABIER GANTZARAIN  
INAKI IRAZABALBEITIA  
UXUE ALBERDI  
LIONEL JOLY  
JOXE ARANZABAL  
AITOR ZUBEROGOITIA

©Jakin

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria

Jakin

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07

[jakin@jakingunea.com](mailto:jakin@jakingunea.com)

[www.jakingunea.com](http://www.jakingunea.com)

---

2008ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
---------	-------------	----------------

Harpidetza	50 €	—
Ale arrunta	8,30 €	10,50 €

KANPOAN

Harpidetza	55 €	—
Ale arrunta	9,15 €	12,40 €

Jabegoa: Jakinkizunak, S.L. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X  
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)



### ***TERRA SIGILLATA*, ARCHAEOLOGIES FROM THE MEMORY**


The professor and literary critic Iratxe Retolaza introduces us to the latest novel by Joxe Austin Arrieta, *Terra Sigillata* (Txalaparta, 2008), focusing on an analysis of a wide range of philosophical, literary, linguistic, social, political, historical and affective references that make up the complex narrative discourse of the novel. **IRATXE RETOLAZA**

### **INTERVIEW WITH BALENDIN LASUEN**

The writer and photographer Miel A. Elustondo conducts an extensive interview with Balendin Lasuen, who has played a leading role throughout his life in an endless number of cultural projects and activities, in a new issue of the series *Historia bizia* (Living History). The interview takes an in-depth look back over Lasuen's career: his childhood in Zaldibar; reminders of the civil war; his early devotion to business activity; the founding of Zaldibarko Koral Elkarte (Zaldibar Choir Society) and his participation in Gerediaga elkarte (Gerediaga Society); the interview also looks back on his interest in history and geography and the large amount of ethnographic research he has carried out and his publications on the Zaldibar region, as well as his participation in the field of politics as mayor of Zaldibar and Government Delegate for Culture in Bizkaia. He also gives us his opinion about different personalities from Basque cultural and political life with whom he has maintained close contact. **MIEL A. ELUSTONDO**

## **NEWS TODAY**

This section gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. Current affairs in the field of art, technoscience, literature, socio-linguistics, communication and globalization will be analyzed this year. This section draws on various specialists: Xabier Gantzarain, Inaki Irazabalbeitia, Uxue Alberdi, Lionel Joly, Joxe Aranzabal and Aitor Zuberogoitia. **VARIOUS AUTHORS**



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 167. zenbakia da eta 2008. urteko laugarrena.

Zenbaki honek ez du gai nagusirik jorratzen. Horren ordez, *Liburuak* eta *Historia bizia* sailek osatzen dute zenbakia. *Liburuak* sailean, Joxe Austin Arrietaren *Terra Sigillata* nobelari buruzko artikulua dator, eta *Historia bizia* sailean Balendin Lasueni egindako elkarrizketa.

Lehenengo artikuluan, beraz, Iratxe Retolazak Joxe Austin Arrietaren azken nobelan barneratzen gaitu: *Terra Sigillata* (Txalaparta, 2008). Nobelaren irakurraldiak zabaldu dizkion zenbait irakurbide partekatu nahi ditu Retolazak gurekin, erreferentzia filosofiko, literario, linguistiko, sozial, politiko eta historikoz jositako diskurtsoaren muinera heldu nahian.

*Historia bizia* sailean, Balendin Lasuen idazle, politikari eta kultur eragileak elkarrizketatu du Miel A. Elustondo idazle eta argazkilariak. Arana Martijaren bizitzan eta jardunean sakontzeko aukera eskaintzen digu elkarrizketak: haurtzarora Zaldibarren; gerra zibilari buruzko oroitzapenak; gazte-gaztetatik enpresaren alorrean egindako ibilbidea; Zaldibarko Koral Elkartearen fundazioa eta jarduna eta Gerediaga elkartearen parte-hartzea; historia eta geografiarako zaletasuna, eta Zaldibarko inguruari buruzko azterketa eta argitalpen etnografiko ugariak; politikaren eremuan izandako parte-hartzea, batik bat Zaldibarko alkate eta Bergarako mugimenduko partaide gisa, eta baita Eusko Jaurlaritzaren Bizkaiko kultur ordezkari gisa... Azken batean, bere bizitza eta lanari buruzko testigantza jasotzen du *Historia bizia* sailaren hamabigarren emanaldi honek, aurrekoetan Piarrres Xarriton, Federico Krutwig, Juan San Martin, Jesus Atxa, Antonio Zavalá, Jean Louis Davant, Xabier Gereño, Iñaki Beobide, Gotzon Garate, Imanol Urbieta eta Jose Antonio Arana Martijarenak ekarri ondoren.

*Egunen gurpilean* saileko orrialdeetan, ohi bezala, arte, teknozientzia, literatura, soziolinguistika, komunikazio eta globalizazioaren inguruko

berriak dituzte aipagai, estilo arin eta bizian, Xabier Gantzarainek, Inaki Irazabalbeitiak, Uxue Alberdik, Lionel Jolyk, Joxe Aranzabalek eta Aitor Zuberogoiak.¶



**11** **IRATXE RETOLAZA**  
*Terra Sigillata*, memoriaren arkeologiak

# *Terra Sigillata*, memoriaren arkeologiak

**IRATXE RETOLAZA**

EHUko Euskal Filologia Saileko irakaslea eta  
literatur kritikaria

Joxe Austin Arrietak bere hirugarren nobela eman du argitara 2008. urte honetan: *Terra Sigillata* (Txalaparta, 2008). Argitalpen honek eten egin du J.A. Arrieta nobelagilearen hogeitau urteko isilaldia, eta euskal nobela modernoranzko bidean eginiko ekarpena aitortu izan zaienez J.A. Arrietaren lehen bi nobelei, harritzekoa egin zait hirugarren nobela honek euskal literaturazaleengan piztu duen arreta eskasa. Harrera publikoari begiratu baino ez dago J.A. Arrietaren azken ahalegin literario honek sortu duen oihartzunaren taimainaz ohartzeko. Oker ez banaiz, prentsan kritika bat baino ez zaio egin (Serrano Izko 2008), eta egunkariak ere el-karrizketa pare bat besterik ez dizkiote eskaini nobela honi. Arreta eskasa, beraz. Liburuaren aurkezpenak, bai, jaso zuen arreta, eta bertan idazleak botariko amuak edo ziriak izan du oihartzun handiena:

Ezker abertzalea —ezker abertzale konbentzionala, *bien entendu*— gorrotatzen baldin baduzu, mesedez, ez dezazula liburu hau irakurri. Nire gauzak dira eta. *Minority Report*-eko jendearenak. Ez omen gara euskaldunak, basapiztiak baizik, badakizu! (Zabala 2008).

Anekdota horrek ahoz aho izan duen oihartzuna gorabehera, ez du esparru literarioan arreta berezia piztu nobela mardul honek. Luze gogoeta liteke horren zergatiaz, baina, aitortu behar da, nobela hau gorpuzterakoan erabilitako diskurtso-moldeak irakurketa patxadatsua, gogoetatsua eta geldoa eskatzean duela, atzera eta aurrera ibiltzekoa, eta egia esatera, abiada biziko garai hauetan produktu kulturalak ere abiada bizikoak kontsumitu ohi direla. Euskal literatura garaikideak harturiko bide estetiko gehienei erreparatuz gero, gainera, argi dago nobela honen taiuera oso urrun dagoela euskal literaturan egun erabilitako narrazio molde eta nobela ereduetatik. *Terra Sigillata*-k irakurleari ahalegin sortzaile handia eskatzen dio, hauskortasunean oinarritzen delako nobelaren diskurtso osoa. Jendarteko pertsona eta kolektiboen diskurtso hautsi, zatikatu eta barreiatuen metatzeak sortu du nobelaren diskurtsoa, eta irakurleoi dagokigu diskurtso hautsi eta hauskorren testu-adabaki horiek jostea. Are gehiago, nobela honek gogoan duen balizko irakurle hori, literaturazalea ez ezik, erreferentzia historiko, politiko eta sozial zenbaiten ezagutzailer irudikatu du nobelak. Izan ere, erreferentzia literario, historiko, politiko eta sozial ugari zeharbidez baino ez daude aipaturik *Terra Sigillata*-n, eta testu-adabakiekin gertatu bezala, horretan ere irakurleoi dagokigu zeharbidez aipaturiko erreferentzia horien guztien jostea.

Egoera horren jakitun izanda ere, abiada biziko garai hauetan, eskertu dut eta gozatu dut *Terra Sigillata*-k pausatzeko eskaini didan aukera, geldialdi hori memoria hurbilari begiratzeko eta memoria hurbilaz gogoetatzeko gonbidapena izan delako. Hausnarketarako deia ardatz duten literatura-lanetan gertatu bezala, irakurketa pertsonala gogoetabide horien hertsitzea baino ez da. Hala ere, *Terra Sigillata*-ren irakurraldiak nigan zabalduriko zenbait irakurbide zuekin konpartitu nahi ditut, nobela honen irakurketa posibleen eta gogoeta-bide posibleen solasaldia abian jartzeko asmoz.

## *Terra Sigillata*: ibilbide literarioaren inguruko gogoetaren hazi

Duela hamar bat urte argitaraturiko *Labur Aroz* (Txalaparta, 1997) liburuan, ordura arte idatzitako narrazioak biltzearekin batera, Joxe Austin Arrietak bere ibilbide literarioan geldiunea egin zuen, atzera begirakoa eginez, eta bere jardun literarioaren inguruan autokritika sendoa eginez. Autokritika eta gogoeta horien bidetik, «Aitzin-solas»-ean honela azalzen ditu liburu hura egituratzeko erabili zituen irizpideak:

Hiru Arotan sailkatu ditut hogeita bi urteotako neure laburkiok, irizpide kronologikoz baino areago, estilistikoak, nik us-te, nahiz eta denbora aldetiko hurrenkera ere ukaezina izan [...]. Hara: 1. Aroa 'pre-Abuztuaren' da; 2. Aroa 'pre-Manu militar'; eta 3. Aroa 'pre-Auskalo-Zer' eta 'post-Gauza-Gehiegi' (Arrieta 1997: 11).

Sailkapen hori eginez, zeharka bada ere, aitortu zuen idazleak argitaraturiko nobelak izan direla bere ibilbide literarioan mugarri, eta gainerako jardun literarioa ere mugarri horien inguruan sortua izan dela, hein batean. Hartara, 1997. urte hartan bere ibilbide literarioaren 3. Aroa aurkezterakoan —«pre-Auskalo-Zer» izendaturikoaren berri ematera koan—, etortzear zen mugarria iragarri zuen, etortzear zen nobela: *Terra Sigillata* (Txalaparta, 2008). Irizpide «estilistikoak» eginiko auto-sailkapen horri kasu eginez gero, J.A. Arrietaren nobela bakoitza proposamen estetiko konkretu eta berrituaren mamitzea da, eta pentsatzekoa da azken nobela honek ere, *Terra Sigillata*-k, proposamen estetiko berria izan nahiko duela, urrats estetiko berria izan nahi duela J.A. Arrietaren nobelagintzan. *Terra Sigillata*-ren irakurketa patxadatsua egin ondoren, urrats ausarta egin duela iruditu zait, eta batez ere, jakin du urrats estetiko berri hori orain arteko ibilbide literarioarekin solasean jartzen, kateatzen. Azken nobela hau izan bada, beraz, aurreko bi aroetan erroturiko proposamen estetiko berria. Lehen nobelan, *Abuztuaren 15eko bazkalondoa*-n (1979), identitate-gatazkan komunitatearen diskurtsoek (aitarenak, historiarenak...) duten

garrantzia adierazi zen, betiere memoriaren zirrikituetatik tira eginez. Bigarren nobelan, *Manu militari*-n (1987), metaliteraturak eta metanarrazioak hartu zuten nobelaren espaziorik handiena, idazketaren inguruan eginiko hausnarketak. *Terra Sigillata* nobelaren diskurtsoan gurutzatu eta elkarlotu egin dira lehen bi nobeletan jorraturiko hainbat gai, kezka eta motibo literario. Memoriaren zirrikitueta aztarrika ari zaigu narratzailea beste behin ere, baina, era berean, narrazioaren eta literaturaren inguruko hausnarketez josia dago nobelaren diskurtsoa, memoria kontatzerik baden ezbaian jarritz, identitatea kontatzerik baden ezbaian jarritz. Memoria eta identitatea, txanpon beraren aurkia eta ifrentzua.

## Memoriaren *sigillatakiak*, memoria hautsiak

Liburuaren kontrazalean azaldu bezala, honako hau dugu *Terra Sigillata*: «'Zigilaturiko lurra', latinez. Zeramika erromatar arrunta, gorri kolore distiratsukoa, enperadorearen zigilua ohi zeramana». *Terra Sigillata* ugari azaleratu dira Euskal Herriko indusketa arkeologikoetan (urpeko zein lehorrekoetan). Nobela honetan hautsitako *Terra Sigillata*-ren zatiak eta apurrak pilatzen dira, *terra sigillatakiak*, iragan hautsiaren aztarna modura ulerturik. Nobela honetan *terra sigillataki* horiek ez dira zeramikaz osaturiko aztarnak, hitzak osaturiko aztarnak baizik; iraganeko ahotsen indusketa arkeologikora jo da nobela honetan. Ramon Sazarbitoriaren *Hamaika pauso* (1995) nobelako pasarte bat gogora ekarriz, honela gogoetatzen da memoriaren inguruan *Terra Sigillata*-n ere: «Memoria plater hautsi bat da», R.S.-k, Claude Simon zitatuz, dioen bezala. «Ez du zentzurik apainduren marraskia osatuz kolatzeko ahaleginak, beti faltako baita birmoldaketa ezinezkoa edo desitxurosoa egingo duen esmalte zatiren bat. Bai, hala da» (406-407 or.). Hautsi da *anphora*, hautsi da *Terra Sigillata*. Haustura horren zatiak biltzen saiatuko zaigu narratzailea, dena den, diskurtso hautsi eta hitz hau-

tsi horiek biltzen. Hautsitakoaren berreraikitze eta deseraikitze saioa da, apurturiko esperientzia horren berri emateko gogoan gorpuztua. Hortaz, *Terra Sigillata*-ren aurretik idatzitako bi nobeletan egin bezala, J.A. Arrietak ahots aniztasuna erabili du narrazio-molde modura, are korapilatsuagoa eginez ahots sare hori. Orain arteko nobelagintzan argi utzi du J.A. Arrietak M. Bakhtinek (Bakhtin 1986) definitu modura ulertzen duela nobelaren diskurtsoa, ahots-amaraun modura eta jendarteko ahotsen pilatze modura. Nobela honen hasieran adierazi bezala, *Terra Sigillata* «ahots-baso oihartzundua» da (9. or.). Mintzoak, ahotsak, diskurtsoak definituko ditu nobelako pertsonaia guztiak, esandakoek eta erabilitako hizkerak gorpuztuko dute pertsonaia bakoitzaren nortasun berezitua, haien ekina baino areago.

Dena den, pertsonaia horien guztien ahotsak marko narratibo konkretu batean txertaturik daude: Jagoba Antxustegik bere *Hitzaz Mendi* elkarteko kideei proposatuko die Hobetu Leike porturantz bidaiaria egitea, «hitz-ontzi» edo *U-wort* batean. Baina, Hobetu Leike porturantz egin nahi den bidaiak ez du helmuga onik izango, hondoratuko baita «hitz-ontzia», hondoratuko baita hitzaren aldeko apustua ere. Baina, nobelaren hasieran Jagoba Antxustegik bere lagun eta kideek idatzitako koaderno bustiak motxila batean bildurik dituela agertuko zaigu. Eta koaderno busti horien irakurketa izango da nobela, ahots horien bilketa, hondoratu den iraganeko bidaiaria horretako aztarnak. Hortaz, nobelan aipaturiko datak eta aipaturiko zenbait gertakarik erreferentzia historiko zuzena izanda ere, nobela honetako geografiek eta espazioek fikzio kutsu nabaria dute, hitzaren espazioak irudikatzeke eginak.

Pertsonaien hitzarekiko obsesio hori eta hitzaren ahalmenarekiko obsesio hori ere garai konkretu batean kokatu beharra dago. Ez baita kasualitatea nobelan bilduriko eta bertaraturiko ahots horiek guztiak epe jakin batean sorturikoak izatea: 2006ko martxoaren 22a dugu narrazioaren lehen data kronologikoa, hain zuzen ere, ETA erakundeak su-etena

aldarrikatu zueneko data. Bestalde, narrazioan aipaturiko azken data, 2007ko maiatzaren 26a da, «noiz-eta, *outezkunde* bezperan bertan» (408. or.). Alegia, udal hauteskunde bezperakoa, udal ordezkari modura aurkeztu nahi ziren hainbat zerrenda legez kanpo utzi zituztenekoa. Garai konkretu honetan gorpuzturiko ahotsak biltzen dira, alegia, gatazka armatuari negoziazioaren eta hitzarmenaren bidetik, hitzaren indarretik, heldu omen zitzaion garai bateko ahotsak dira bildu direnak, gogora ekarri nahi direnak. Hitza ere ekin-tza bihurtu nahi zeneko garaia gogora ekarriz. Iragan hurbil horretan kokatu dira nobela honetako ahots anitz horiek, identitate-gatazkan (identitatea ez soilik kokapen politiko modura ulerturik, baizik eta kokapen filosofiko, sozial, linguistikoko eta afektibo modura ere ulerturik)<sup>1</sup>. Iragan hurbil eta iragan urrunaren inguruan diskurtso ofizialak isilduriko, lurperaturiko eta urperaturiko ahotsak bildu nahi izan dira nobela honetan (ilegalizaturikoen ahotsak, torturatuen ahotsak, kartzelaratuak ahotsak, erbesteratuak ahotsak, besteak beste). Isilarazitako eta zentsuraturiko ahots horien bila joango dira Eskifaiakideak Hitz-ontzian urpekari-lanetan<sup>2</sup>, diskurtso eta ahots isildu horiek biltzen dituzten kontraesanak, minak eta zalantzak ezkutatu gabe. Baina, baita ahots horiek bestelako ikuspegia duten diskurtsoen ondoan jarriko ere, aurrez aurre iraganaren inguruko ikuspuntu ezberdinak jarritz, ahotsak talkara eramanez.

Ondorioz, nobela honek memoriaren baliabideak erabiliz iragan hurbilari begiratu nahi dio, aukeraz beteriko iragan hurbil hori presentera ekartzeko asmoz —itota eta hilda dagoela konturaturik ere—. Honela esaten zaigu nobelan:

Hemen duzue, alegia eta deus ez, lagin bat, atzekoz aurrera kontatua, arestikoenetik aspaldiagokora, hurrenkera norma-la horrexek izan behar baitu, burutik eginak ez bagaude. Atzokoa, suposatzen da, duela hainbat urte gertatua baino presentego dugula izan (26. or.).

Horregatik, nobela honetan lehortarrak indusketan ikusiko ditugu, eta urtarrak itsaso zabalean urpekari, lehorrean zein

itsasoan iragan hurbilaren zantzuen bila, *sigillataki* hautsi horien bila. Iragan hautsi hori berreskuratu eta berreraikitzeke asmoa da, jakinda ere, iragan hautsia harrapaezina dela, aukera galdua dela. Nahiz eta gogoan izan Joseba Sarrionandiaren hitzak, nobelaren diskurtsora bilduak: «Inoiz ez gara, berrez, lehengora berera itzultzen. Han izanik, hona naiz, beraz» (23. or.). Dena den, honako hau gehitzen zaio nobelan: «Baina, horrexegatik, han izanaren berri eman behar» (23. or.).

Memoriaren bideak nobela honetan, dena den, ahotsaren memoriak dira, entzundakoaren memoriak (ez ikusitakoaren memoria, edo dastatutakoaren memoria): «Gure Orixe idazle handi bezain hiper-katoliko hark zioen bezala, oroi-men ‘begitarra’ baino areago, ‘belarritarra’ dugunongan» (203. or.). Entzumenean eta hizkuntzan oinarrituriko memoria izango da gidari. Memoriaren bitartez nobelara bihurturiko ahotsak askotarikoak dira. Ahots batzuk, epe jakin horretan irudika zitezkeen lagunarteko elkarrizketak dira, filosofiaz, politikaz zein literaturaz. Beste ahots batzuek, epe jakin horretan argitaraturiko prentsako testuak biltzen dituzte. Nahiz eta *Terra Sigillata*-n diskurtso-mota anitz (filosofikoa, literarioa, linguistikoa, soziala, politikoa eta pertsonala) elkarren ondoan eta gurutzaturik aurkeztu, geruza horiek guztiak banan-banan aurkeztuko ditut, nobela honen gainean eginiko nire irakurketa argiagi adierazi asmoz.

### *Sigillataki* filosofikoak

Diskurtso filosofikoak alderik alde zeharkatzen du nobela honen zirrikitu bakoitza. Dena dela, diskurtso filosofikoa nobela honetan konkretuki *Hitzaz Mendi* elkarteko kide den Edorta Orozgoitik gorpuzten du, haren ahotsean eta idatzietan biltzen dira filosofiaren inguruko aipu zuzen gehienak. «3.4. Non Edorta Orozgoitiren *Philosophen weg* hackerizatzen dugun» (65. or.) azpiatalari begiratu baino ez dago, Edorta Orozgoitiren erreferentzia filosofiko gehienak, denboraren ingurukoak eta hizkuntzaren erreferentzia-gai-



tasunaren ingurukoak direla ohartzeko. Berriro ere, memoriaren eta identitatearen jirabiran. Etengabe aipatzen dira Kant, Heidegger, Hegel eta Wittgenstein, nobelan behin eta berriro mahaigaineratu egiten diren hiru kezka-lerroen inguruan gogoetak eginez:

a) *Hizkuntza eta errealitatearen arteko harremana*: hizkuntzak errealitateaz hitz egiteko ahalmenik ba ote duen galde eginez, edo hizkuntzak errealitatea irudikatzeke ahalmenik ba ote duen galde eginez.

b) *Partikular eta unibertsalaren arteko harremana*: partikularretik unibertsala aditzera ematea posible den galde eginez, edo unibertsaletik partikularra ulertu behar ote den galde eginez.

c) *Jende eta denboraren arteko harremana*: jendeak denboraren joana bizitzeko dituen bideez galde eginez, edo denboraren joanak jendearen nortasunean duen eraginaz galde eginez.

### ***Sigillataki* literarioak**

Giza-existentziaz galdera orokor horiek egitearekin batera, nobelan zehar galdera orokor horiek, kezka eta zalantza orokor horiek, lekuan lekuko eta garaian garaiko egoeretara bihurtzen ahalegintzen da. Horretarako, literaturaren eta filosofiaren arteko harremanaz gogoeta egiten du, galdera orokor horiez hitz egiterako orduan literaturak eskain dezakeenaz galde eginez. *Hitzaz Mendi* elkarteko kideen arteko solasaldi gehienetan gogoetatzen da literaturaren gainean. Hona hemen *Hitzaz Mendi* elkarteko kideak, nor bere idazle-identitatea duena: Joseba Antxustegi poeta, Mikel Zabalegi idazkaria, Ander Elizalde arkaismo zalea, Edorta Orozgoiti filosofoa, Xabier Landaluze marraizkilaria, eta Kepa Arrastiri politikoa. Dena den, «3.1. Non egiaztatzen den filosofiaren eta poesiaren arteko aliantza kordokaria» (50. or.) azpiatalean abiatzen da filosofia eta literaturaren arteko harreman horren inguruko hizketa, eta «Aire-planoak» atal

osoan zehar garatzen da. *Sigillataki* filosofikoen modura, hiru kezka-lerro bertsuetatik joango dira literaturaren inguruko galdera orokorrak, baina, oraingoan literaturaren ahalmenez galde eginez:

a) *Literatura eta errealitatearen arteko harremana: Hitzaz Mendi* elkarteko lagunen artean, etengabea da literaturak errealitatea irudika lezakeen galdera, edota literaturak errealitatea irudikatu beharko lukeen galdera. Esate baterako: «Ez diagu idatzi behar mundua mimetizatzeko, itsasoa hondar-gaztelu batera errendiarazten saiatzea bezainbateko erokeria izango zukek hori» (81. or.); edo «hau liburu bat besterik ez baita, nahiz eta eskertuko nukeen inork argituko balit non dagoen juxtuki hitzaren eta biz-hitzaren arteko muga» (243. or.).

b) *Literatura partikular eta literatura unibertsalaren arteko harremana*: idazleak literatura egiterakoan nondik hitz egin behar duen ere galdetzen diote elkarri *Hitzaz Mendi* elkarteko kideek, partikularrari buruz hitz egin beharko lukeen literaturak, edota unibertsalari buruz hitz egin beharko lukeen, eta izatekotan, zein ote bien arteko harremana. Adibidez, «Eginbehar bakarra, alegia, geure esperientzia murrizta *per se*, unibertsala izan dadin moduan burutzea eta adieraztea» (81. or.).

c) *Literatura eta denboraren arteko harremana*: aipatu eta aipatu nabil, memoriara bilduriko literatura dela *Terra Sigillata*. Eta ondorioz, iragana harrapatzeko literaturak dituen gaitasun eta zailtasunez ere mintzo zaigu.

Gogoeta orokor horietaz gain, bada nobelan zehar literaturaren inguruko gogoeta konkretuagorik ere. Une oro nobelak sortu duen eta sortzear den diskurtsoaren gaineko hausnarketak eta iruzkinak egiten dizkigu narratzaileak, baita idazkuntza eta irakurketa-prozesuen inguruko hausnarketak ere. Bide horretatik balizko irakurleei keinuak egiten zaizkie esandakoen inguruko itzulinguruak eginez. Diskurtsoaren gaineko hausnarketa horiek guztiak egiterakoan, gainera, J.A. Arrieta bere obraz kritikoez eta irakurleek egi-

niko oharrei ez da entzungor ibili. Hartara, aipatzen du J.M.L. irakasleak (alegia, Jesus Mari Lasagabasterrek) esana diola ez egiteko *mise en abyme*-rik, edo esana diotela astuna eta nahasia dela bere kontatzeko modua. Gogora dakar, gainera, *Manu militari* nobela zela-eta Jesus Mari Lasagabasterrek J.A. Arrietaren nobelagintzaz eginiko oharra: «nobela bat —edo narrazio bat, oro har, derragun— ez omen dun ‘abentura baten idazkera’, ezta ‘idazkera baten abentura’ ere, baizik eta ‘abentura baten idazkeraren abentura’» (400. or.). Nobelagileak jaso duen harreraren inguruko hausnarketa horien kontzientzia-hartzea ere badago *Terra Sigillata*-n zehar.

Bestalde, *sigillataki* literarioak argiak dira gogoko dituen idazleei eginiko keinuetan, haien literatur testuen pasarteak nobelara bilduz, edota haien izenak goratuz. Ugariak dira erreferentziak, mundu-literaturakoak (Proust, Kafka, Joyce...), baina, bereziki euskal literaturakoak (Joseba Sarrionandia, Koldo Izagirre, Txillardegi, Juan Mari Lekuona, Ramon Saizarbitoria...). Mundu-literaturako erreferentziak, beraz, Mendebaldeko Nobela Modernoaren aitak dira, J.A. Arrietaren nobelagintzarako eta bere belaunaldiko hainbat idazleren nobelagintzarako ere eredu izan direnak. Euskal literaturaren kasuan ere, aipu horiek guztiak aitortzak dira, eredutzat hartu diren idazleei eginiko keinuak. Asko eta asko dira euskal literaturako erreferentziak, ez liburugintza-koak bakarrik, baita ahozko literaturakoak (kantua, atsotitzak, bertsoak...), eta baita prentsakoak ere (Uxue Apaolazaren zutabeak, Pako Aristirenak, Jon Benitoren erreportajeren bat...). Badirudi euskal literaturaren esparruari behin eta berriro erreferentzia eginez, «euskal literatura simulkroa da» baieztapenari erantzun nahian dabilela. Kontuan izan behar da, nobelan lelo hori eta Jon Juaristiren beste hainbeste ere aipaturik eta iruzkindurik agertzen zaizkigula. Hartara, nobelan erreferentzia-sare hori osatuz, euskal literatura kultura-erreferentziatzat bizi duten identitateak gorpuztu nahi izan ditu, simulakrorik ez dela erakutsiz.

Gainera, nobelan Eskifaiakideek Urpekontzian aire-planoen bila eta ahots galduen bila eginiko bidaia hori ulertzeko, Koldo Izagirrenen *Non dago Basque's Harbour* (1997) poema-liburua erreferentzia beharrezkoa da. Poema-liburu horri eginiko keinuak etengabeak dira, eta gainera, liburu horretako poema-lerroak nobelan zehar aipatu egiten dira, nobelaren azken lerroak ere horiexek dira, *Non dago Basque's Harbour* liburuko *Metaforaren ontzia* poemako azken lerroak: «Lehorreratzen baldin banaiz / itsasketa hau jarraituko dut». Ondorioz, *Terra Sigillata* ere euskal literaturaren tradizio baterantz zabalduriko solasaldia ere bada.

### *Sigillataki* linguistikoak

Esan bezala, pertsonaia guztien nortasuna hizkuntzaren eremuan dago jokoan, diskurtsoaren eremuan. Honela, ezau-garri linguistikoek definituko dituzte pertsonaiak: hitz zalantzan jarduten duena (Mikel Zabalegi), mutrikeraz mintzo dena (Antxustegi aita), hitz-jolaserako mania duena (Andoni), eta abar. Baina, narratzaileak identitate gatazka adierazteko, eta identitatearen joan-etorriaren berri emateko, nitasuna ez du hertsitasunez aurkeztu. Ni hertsu batetik aritu beharrean, ni anitz eta poliedrikoa aurkeztu zaigu: «nirik ez baitago, nitalde bat besterik ez gaituk denok» (157. or.). Horretarako, narratzaileak «nitaldeak» izendatzen dituen horiek jarri ditu solasean, narratzaileak esan bezala, «nire niaren mamu ezpalduei» (11. or.) ari zaie elkarrizketa eske. Modu horretara, nitalde bakoitza geruza bati dagokio, diskurtso-mota baten solasaren iturri dena, hiztun komunitate batean txertaturiko ahotsa: literaturan, filosofian, politikan, familian, lagunartean, kazetaritzan...

Hizkuntzari dagokionez, badago nobela osoa zeharkatzen duen kezka nagusirik: euskararen egoera diglosikoa. Kezka nagusi hori eginiko iruzkin eta gogoetetan bildu ez ezik, pertsonaien jardunetan ere islatu egiten da. Honela, Mikel Zabalegi Carrefour-ean gora eta behera doala (36. or.), bere

buruari agindu behar dio, bere burua behartu behar du euskaraz hitz egitera, bestela, gaztelerak egiten diolako ihes. Identitate diglosikoaren adibide garbia dugu hori. Eta beste zenbaitetan pertsonaiak haserretzerakoan jo ohi dute gaztelerara. Kezka iturri horren adibide ere badira, testuan zehar barreiatu agertzen den «euskomutantekeria» terminoa (89. or.), nortasun diglosiko hori irudikatze erabilia, edo «okupazio-hizkuntza»-ren erabilera etengabea, gaztelerari erreferentzia egiteko.

### *Sigillataki* sozialak

Orain arte aipaturiko *sigillataki* horiek guztiek biltzen dute alderdi sozial konkreturik: idazle-ofizioarena. Eta ofizio horrek nobelaren *sigillataki* sozialetan espazio garrantzitsua betetzen badu ere, izan badira beste zenbait *sigillataki* sozial nobela alderik alde zeharkatzen dutenak. Horietariko bat generoarena da. Nobelaren ahots gehienak gizonezkoen (edo «ar-taldeen») ahotsak dira, izan ere, *Hitzaz Mendi* elkarteko kideak gizonezkoak dira (emakumeak elkartetik bota egin zituztenetik), eta *Getarian Ketari*-n urtero biltzen diren ikaskide ohiak ere gizonezkoak dira. Baina, nobelaren diskurtsoa bi balizko irakurleri, bi balizko mezu-hartzaile mintzo zaie: batetik, Jon ikaskide ohiari, eta bestetik, Amaiari, idazle-lagun erbesteratuari. Jonek ezin du urteroko hitzordura joan kartzelan dagoelako, nobelan iradoki bezala, ETA erakundeko kide izateagatik. Amaia Mexikon erbesteraturik dagoen idazlea da, baina, gazteago omen dena. Hartara, Jonek mezu-hartzaile eta solaskide hurbilekoa irudikatzen du (hurbilekoa adinean, hurbilekoa oroitzapen-kide delako, hurbilekoa generoari dagokionez), eta Amaia idazle-ofizioan baino ez zaio hurbileko. Eta distantzia horrekin ere mintzatuko zaio bati eta besteri.

Gainera, generoaren inguruko hausnarketak ere etengabeak dira nobela honetan. Ez bakarrik balizko irakurleen generoari eginiko keinu horietan («ez dakit nola esan ere,

gure balizko entzule Amaia sutu gabe», 139. or.), baita gogoeta zuzenagoetan ere. *Hitzaz Mendi* elkarteko kideak emakumeak botatzeko harturiko erabakia aipatzen da, emakumeek mahaigaineraturiko osotasunarekiko emendakina zela eta. Generoen arteko ezberdintasunez ere gogoeta egiten da, eta komunikazio zailtasunez: «Luismari Subijana erdararekin bezain hitz-totela naun ni emakumeokin» (184. or.), «etzaidan hamaikagarren txartel hori feminista atera» (375. or.) edo «funtzioen apartheid sexual tipikoki matxista» aipatzean (385. or.).

Bestalde, bada ere beste *sigillataki* sozial bat nobelan aipatzen dena, eta klase sozialari dagokiona. Nitasunetarikoa bategi aitortu egiten du testuan, marxismo-leninismotik etorrria dela, baina «langile-klaseko burges ttipi abertzale bat» dela (378-379 or.). Aurrerago ere bere egiten ditu Pako Arisitiren hitz hauek, esanaren kontraesan horretan gorpuztuz pertsonaiak: «Euskal Herria da burges putakume gehien duen herririk iraultzaileena», eta «gure *burges ttipi kontzientzia txarra ez irabiatzearren*» (398-399 or.).

### *Sigillataki* politikoak

*Sigillataki* politikoak batez ere honako ataletan aurkezten dira: «Minority Report» (253. or.) atalean, eta «Reality Show» (281. or.) atalean. Hala ere, *Getarian Ketari*-n ikaskide ohiekin eginiko bazkariez hitz egiterakoan ere politika-gaiak dira nagusi, eta konkretuki, euskal gatazkari dagozkionak. Izan ere, urteroko bilera horretan biltzen diren ikaskideen artean aniztasuna da nagusi: Alfonso Diaz de Ilundain, PSOEko kide; Iñaki Elustondo, mediku egibarzalea; Patxi Etxeberría apaiza, *Alec Reid* ezizenekoa; Xatur Zumalabe aralarkidea; Andoni, «legez kanpoko gizalegez» (18. or.). Urteroko hitzorduetan politika-gaiez hitz egin izan dute, nork bere bidari eutsiz. Urteren batean, argazki bat egindakoan ere Saturrarango Hitzarmena (17. or.) sinatzearekin aritu ziren txantxetan; «ai ene, guk hemen lortzen dugun komunika-

zioa, adostasun-gogoa, konponbide-grina, gizarte osoan zabalduko balego, eta abar» (19. or.). Baina, nobelak aurrera egin ahala, argi ikusten da komunikazio eta elkar ulertze omen dena, itxurakeria baino ez dela: «eta urterokoa, *ay, si nuestros respectivos se llevasen tan bien como nosotros*, kaka zaharra, gezurra, dena antzerkia, dena asaskapen alkoholiko sabel-eskerronekoa, Jon...» (152. or.). Politika-gaiez hitz egiterakoan ere, horixe baita nobela honetan zabaltzen den mezuetariko bat, nork bere esperientzia eta sufrimenduaren berri besteei ematea zein zaila den, eta zein zaila politikaz hitz egitea, arazo kolektiboez hitz egitea, gai horiek erabat pertsonalizatzeko ohitura zabaldutik denean: «Hiper-pertsonalizazioak lortzen dik efektu durduzagarria, mezu-emailearengan eta mezu-hartzailearengan, baina nekeztu egiten dik ondorengo komunikazioa, ez al zaik iruditzen» (145. or.), edota «Sufrimendua, berez, norberarena eta besterenganaezina baituk, ditxosozko kreditu-txartelak bezalatsu» (145. or.). Berriro ere partikularren (norbanakoaren) eta unibertsalaren (kolektiboaren) arteko harremanaren inguruko hausnarketa, oraingoan Euskal Herriko gatazka politikoaren auzi-mauzietara joz. Aurretik aipatu bezala, batez ere diskurtso ofizialak isilduriko eta lurperaturiko ahotsak dira biltzen dituenak, hona hemen horietariko zenbait:

- Torturatuen ahotsak: «Habeas corpus» (106-107 or.) azpiatalean tortura testigantzak biltzen dira, egunkarietatik edo TATen dokumentazio-iturrietatik harturikoak. Torturatuen testigantzen lurperatze eta isilaraztea irudikatzeke, diskurtsoan zehar *Hitzaz Mendi* elkarteko ki-deek Xabier Landaluzeren koaderno horiek zentsuratu egiten dituzte, «AUTOCENSURED» (123-124 or.). Zentsura lehenik letrak txikitzean datza, eta ondoren, ezabatzeko erabatekoan.
- Ongietorrietako ahotsak: Josu Arteaga lagunaren omenaldiaren ingurukoak ere kontatu egiten dira (117-118 or.), eta bereziki, omenaldi horretako bateko eta besteko hitzak, pentsamenduak eta kontraesan guztiak.

- Omenaldietako ahotsak: Ekain Irigoien gudariaren omenaldiko ahotsen berri ere ematen zaigu (132-133 or.), gaztearen aitaren eta amaren ahotsak ekarriz, semearen heriotzaren inguruko nor bere sentimenak eta interpretazioak eginez.
- Arkaitz Otazuaren heriotza (147. or.): zuzen-zuzenean adierazten ez bada ere, ikaskide ohien arteko elkarrizketetan Herrerako portuan Ertzaintzak tiroz hil zuen Arkaitz Otazua gaztearen inguruko ika-mika egoten da, batzuek odolusten utzi zutelakoan, besteek ezezkoan.

Eta horiekin batera, beste hainbat eta hainbat ahots, isilaraziak edo lurperatuak izan direnak: *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxieraren aurkako ahotsak, 18/98 auziaren aurkako ahotsak, Jose Anjel Alzuguren euskal presoaren heriotza... Interesgarriena ez da gertakari horiek gogora ekartzea, baizik eta gertakari horien inguruan sortzen diren elkarrizketak eta diskurtsoen tentsioan garatzen diren gertakari horien inguruan bizitako esperientziak.

### *Sigillataki* historikoak

*Sigillataki* historiko hauek politikoekin harreman estua dute, izan ere, historiako gertakariak hizpidera ekartzen diren gehienetan, euskal identitatearen inguruko irakurketa konkretua egiteko bide izan ohi direlako. Batetik, Mexikoren historia aipatzen du sarri, Espainiaren konkista aroa gogora ekarriz, eta bertan gertaturikoak aurrez aurre jarritz Euskal Herriaren historiarekin (141. or.).

Bestetik, Alemaniako Bigarren Mundu Gerrara jo ohi du maiz, zeharkako erreferentziak eginez gehientsuenetan. Dirudienez, Alemaniak XX. mendeko bere historiaz eginiko berrirakurketa eta barkamen-saio historiko hori gogora ekarri nahi du, iraganari begiratzeko eta iraganaren autokritika egiteko eredu. Honela mintzo zaizkie euskaldunei lagun alemanak: «Lagun diezaiegun lehortar (a)saltatu horiei beren Gernika geuk suntsitua berreraikitzen!» (125. or.).



*Sigillataki* historiko hauetan memoria historikoaz egiten du gogoeta, haren beharraz, eta haren ezinez ere. «Baina memoria historikoa beti irabazleek idazten dutelakoa egia bada, idaztea bera da garaitearen seinale» (375. or.).

### Senitarteko *sigillatakiak*

Hasieratik aipatu bezala, *sigillataki* geruza horiek guztiak ez dira identitate gatazkatsu eta anitz baten berri emateko bidea baino. Behin-behinekoa, hauskorra eta aldakorra den identitate baten berri ematen dutenak, subjektuartereko solasean eraikiz eta deseraikiz doan identitate baten berri ematen dutenak. Baina, identitate gatazkatsu hori garatzeko, egon badago beste geruza garrantzitsu bat, afektuarena eta senitartekoena. Senitartekoak eta lagun-minak nobelaren hasieratik agertzen zaizkio narratzaileari. Hasieratik ditu aita eta Joxan Arrilaga lagun mina bidelagun, aholku-emaile eta bultzatzaile. Amaiera aldean ere, «Terra Sigillata, orobat» (345. or.) atalean, emazteari eta seme-alabei mintzo zaie narratzailea, solasaldi horien bitartez senitarteko harremanen berri emanez, eta bat-batekoago eta samurragoak diren ahotsei ere bide emanez.

### *Sigillatakiak* bilduz

*Terra Sigillata* nobelan zehar aipatu egiten da sarritan Ramon Saizarbitoria idazlea, eta bereziki, Saizarbitoriaren *Hamaika pauso* (1995) nobela. Autokontzientziari jirabiran sorturiko nobela da *Hamaika pauso* (Retolaza 2007: 159-166), izan ere, nobela sendo hori Ramon Saizarbitoriak hogeitun urteren bueltan eginiko gogoetaren eta kontzientzia-hartzearen emaitza baita, besteak beste. *Terra Sigillata* irakurtzen ari nintzela, sarritan etorri zait *Hamaika pauso* nobela gogora, ez bertan esandakoak, ez narrazio-moldeak hurbilekoak direlako, baizik eta bi nobela horien artean ikusi dudalako antzekotasun ugari: batetik, bi nobela horietako gai nagusietariko bat

dugu memoria (bere adierazpide anitzetan); bigarrenik, bi nobela horietan trantsizio garai baten inguruko gogoeta egiten da, *Hamaika pauso*-n 1973-1984 urteak dira memoriaren altzora bihurtzen direnak, eta *Terra Sigillata*-n, aldiz, 2006ko martxotik 2007ko maiatzera artekoa —aldaketa edo trantsiziorako saioa—; hirugarrenik, bi nobela horietan islatzen direlako belaunaldi konkretu baten kezka, nor bere bidetik, nor garai konkretu batean; laugarrenik, hogeitau urte pasatu ondoren argitaraturiko nobela ditugu bi horiek, isilaldi luze baten emaitzak, idazletzaren inguruko hausnarketa luze batzuen emaitzak; eta bosgarrenik, metanarrazioak dira bi-biak, nork bere idazletzaz eta nork bere kokapen pertsonalaz eginiko gogoetaren ondoren harturiko miratik eginak.

*Hamaika pauso* nobelako protagonistak, Iñaki Abaitua nobelagileak, Ramon Saizarbitoria idazlea dakarkigu gogora, batez ere ibilbide literarioaz eginiko hausnarketetan. *Terra Sigillata*-n ere bada Joxe Austin Arrieta gogora ekartzen digun pertsonaiarik, baina oraingo honetan, pertsonaia askok ekarriko digute gogora J.A. Arrieta idazlea bere ibilbide literarioaren alderdi ezberdinetan: nobelagilea, poeta, itzultzailea... Nobela honetan ere J.A. Arrietaren beste hamaika irudi edo alter ego gorpuztu dira: filologoa, politikaria, filosofoa, senarra, kidea, gurasoa...

Nobela honetan argi adierazi digu ezin direla era zurrunean bereizi diskurtso-motak, elkarren ondoan bizi direla, elkarri eraginez, elkar kutsatuz... garatzen direla, eta eremu horien guztien gurutzaketan sortzen direla nortasun pertsonalak, behin-behinekoak. Alegia, hitzak ez dira soilik eremu bateko hazi, baizik eta alor ezberdinetan elikatu eta puztutakoak: eremu pertsonalean, eremu sozialean, eremu politikoan, eremu literarioan... Hitz beraren barruan eremu eta dimentsio horietako zenbaitek egiten dute talka, tentsioan bizi dira, eta tentsioan bizi ditugu hiztunok ere. Hitzen eta diskurtsoen askotariko dimentsio hori onartuz gero, iragana kontatzea, oraina kontatzea eta esperientziak hitzez trukitzea zaila da; baina, hala ere, kontatzeko ahaleginari eutsi egin behar dio-

gula, komunikatzeko ahaleginari eutsi behar zaiola aldarrikatzen da, bideari lotzeko, enkailaturik ez geratzeko, nora ezean. «Memoria-ariketak, behin eta berriro. Komunikazio-keinuak, besterik ezin bada ere» (353. or.).

Baina, kontraesanek kontraesan, zalantzez zalantza sortua dago *Terra Sigillata* nobela, eta bertako solaskide guztien arteko elkarrizketak ez du norabiderik zehazten, galderak pausatzen baino. Hartara, hitzaren aldeko hautua egitearekin batera, badago bestelako adierazpenik nobela honetan ere, hitzaren ahalmenean bai, sinetsi egin behar dela, baina, hitza bere horretan, ekinik ezean, horixe dela, hitz hutsa. «Luzamenik luzamen, muinari ez heltzekotan. Mamiari ez ekitekotan» (13. or.). Alegia, diskurtso bihurrituetan kateaturik ibiltzea aitzakia izan daitekeela, aurrera ez egiteko. *Hitzaz Mendi* elkartearen sarreran Frantz Fanonen aipu eder hori dute, liburuaren asmo horren iragarle ere badena:

Gaindi dezagun behingoz norbere buruarekiko elkarrizketa tai gabea, narzisisimo gero eta likitsagoa [...], non errealitateak ez baitira dagoeneko gizaki biziarenak, lan egiten eta bere burua egiten duenarenak, baizik eta hitz hutsak, hitz-multzo hutsalak, hitzen esanahietatik sortutako tirabira antzuak (25. or.).

Memoria hurbilaz gogoeta egiteko, eta hizkuntzak pertsonen identitateak garatzeko duen indarrak gogoeta egiteko, *sigillataki* pila ederra bilduko duzue *Terra Sigillata*-rekin bi daian. ¶

- 
1. Gogoan izan behar da, gainera, *Terra Sigillata* liburuak 2008ko otsailaren 20an argitaratu zela, *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxieraren 5. urtemugan, argitalpenaren berri ematean ohartarazi bezala. Hitza eta adierazpen askatasuna ukatua izan zeneko egun hura gogoan.
  2. Urpekari-lan horiek gogora ekarri didate Donostiako Untzi Museoa 2004. urtean eginiko erakusketa bat, ur azpitik bilduriko aztarna arkeologikoak, iraganaren aztarnak hizpide zituena: Unsain, Jose Maria (arg.). 2004. *Urpeko oroimena: Euskal Herriko urpeko arkeologia eta ondarea*, Untzi Museoa, Donostia. Urpeko oroimen horren irudira sortu ditu ahots-aztarnategiak J.A. Arrietak, eta ahots indusketan ibili da, lehorrean zein itsasoan.

**Bibliografia**

- Arrieta, Joxe Austin. 1997. *Labur Aroz*, Txalaparta, Tafalla.
- Arrieta, Joxe Austin. 2008. *Terra Sigillata*, Txalaparta, Tafalla.
- Bakhtin, Mikhail. 1986. *La poética de Dostoievski*, FCE, Mexiko.
- Retolaza, Iratxe. 2007. «Ramon Saizarbitoria. *Hamaika Pauso* (1995)», in Kortazar, Jon (zuz.), *Eguno euskal eleberraren historia*, EHUKo Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Serrano Izko, Bixente. 2008. «Testuen autonomia edo independentzia», *Berria*, 2008-04-06.
- Zabala, Juan Luis. 2008. «Alde bietako odolaren mintzoak eta heiagorak», *Berria*, 2008-03-12.



# Balendin Lasueni elkarrizketa

**33** MIEL A. ELUSTONDO

# Balendin Lasueni elkarrizketa

**MIEL A. ELUSTONDO**

Idazlea eta argazkilaria

Idazlea da. Hainbat lan eta artikulu argitaratu zituen euskarazko zenbait aldizkaritan. *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia*-n, esaterako. Bestalde, historia eta etnografia gaiak landu izan ditu euskaraz eta gaztelaniaz idatzi dituen berrogeitaka liburukatan.

Musikazalea da. Zaldibarko Koral Elkartearen eratu zuen 1945ean eta bertako zuzendari izan zen berrogei urtez, 1985 arte. Ondoren, antzerki taldea, dantzariak, etnografia taldea eta beste antolatutako zituen. Aurretik, kirol elkartearen 1942an eta mendizale taldearen urte bat geroago. 1967an, berriz, eskoletarako guraso eta adiskideen elkartearen ere fundatze lanetan jardun zuen. Hango lehenengo lehendakaria izan zen. Ekintzailea da.

Gerediagaren elkartearen lehendakaria izana da, erakundearen sortu berriaren, 1966tik 1972ra bitartean.

Politikaria izana da. Herriko alkate izan zen 1976tik 1983ra, eta Bizkaiko batzar nagusietako kidea bi legegildetan (1979-1982 eta 1983-1986 aldietan). «Bergarako alkateak» taldekoa izan zen 1976tik 1979ra eta Durangaldeko Mankomunitatearen lehendakaria urte berorietan.

Eusko Jaurlaritzaren Kultur ordezkaria izan zen Bizkaian hamabi urtez, 1983an hasi eta 1994an erretretan sartu zen arte.

Enpresaburu izan da. Berrizko «Manufacturas Lasuen» lan-tegiko ugazaba izan zen erretiroa hartu eta fabrika alabaren esku utzi arte.

Eta, beti, Balendin —ez Valentin—, Lasuen Solozabal da, 1924an Zaldibarren (Bizkaia) jaioa. «*Valentín* nintzen jaio nintze-nean. Aitaita Valentin zen, nire aitabitxia. Haren izena daroat. Aukera etorri zenean, aldatu nuen izena. *Valentín* utzi eta Ba-lendin naiz harrezkero. Lehenago ere banuen izena aldatzeko gogoia, baina eragozpenak zeuden. Eta ez Balendin izenarekin bakarrik. Gure semeari Aitor izena jartzeko ere badakit zelako gorabeherak ibili genituen, historiako kontuak adierazi behar izan genizkion erregistroan bertako idazkariari, Navarro Villos-ladaren *Amaya o los vascos en el siglo VIII* nobelaren aipuak ekarri, loratu bat eman eta horrela lortu genuen. Aitor giristi-no izena ez zela eta beste izen bat eman behar geniola esan zi-guten. Santa Zezilia eguna zen —ni musikaria naiz, edo musi-kazalea, behintzat—, eta Aitor Zezilio jarri genion».

Irakurzale, euskaltzale eta abertzale da umetatik. Etxean zuten dendara salgai heltzen ziren egunkarietatik irakurritz zaletu zen letretara. Eibarren mekanika ikasketak egin eta lanbidearen ja-be egin zen. Soldadutzara orduko ugazaba zen bere tailerrean, baserriar nekazaleen traktoreentzako kabinak eta esekidura-dun aulkiak egiten. Lanak azoka profesioaletara joateko bi-dea eskaini zion eta urtean behin baino gehiagotan zen atze-rrian. Era horretako bidaia baten kariatara, Parisen, Jose Anto-nio Agirre lehendakariari joan zitzaion, agurtzera. «Noiz etorri behar duzu Euskal Herrira?», Balendinek, eta «Zuek gura du-zuenean!», Agirrek.

Aipagai ditu bere garaian izan diren kultur berpizkundeak eta, besteak beste, gerra ostekoa. Zaldibarren, eginahalak eta bi egin zituen Balendin Lasuenek herria kultura aldetik susper-tzen, mugimendua eratzen, aski bakarlari lanetan.

Egunkari bidez jakin zuen Gerediaga elkartearen sorreraren berri eta «Hauxe duk nirea!» esan eta bertako partaide zen

handik berehala. Urte eta erdira, berriz, elkaratearen lehendakari zen. Gogoan ditu lehenengo azokak. «Liburuak azokan nork erakutsiko, bila ibili ginen. Gaur alderantziz da». Sortzailleetako izanagatik ere, Balendinek begirakune kritikoa egina dio Euskal Herrian den liburu eta disko azokarik handi, ezagun eta jendetsuenari. «Uste dut gauzak hobetzeko probak egin behar badira, egin behar direla. Sarrera kobratzea izan liteke bat, nire iritziz».

Herriko alkate izan zen, Franco hil ondoko lehen alkatea Zaldibarren, eta Bergarako mugimenduko partaide. Bizkaiko ordezkaria izan zen bertako «batzar txikian», hau da, batzorde iraunkorren. Uste duenez, oraindik ere ez da Bergarako alkateen mugimenduari buruzko historia behar bezala idatzi. Berak, esaterako, gogoan ditu bukaeran izan ziren saltsa-saltso-rumak, ahaleginari erreka joarazi ziotenak.

Hamaika lanetan trebatu eta zaildutako euskaltzale fierra. 2007an Urrezko Luma jaso zuen Bilboko Liburu Azokan, euskal kulturaren alde bizi guztian egin duen lanaren merezimenduzko aitortza. Lanean da oraindik, 84 urte beterik. Zaldibarko historiaren atal berriak idazten ari da aspaldi. Hogeita seigarren liburuxka —«koaderno», Balendinek berak darabilen hitzaren arabera—, eta horretan segitzeko gogoia, asmoa eta adorea ditu. «Ez dut atsedetik hartu nahi. Horrela nabil ni gustura!».

Apal, eskuzabal, gizabidetsu hartu gaitu telefonoz berba egin dugunetan, Zaldibarren izan garen guztietan... Han izan dugu beti Balendinen emazte Gregori Azpitarte, kafesnea eta etxeko gailera fin eta ezin goxoagoak eskuzabal eskainka.

Elkarrizketan, berriz, galderari lotu eta jardun ohi du erantzun luzamendu gabekoetan. Nekez egin dio galderari itzuri edo ihes. Izatez gero, bere esku ez dauden arloetan: «Hori goi mailako politika da», esan izan du orduan.



**Heldu natzaizu herrira, Balendin. Zaldibarrera etorri naiz eta han non jakin dudan Zaldua duela herri honek benetako izena.**

Bai, bai... Errepublika garaiko kontua da. 1932 arte Zaldua izan zen herriaren izena. Urtebete lehenago, udalak herriaren izena aldatzeko erabakia hartu eta Madrilera bidali zuen eskaria, ondo dokumentatuta. Urte osoa behar izan zuten Madrilen espedientea aztertu eta herriko udalak erabakita-koa onartzeko. Zaldua zena, Zaldibar izango zen aurrerantzean.

**Zer dela eta, izen aldaketa?**

Bainuetxea eta dorretxea dauden parajea «Zaldu ibar» dira, Zaldibar. Dorreak Zaldibar zuen izena, eta bainuetxea ere Zaldibarko bainuetxea zen. Izen horixe hartu zuen, Zaldu ibarren zegoen eta. Gero, Zaldibarko bainuetxea gora eta Zaldibarko bainuetxea behera hasi ziren, eta baita Zaldua herriko Zaldibarko bainuetxea esaten ere. XIX. mendean ireki zen hemengo bainuetxea eta indar handia hartu zuen. Fama handia. XX. mendean, berriz, itxi egin zuten, medikuntzaren aurrerakuntzak bainuetxe asko ixtea ekarri zuen eta. Kontua da nahaste handia zegoela bazterretan, bateko Zaldua eta besteko Zaldibar. Azkenean, bainuetxearen izenak gaina hartu zion herriaren izenari eta udalak erabaki huraxe hartu zuen: Zaldua barik Zaldibar da harrezkero gure herriaren izena. Niri, orain, pena ematen dit...

**Zure berri ez duenari, zer esanez adieraziko zenioke nor den Balendin Lasuen? Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?**

Inora joan, edo telefonoz igual, eta horixe esateko ohitura baino ez daukat: «Balendin Lasuen Solozabal naiz, Zaldibarko». Galderagileak nire gainean besterik jakin gura bado, zera guztia esaten diot.

**Zer da «zera guztia»?**

Datorrena. Oraintxe probatuko dugu elkarrizketa honetan... Urtebetetik hona besterik esateko ohitura ere hartu

dut. «Kaixo, Balendin! Zelan?». «Urte askorekin, baina ondo», erantzuten dut orain.

Urte asko, diozu. 1924an jaioa, baina itxura oneko zaitugu oraindik.

Oso ondo nago osasunez eta burutik. 84 urte egin ditut ekainaren lehenengoan. Itxura ona? Ez dakit zein den sekretua, ezta sekreturik badagoen ere. Gurean denetarik egon da. Aita 44 urterekin hil zitzaigun eta ama, oster, lau-robeita hamabostekin. Aldea!

«Balendin Lasuen Solozabal, Zaldibarkoa», zure aurkezpen txartela. Elkarrizketa lantzen lagundu didan Roman Berriozabalek zelan aurkeztu zaituen jakin dezazun gura nuke.

Ea, bada.

«Balendin, Euskal Herrian diren zaldun gutxi horietako bat da. Jantzia, dotorea, edukazio onekoa, kultura zabalekoa... Egon, egoten daki. Entzun ere, entzuten daki. Azalpenak ere patxadaz eta soseguz ematen ditu. Orekaduna. Zatitu beharrean, batzen dakiena. Positiboa. Zaldun euskalduna. Euskaldun gorbataduna».

Hitz handiak dira. Romanek esan badu...

Gezurrik ez da hitz horietan.

Ez, gezurrik ez. Ez dut uste... Loreak bai, badira!

## Lehenengo urteak

Zaldibarren jaio eta hazi zen Balendin Lasuen Solozabal. Familiaren epelean igaro zuen haurtzarora, etxeko dendan eta herriko batzokiaren inguruan, harik eta gerrak orduko bizimodu dena zapuztu zuen arte. Beste euskal herri askotan bezala, ez zen giro izan Zaldibarren. Hildako eta desagertuak. Gosea eta miseria gorria. Gerra ostean bertan, Balendin artean hamabost urteko mutil gaztea zela, aitaren heriotza. Etxean lagundu beharra, batetik, eta ikasi gura, bestetik, uztartu behar izan zituen. Eibarren Mekanika ikasketak egin eta soldadu-

tzan zen laster —bi urteko luzamenduak eta gero—, eta bere enpresaren jabe egin zen itzuli zeneko. Bizi berri baten garaia heldu zitzaion...

**Bost neba-arreba izan zineten zure familian...**

Neu lehenengoa, zaharrena.

**Gerra aurrean jaioa, esan dugunez.**

Bai. Kaminoko Etxebarri etxean jaio nintzen. Bost urte neuzkala, aita-amek denda erosi zioten izekori, amaren ahizpa bati, horrek Eibarrera joan behar izan zuen-eta bizi izaten, familiarekin. Eliza ondoko denda erosi zuten, plazan dagoena. Handik hogeita bosten bat metrora dagoen etxe batean jaio nintzen, baina laster joan ginen dendako etxera. Gogoratzen naiz, bost urte neuzkala, aitak eskolara lagundu zidala, eliza ondoan zegoen eskolara. Aitak eskutik oratuta eraman ninduen. «Bihartik aurrera zeu bakarrik etorriko zara, etxetik hurbil zaude-eta». Holakoren bat esan zidala egingo nuke. Eskolara hasi eta ez nuen kurtso osoa egingo, baina hilabete batzuk bai, behintzat. 1929a zen, eskola berriak egiten ari ziren, oraintxe dauden leku berean. Nesken-tzako eskola, komunak bitartean, mutilen eskola, eta mutilen komunak gero. Eta lorategi txukun bat ere bazeukan bi eskolen artean, iturria eta arbolak. 1930ean inauguratu ziren eskolak eta sei urte bete baino lehen hasi nintzen eskola berri haietara. Hilabete batzuk egin nituen maisuarekin. «Tuertoa» esaten genion, begi biak diferenteak zeuzkan eta... Erdi jolas, erdi eskola izango zen hura. Ez dakit pozik joan nintzen, baina ez behintzat batzuk ikusten ziren moduan, negarrez, amarekin etxera buelta egin gura eta. Horrelakorik ez. Joan behar zela, eta joan.

**Aita gazterik hil zitzaizuen. Etxeko giroa aldaraziko zuen haren hutsuneak...**

Bai, oso. Aita, esan dizut, Berrizen jaio zen. Zaldibarrera etortzen ei zen ofizioa ikasten, armagin. Gogoratzen naiz

errebolberrak egiten zituela etxe aurreko tailer batean. Sei-zortzi bat gizonezko egiten zuten lan han. Eibartik etortzen zen materiala eta hemen ajustatu eta akabatu. Batzuek baskula doitzen zuten, beste batzuek, txispa esaten zitzaiona. Aitak eta beste batek, errebolberrera. Forjatu eta mekanizatuta etortzen zen armazoia; danborra doitu, disparua ipini eta lan horiek egiten zituzten. Oraindik gogoratzen naiz errebolber txorta bat, sokan lotuta, zintzilika. Mandatari batek Eibarrera eramaten zituen, probalekura. Ugazabak handik jaso eta amaitzen zituzten: pabonatu, nakarrezko piezak jarri eskulekuan... Umetako gogorapenak! Aita nik hamabost urte egin aurretxoan hil zen, eta aita hil eta hiru bat hilabetera jaio zen bosgarren umea. Etxean neu nintzen nagusia...

#### Denda zenuten etxean.

Aitak egiten zuen hango lana. Amak, gela bat zuen han alboan. Jostuna zen eta neska gazteei josten-eta erakusten zien, oihalak ere saltzen zituen. Argazkiak ere badituzte garai hartakoak.

#### Aita hil eta, zu, etxeko nagusia...

Eta eskolan ikasten! Herriko eskolan ez nuen denbora askorik egin. Hamar bat urte arte-edo ikasiko nuen han. Gero, Zaldibarren bazen abade bat eskola partikularrak ematen zituena. Fenomenoa zen matematikan. Bertoko eta herritik kanpoko jendea gertatzen zuen batxiler egiteko. Hantxe, eskolan, eta amari dendan laguntzen ibili nintzen gerra amaitu arte-edo. Gero Eibarrera joan nintzen, ofizioa ikasten.

#### Abertzaleak zineten etxean?

Aita-amak abertzaleak ziren, bai, nabarmentzen ez baziren ere. Denda zeukaten eta, denda batean, denekikoa egin behar duzu, baina disimulatzen ere ez ziren ibiltzen. Ikusi egiten da hori. *[Horman esekita dituen argazkiei begiratu die. Agirre, Leizaola, Garaikoetxea, Ardanza eta Ibarretxe le-*

*hendakariak ageri dira bertan, eskaintza eta guzti.] Nahiz eta gure etxean horrelako irudirik ez egon, sentimendua bai, bazegoen. Nik diot etxeko girotik dudala euskaltzaleta-*

“

Zortzi urte inguru neuzkala, batzokira joaten hasi nintzen domeketan. Athletic-en partiduak eta entzuten genituen irratiz

suna. Aita-amek beti abertzale botoa ematen zuten. Zortzi urte inguru neuzkala, batzokira joaten hasi nintzen domeketan. Plazatik hurre zegoen batzokia, eliza ondoan, eta han irratia zegoen. Orduan irratia leku gutxitan zegoen, baina batzokian bai! Athleticen partiduak-eta ematen zituzten eta domeka arratsaldeetan partiduak entzuten joaten ginen. Horrekin batera, dantzari hasi nintzen. Zazpi urterekin hasiko nintzen, ze zortzi urte neuzkala egin nuen lehenengo dantza. Ibaiondora joan ginen, Getxoko Arenas futbol taldearen zelaira, dantzara. Arenas, Real Union eta horiek ziren orduko taldeak. Bada, Arenasen zelaira joan ginen gu, dantzan.

”

**Noizko kontuak dira, Balendin? Zein urtetan gara?**

1932an izango zen hori, nik zortzi urte neuzkala. Urteak ekainean egin eta San Inazio egunean bi mila dantzarik egin genuen dantza Getxoko Ibaiondo futbol zelaietan. Bozgorailuak jarri zituzten; txistulariak, berriz, tribunan.

**Gerra aurreko denboretan bi mila haur Getxon biltzea aintzako-tzat hartzekoa da, inondik ere.**

Gehienak batzokietako haurrak ziren. Errepublika garaian hasita abertzaleen giroa oso handia zen. 1931n etorri zen Errepublika, eta 32rako Zaldibarren batzokia geneukan. Ez zen alderdiaren jabegoa izango, baina hara joaten ginen, batzokira. Antzerkia eta dantza, bietara egiten genuen. Garai hartan bi mila haur biltzea gauza handia iruditzen zaizu, ezta? Bada, hurrengo urtean San Mamesen izan ginen, bi mila eta bostehun ume, dantzan. Ez zen gauza perfektua izango, baina haren esangurak bai, balio du.

**Baten batek lan egin zuen ume horiek denak biltzeko...**

Bai, bai. Francoren ostean guk egin genuen antzera, orduan ere beste batzuek egin zuten lana. [*Beste argazki bat erakutsi dit. Neska-mutil koadrila handia ageri da bertan.*] Sukarrietan da, 1932an. Hortxe nago ni, lore koroa batekin, dantzari. Zaldibarko batzokiko jendea inguruan... Omenaldi bat zen, eta hantxe, Sabino Aranaren hilobian utzi genuen koroa. Horrela.

**Zer etorriko zen giro horretatik, Franco izan ez balitz?**

... Beste historia bat.

**Abertzaleak ez ezik, errepublikarrak ere baziren sasoi hartan Zaldibarren...**

Bai. Mila biztanle inguru izango zituen orduan Zaldibarrak. Gehienak, abertzaleak. Errepublikarrak ere baziren, baina gutxi. Karlistak ere baziren batzuk, baserrietako etxejaunak gehienbat. Oker ez banago, 1933an, Errepublikak lege bat egin zuen baserrietan bizi ziren erreterroak babesteko. Ordu arte, baserrietako ugazabei komeni ez bazitzaien, nahiko erraz botatzen zituzten maizter zeudenak. Lege hura eta gero hori ezin izan zen egin, arrazoi handiren bat tartean ez bazen. Lege hura zela eta ez zela, ordu arte nazionalista izandako batzuk karlista egin ziren.

**Jo dezagun zure gaztarora. Dendara, lehenengo.**

Denetarik saltzen zen, egunkariak, jatekoak, ontziak, perfumek, abarketak, arropak... Denetarik. Herri txikietako dendak horrelakoak izaten ziren sasoi hartan.

**Han zaletu zinen zu egunkarietara, ala?**

Bai. Berton irakurri nituen lehenengo egunkariak. Hala ere, guk egunkariak dendan, Franco sartu eta gero eduki genituen. Aurretik Zaldibarren ez zen egunkaririk saltzen. Harpidetza eginda zeukanak beste inork ez zeukan egunkaririk. Gure aitak Donostiako *El Día* hartzen zuen, adibidez.

Gero *Eguna* izan zena. Beste batzuek *Euzkadi* hartzen zuten, edo *La Gaceta del Norte*... Baina, beti, harpidetza bidez. Postariak ekartzen zituen, goizean. Franco sartu eta gero, gure etxera egunkaria eskaintzen etorri ziren, eta nik horretan egiten nuen lan dendan, egunkariak saltzen. Eta badiotsut, egunkariak irakurtzen ere orduantxe hasi nintzen.

### Zertzuk irakurtzen zenituen?

*El Pensamiento Navarro* etortzen zen, eta *La Nueva España*... *Gaceta*-k lehengo izenarekin jarraitzen zuen. *Euzkadi* zenak *El Correo Español - El Pueblo Vasco* izena hartu zuen. Donostian *La Voz de España* zegoen... Hantxe idazten zuen Basarrik. Harremanak ere izan nituen harekin, lehenengo denboretan.

### Egunkari asko, baina denak kolore batekoak...

Joera batekoak denak. Aurretik, bakoitzak bere tankera zeukan. *La Gaceta del Norte* karlistena zen. *Euzkadi*, abertzaleena. *El Pueblo Vasco*, ostera, abertzaleak ez zirenek ere erosten zutena. Gero, *La Nueva España*-eta hasi ziren. Orduantxe hasi nintzen ni egunkariak irakurtzen. Gerrako kronikak jarraitzen nituen, Teruelgo bataila-eta. Beti eduki dut historia eta kulturarako zaletasuna. Hemeretzi, hogei urte inguru nituela hainbat autore klasiko irakurri nituen...

**Gerra aurretik jeltzaleek bilkura handi bat egin zuten Durangon. Han izan omen zinen...**

Orduantxe abertzaletu nintzen zeharo! Bene-benetan. Zal-dibarko batzokiko bi bururekin joan nintzen Durangora. Patxo eta Bitor Garitarekin. Trenean joan eta trenean etorri. Aitak esan zidan: «Patxoren eta Bitorren ondotik ez alde ere egin!». Aita amorratua zen irakurtzen eta egunkarietatik jakin zuen batzar hura zegoela eta jende asko ibiliko zena. Itzela! Trenak geratu barik egun guztian, ordu erditik ordu erdira edo ordubetetik ordubetera. Joan nintzen Durangora. Gogoratzen naiz zelai handi bat, orain Ezkurdi frontoia dagoen

atzeko aldean. Zelai izugarri bat. Tribuna bat jarri zuten, ar-bola adarrekin eta berdez antolatuta. Gu txikiok, tribuna aurre-aurrean geunden, zelaian jarrita. Hunkigarria izan zen mendigoizaleak etorri zirenean. Alderdikoak ziren gehienak, itxura denez. Ez zirenak ere egongo ziren, baina abertzaleak, behintzat. Mendigoizaleen mugimendua oso indartsua izan zen. Bilbo aldetik etorri ziren, gehienak bortzegiekin, praktabarrenak galtzerdietan sartuta... Meza izan zen lehenengo eta, meza ostean, mitinak. Ez dakit mitinak zeinek egin zituen, edo zer esan zuten, horrelako akordurik ez daukat, baina goiz guztia hunkituta pasatu nuen. Sekula hainbeste jende, batera, ez nuen ikusi ordu arte! Eta zortzi urte nituen! Izugarrizkoa. [Egun hartako argazkia erakutsi dit. Jendetza ikaragarria ageri da.] Egun hartan bertan, 1932ko irailaren 4a zen, era horretako hiru kontzentrazio handi egin ziren Euskal Herrian: Zangozan, Usurbilen eta Durangon.

**Durangon egin zen batzar hartako berotasunak zeharo abertzaletu zintuen, beraz.**

Bai. Hori, batetik, eta bestetik, antzerkia, batzokian egiten genuena. Zaldibarko seme Bitor Garitaonandia, abade izan zen. Donostian bizi izan zen eta *Zeruko Argia*-ko zuzendari. 1929an hil zen, eta nik ezagutu nuen! Bost urte neuzkanean! Esan dizut plazan bizi ginela, eliza ondoan. Behe batean geneukan denda. Lehenengo solairuaren erdia ere guk erabiltzen genuen. Bigarrenean, Zaldibarko parrokoa bizi zen. Kanpotik abaderik etortzen bazen, han bazkaldu, afaldu, lo eta denak egiten zituen. Eta hantxe ezagutu nuen Bitor Garitaonandia. Bost urte nituen eta ideia bat baino ez daukat. Don Benito Zaldibarko parrokoarekin, beste abade bat, txikitxoagoa: Bitor Garitaonandia. Urteetara, neu ibili nintzen hari plazan monumentua ipini genionean. Francoren denboran. Zelan pasatu genuen orduan ere!

“

Bost urte nituela Bitor Garitaonandia ezagutu nuen. Urteetara, hari plazan monumentua ipintzen ibili nintzen

”



### Bitor Garitaonandiari monumentua egiteko ere penak eta nekeak izan zenituzten?

Bai. Monumentua egin genuenean, orduko garairako propaganda izugarria eginda geunden gu. Ameriketan zeuden zaldibartar denei idatzi nien, diru laguntza emango ote zuten galdetuz, monumentua egiteko. Eta egin genuen eta ipini zen. Baina Francotarrak, zelako elementuak! Nahiz eta monumentuaren kontu hura Korral Elkarteak antolatuta egon, komisio bat sortu nuen eta hango presidente... alkatea ipini nuen! Alkate frankista. Kontzejalen bat ere uste dut bazegoela komisio hartan baina, bestela, neuk gertatutako pertsonak, koralekoak-eta. Propaganda egin, programa atara, ekitaldia prentsan iragarri —meza kantatua, Bitor Garitaonandiaren motete batzuk meza denboran abestu, meza ostean diskurtsoak, monumentua bistaratu...—, eta hilabete lehenago eroriei monumentua egiten hasi ziren «eurak». Bitorrena plazan dago, elizako atearen parean, eskuin aldera. Euren monumentu hura ezker aldean jarri nahi zuten. Gure publizitatea aprobetxatu nahian haiek! Bazekiten euren monumentua ez zela herriaren sentimendukoa, baina zelan edo hala jartzeko, huraxe aprobetxatu behar! Egundoko diskusioa izan genuen! Batean, batzar batean, mahaia ukabilez jo eta esan nuena esan nuen. Ez zitzaien gustatu.

### Zer esan zenuen?

... Atzeratu egin behar izan genuen monumentuaren inaugurazioa. «Suspendido». Bertan behera utzi zuten gure monumentua. Esan ziguten Bitorrena egiten zen egunean bertan bestearena ere egin behar zela. Nik, ezetz: «Ez. Inondik inora ez!». «Zergatik?». «Gauza bi ezberdin direlako». «Zer ezberdin?». «Bata, herriko semea, musikaria, autoritatea izan dena kulturaren. Haren omenaldia gertatu dugu meza eta guzti. Zuek, gerra denboran hil ziren gizon batzuen egin duzue, baina alde batean hil zirenekin bakarrik, ez denekin!». Jakina, bost lagun ziren, *muertos por Dios y por la patria* (Jain-

koaren eta aberriaren alde hilak). Eta besteak? Zerrenda aspaldi egin nuen nik. Orain modan dago memoria historikoa eta kontu hori. Zaldibarren gerra denboran eta gerrarengatik hil ziren denen izenak bildu nituen nik denbora hartan. Nahiz bando batean ibili, nahiz bestean ibili, hil ziren guztien izenak. Alkate sartu nintzenean, Franco hil eta lau bat hilabetera, lehenengo egin nuen behar bat horixe izan zen: oroitarri bat gertatu, euskaraz eta erdaraz, gutxi gorabehera zera esaten duena: «1936tik 39ra egin zen gerra zibilean gerrako arrazoiengatik hil ziren guztien alde». Erorien monumentua kendu eta harri huraxe jarri nuen. Batetik, ez nion irizten plaza toki egokia denik gerran hil ziren batzuei —batzuei— omenaldia egiteko. Ez dakit pertsona batzuek zelan hartuko zuten hori, baina zuzen egin nituen tramite guztiak, eta lege aldetik behar ziren bedeinkapen guztiakin, hilerrian oroitarria jarri eta plazakoa kendu nuen.

**Bitor Garitaonandia.** Haren antzerki lanik ere eman zenuen zuk, txikitan...

Bai, batzokian, ni txiki nintzela. Bitorrek lau bat obra zeuzkan teatrokoak. Guk bi egin genituen, *Iziartxo* eta *Aitona ta billoba*. Ekintza bikoak ziren. Akordatzen naiz. Batean egiten genuen agertokira irten, egon han apur batean, eta irten. Beste buelta batean egiten genuen kantatu. Akordatzen naiz zelan kantatzen genuen: «Itsasoan laino dago, Itziartik Debaraino...». Hori kantatzen genuen tripleok. Horitik etorri zitzaidan zaletasuna. Umeentzako giro polita zen batzokikoa: dantzan, eta antzerkiak egiten.

**Jose Antonio Arana Martijak** ere horiexek aipatu zizkidan iaz. Alegia, Gernika alderdian ere koru-dantzak ziren euskaldunek diktadura garaian erabili zituzten arnasbideak.

Nik uste dut bazeudela gizon-emakume argiak mugimendu hura martxan jarri zutenak. Merituko pertsonak ziren. Herri

“

Orain modan dago memoria historikoa. Nik, denbora hartan, gerrarengatik hil ziren zaldibartar guztien izenak bildu nituen

”

guztietan saiatu ziren, baita karlisten herrietan ere, Duran-  
gon, Ermuan... Elorrion, aldiz, ez. Alderdia, euskaltzaletasu-  
na eta euskara bultzatzeko oso modu egokia ziren batzokiak.  
Lan hori egin zuten... Euskara esan dut, baina guk ez genuen  
premiarik, euskaraz bakarrik egiten genuen eta... Nik esango  
nuke lehenengo euskal mugimendua Primo Riveraren garaian  
piztu zela, edo Primo Rivera baino lehen. Bigarrena, gerra os-  
tean, Francoren denboran. Mugimendu hori, Zaldibarren,  
neuk hasi nuen: koralaren bidez. Koral Elkarteak ondo ikusita  
zegoen herrian: elizkizunetan kantatzen zuen, Eguen Santu-  
ko prozesioetan miserereak... Kantu ederrak denoi gustatzen  
zaizkigu. Bestetik, ezin izan dut behin ere disimulatu —eta  
disimulatzen ahalegindu ere ez naiz egin—, zein pentsaerata-  
koa naizen, baina uste dut ondo ikusia beti izan naizela.

## Gerra

Hamabi urte zituen 1936ko gerra etorri zenean. Adinak, ge-  
rraren kontzientzia garbia izaten lagundu zion. Memorian il-  
tzatuta ditu orduko gertakariak ez ezik, baita barne-barneko  
sentimenduak ere. Horietarik batzuk ondu dituen idazlanetan  
jaulki ditu. Beste batzuk gordean daramatza oraindik, garaia  
heldu ez delakoan, edo bestelako lanen bati ekin diolako.

Gerra garaian Zaldibarren den Okilloko leizean gertatua eka-  
rri dugu akordura, lehenengo. Okilloko koba Ganguren men-  
diaren hegalean da, Santa Mariñezar esaten zaion parajea.  
Sarrera oso du txikia, 60 bat zentimetro zabal, bi metro luze.  
Leizearen luzera, berriz, 50 metro inguru. Zaldibarren jakina de-  
nez, gerra garaian bertan ezkutatuta izan ziren zenbait lagun.

Okilloko leizeak gorderik duen gerrako historia hartu dugu  
atal honetako elkarrizketa abiapuntu.

**Okillon ezkutatuta egon zen jendearen istorio-istoriaz jakin  
nahiko genuke...**

Kobazulokoa ez da zeharo herrian kontaktzen den bezala.  
Bertsio zabalduena kontatuko dizut lehenengo, jakin deza-

zun, Zaldibarkoa izan barik ez duzu jakingo eta... Gerra zibilean Zaldibarko zenbait pertsona eta Madrilgo mutil gazte bat han ezkutatu ziren. Madrildar hura armadako kapitain baten semea zen. Haren familia hemengo bainuetxera etortzen zen eta Zaldibar hotelean egoten ziren, ostatuan. Herrian laster zabaldu zen hainbat pertsona mendian ezkutatuta zeudela, kobazuloan. Milizianoek jakin zuten, eta haien bila joan ziren, eguna argitu baino lehen. Kontua da ordurako kobazuloa hustu egin zutela han zeudenek. Afariaren hondarrak baino ez omen zituzten laga han. Okilloko zuloko haiek Elgetatik Bergarara joan ziren, ihesi. Hurrengo egunetan zalaparta handia egon zen herrian, eta hainbat lagun Elorriora eraman zituzten, deklarazioa hartzeko.

**Hori da, orduan, Okilloko koban gertatua...**

Bertsio bat, behintzat. Zabaldueña, nahi baduzu. Madrilgo gazte hark egunerokoa idatzi zuen, eta hura ere irakurri ta daukat. Hor bigarren bertsioa ageri da. Eta, oraindik gehiago, nik, neure aldetik, beste xehetasun batzuk ere jakin ditut, eta hor hirugarren bertsioa edukiko genuke.

**Hiru bertsio ezberdin dira?**

Zeharo bat ez datozenak, behintzat. Egunen batean zer edo zer idatziko dut horren inguruan. Hiru bertsioak agertuko ditut, baina oraindik ez da sasoa. Tartean gertakari larriak izan ziren. Haiek hilda daude, baina saltsan sartuta ibili ziren batzuen senideak bizirik dira, eta hobe oraingoz ez agertzea. Baina esan dizut, egunen batean osatuko dudala Okillon gertatu zena.

**Zuek herritik alde egin zenuten...**

Gurasoak Zaldibarren geratu ziren. Guk, umeok Mallabira alde egin genuen, neskamea hangoa zen eta. Haren base- rrian egon ginen, Zengotita Goikoan. Zengotita Goikoa, Zengotita Beitia, Zengotitabengoa eta Zengotita Ugarte ba-

serriak zeuden han. Gurasoek hemen giro eskasa zegoela pentsatu zuten eta bidali gintuzten hara. Hemen asturiar-  
rrak, milizianoak eta beste zebiltzan, eta neskamearen base-  
rrira bidali gintuzten han lasaiago ibiliko ginelakoan, baina  
dena alderantziz gertatu zen, su handia hantxe gertatu zen  
eta. Teilatuan kanoikadak jo ere bai, Elorriotik. Intxorta  
apurtu eta hona zetozela.

Orain baino lehen, honela kontatua duzu garai hartakoa: «Elo-  
rrio ingurutik kanoiekin tiro egiten zuten eta bataila izugarria  
izan zen handik kilometro erdira. Auzo bateko baserri batean,  
portalean, ospitale militarra antolatu zuten, eta hura izugarria  
izan zen: hildakoak, soldadu zaurituen aieneak, denak odolez  
beterik... Nik hamahiru urte nituen, baina ez dakit gaur egun  
balorerik izango ote nukeen horrelakorik ikusteko. Gero, Elgeta-  
ko frontea apurtu zenean, hemen ere bataila handia izan zen».

Hura nobedadea zen, odola eta larridura hura. Eta han zer  
mugimendu zegoen ikusi gura nuen. Zengotitatik gora, Zen-  
gotita Gaina esaten zaion mendi bat dago. Errotak ipini di-  
tuzte han orain. Trabakuatik ondo-ondoan ikusten dira...

Hor bataila itzela egon zen. Hortik jaisten zituzten Zengoti-  
tako baserriko ate aurrera hildakoak eta oso  
gaizki zeudenak. Erreketek hor deskuidua edu-  
ki zuten. Elorriotik kanoiarekin botaeran, behar  
baino atzerago bota zuten eta besteen tropei bo-  
ta beharrean, eurenak jo zituzten. Besteak ere  
harrapatuko zituzten, baina gehienak eurenak.

“

Txarrena da gerra-  
zaleek eurek baka-  
rrik ezin dutela  
gerra egin, gerra  
nahi ez dutenek  
ere joan behar  
izaten dutela

”

Entzunak izango dituzu Xenpelarren bertsoak: «Ez  
naiz ni gerraren zale...». Gerra probatu ez duena  
prest da gerrarako. Probatu duenak ez du gerrarik  
nahi.

Ez, gerra negargarria da. Txarrena da gerra-  
zaleek eurek bakarrik ezin dutela gerra egin,  
gerra nahi ez dutenek ere joan behar izaten du-  
tela. Zoritxarrez, horrela da.

### Zer diozu gerra osteko goseteaz?

Gerra denboran bertan hasi zen hori. Erreketeak Zaldibarraren sartu eta egun bira etorri ginen Zengotititik etxera. Gogoratzen naiz menditik bueltan, bidean, eskuko bonbak, errebolberrak, pistolak... ikusi genituela, milizianoak hanka egin eta botata lagatakoak. Traba egingo zieten. Neskameak esaten zigun: «Horiei begiratu ere ez, eta are gutxiago ukitu!». Haren ondoan etorri ginen etxeraino. Hemen, erreketek harro. Guk ogi beltza jaten genuen... Ogia ere ez zen hurra, ogi iluna, arto kolorekoa baina arto gusturik ez: «ogi beltza». Erreketeak, berriz, ogi zuria partitzen zebiltzan, ugarietasuna erakusten. Eurak heldu zirenetik zelako alde zegoen erakusten! «Zuek eduki duzuen miseria-eta, ikusi gurekin zelan zaudeten!». Harropuzkeria irizten nion horri. Horrela zen. Baina hori ere amaitu zen, apurka-apurka. Francoren denboran errazionamendua zegoen. Nik dendatik dakit hori, zelan kartillak zeuden. Hor egon zen momentu bat, Espainiako gerra amaitu eta mundu gerra hasi bitartean... Orduantxe eskasia, eta gosea. Dirurik ere ez, diru gutxi... Gure etxean ez zen horrelakorik igartzen. Aukera handirik ez zegoen baina egunero jaten genuen, behintzat. Denda geneukan eta hobeto manejatzen ginen. Baina batzuek txarto pasatu zuten, bai Errepublika denboran eta bai Franco denboran. Errepublika denboran zera gertatzen zen: Errepublikak zeuzkan lurretan hartzen zen jeneroa ugari egoten zen: arrosa, esate baterako. Baina patatarik ez zegoen. Porru-patatak jan beharrean, porru-arrosa jaten genuen. Ez zegoena ez zegoen. Francoren denboran agertu ziren estraperloa eta horriek. Orduan, pagatuz gero, ogi zuria ere egoten zen. Gaztea izan arren sekula ere ez nion ondo iritzi kontu horri. Eta gosea, eta krisia lanekoa... garai estua izan zen.

### Nola egin zuen aurrera jendeak?

Liburuxkaren batean aipatzen dut: Zaldibar —eta beste herri batzuk ere bai—, ondo portatu ziren. Gipuzkoa aldetik,

Eibartik batez ere, jendea etorri eta bertan geratu zen. Zergatik? Askok, Zaldibarko baserritarren bezeroak zirelako, hemen goen esnea eta ortuariak erosten zituztelako eta haien ezaupidea eginda zutelako... Gu, Errepublika denboran, etxean ginen... lau neba-arrebak, aita eta ama, eta beste sei Eibarko lehengusu-lehengusinak eta izeko-osabak. Hamabi. Denok ez genuen gurean lo egiten, lekurik ez geneukalako, baina batzuk alboko etxean, beste batzuk bestean... Eskuzabal portatu zen hemen jendea. Gu umeak ginen eta ez dakit zer egingo genuen, baina gure gurasoak eskuzabalak izan ziren.

**Eskasia, krisia, gosetea... garai iluna, inondik ere.**

Bai, garai iluna. Beste gauza bat akordatzen naiz, mutiko nintzela, gerra aurretik erromeriak zirela jaietan eta domeka guztietan, frontoian edo plazan, eta neska-mutilek dantzari egiten zutelako. Gero, etorri zen gerra denbora —hiru urte, hilabete batzuk falta—, domeketan erromeria egiten bazen ere, mutilik ez zen ikusten, neskak bakarrik, neskak elkarrekin dantzari. Mutilek, hamabost edo hamasei urtekoek, zeudenek, euren arrebekin edo ezagutzen zutenarekin egiten zuten dantzari. Sasoiko neskek mutikoekin egiten zuten dantza. Ez zegoen adineko mutilik! Bai Errepublikarekin, denbora labur batean, eta bai gero, gerra garaian. Ez zegoen alaitasunik. Erromeria haiek ez ziren guk umetan lehenengo ezagutu genituenak. Jendea triste! Batzuek, etxekoren bat edo familiakoren bat kartzelan. Beste batzuek, gerran. Notiziak? Bada, eskutitzak. Eta eskutitzak ere zabalik etortzen ziren, ez ziren itsasten; zentsura pasatu behar zuten. Tristeia zen, tristeia.

**Gerrarekin, kito ordu arteko mundua, ala? Kito batzokiak, dantzak eta gainerakoak.**

Akabo ziren, orduan, denak. Ez dantzaririk, txistulariak ere soldadu —euretatik bat gerran hil zen; bestea gaixorik hil zen, etxean—, oso garai tristea. Eskolak ere ez zuen jarraitu. Errepublikarekin bai, baina erreketekin ez.

**Eskolarik ez, baina ikasi zenuen...**

Gerra denbora orduko, eskola partikularrera pasatuta nengoen. Hemen bertan, Zaldibarren. Abadea, eta haren familia, gure dendara etortzen ziren, eta nik uste dut berak bultzatuta hasiko nintzela partikularrera, herriko eskola utzita. Amak kontatuta dakizkit horiek. Abadea tematuta zegoen, eskola partikular hartara joan nendin. Batxilergoa ikasten ari zirenak etortzen ziren hara; batez ere matematika gairak ez zutenak. Eibartik, Gernikatik, Bilbotik, Durangotik... etortzen ziren Zaldibarrera, ikastera.

**Harrigarria.**

Augusto Unceta?

**Bai.**

Gernikako Astrakoa. Intimoa zen. ETak hil zuen.

**Badakit, bai. Gogoratzen naiz.**

Elkarrekin eskola horretan ibilitakoak gara. Augusto, gainera, abadearen etxean bertan zegoen apopilo...

**Zure ikasketak-eta, ari ginen.**

Aitak nire izena emanda zeukan hemengo lantegi batean, «Forjas de Zaldibar», famatua. Orain ez dago. Hemengo utzi eta Iurreta aldean dago orain. Garai hartan ofizio estimatua zen trokelgile lana. Aitak forja lantegian eskatuta zeukan niretzako txanda. Premia zenean, ni han beharrean has-teko. Baina hangoa noiz izango zen ez genekien eta, bien bitartean, zer edo zer gura nik! Amari esaten nion: «Eibarrera joango nintzateke, eta han mekanika ikasi». Eibarren, gainera, familia geneukan, eta errazago zen. Eta haraxe hasi nintzen, Eibarrera. Han, bostak eta erdietan tailerretik irten, osabaren etxera joan, apur bat garbitu, eta akademia batera joaten nintzen: ordubete egiten nuen marrazketa lineala ikasten, eta beste ordubete, kultura orokorra. Bi urte egingo nituen horrela. Hamazazpi urte nituenetik hemezortzira bi-



tarte. Horretan nintzela, aitak eskatuta zeukan txanda heldu zen forja fabrikatik. Eta Eibartik Zaldibarrera etorri nintzen, mekanika apur bat ikasita, marrazketa lineala ere bai, eta kultura orokorra. Nahiz eta kultura orokorra Zaldibarren bertan ikasita nengoen, eskola partikular hartan...

#### Forja fabrikan hasi zinen...

Ez fabrikan bertan. Han behar egiten zuen trokelista bat bere kontura hasi zen, beste lagun batekin sozio. Nik mekanika nozioak nituen eta oso ondo moldatu nintzen haiekin. Geroago, nik ere neure kontura sortu nuen enpresa. Soldadutzara joateko luzapena eskatu nuen. 21 urterekin joan beharrean 23rekin joan nintzen, mutil handia eginda! Eta soldadutzara baino lehen enpresa sortuta nengoen.

#### Enpresaren jabe, 22 urte zenituenean...

Bai. Trokelgile ofizioa ikasi nuen, bi lagun etorri zitzaizkidan, eurekin sozio hasteko. Nik baietz. Teknika alderdia neuk egiten nuen. Beste bat, langilea zen. Hirugarrena, administraria. Soldadu egon nintzen bi urteetan elkarrekin egon ginen. Urte bitik, hamahiru hilabete baimenarekin egin nituen. Hilabete egiten nuen Burgosen, eta hilabete Zaldibarren. Soldadutzan bertan, enpresarako lanak egiten nituen: krokisak, planoak... Postaz hona bidali eta horrela. Baina ez nion gure lanari aurrerabiderik ikusten: eutsi besterik ez genion egiten. Eta 1950ean neure enpresa ipini nuen: «Manufacturas Lasuen». Alemaniako lizentziaren jabe egin nintzen eta nekazaritzarako produktuak egiten hasi nintzen, traktoreen jarleku esekiduradunak, traktore kabinak...

Zer du inguru honek? Hainbeste enpresa txiki izan da hemen hauetan...

Lehendik dator hori. XX. mendean arma tailer txiki asko zegoen hemen. Zaldibarren, baita baserri batzuetan ere. Lau baserritan bai, behintzat. Hori, gerra aurretik! Eta Zaldibar arma zonaldeko azkeneko herria da! Arrasaten hasten da zo-

naldea: Arrasate, Soraluze, Elgoibar, Eibar, Ermua eta Zaldibar. Horixe zen arma zonaldea. Tailer txikitan asko egon da hor. Batzuk txispagintzan, beste batzuk baskulak doitzen... Horrela. Ez hori bakarrik. Mutiko nintzela, eta ez hain mutikotan ere bai, lisatzeko burdinak, estufa modukoak... etxetresna elektrikoak egiten ziren hemen. Gerra aurretik bi tailer zeuden Zaldibarren. Esan nahi dut zure tailer kontu hori ez dela berria. Gerra aurretik dator. Eibarren eragina ere izango da; arma tailer txikiak irekitzea, esan nahi dut. Dena bertan Eibarren egin beharrean, hainbat lan inguruko herrietan egiten zuten. Eibarren ofizioa ikasi eta norberaren herrian ireki tailerra egiten zuen jendeak. Hala ere, Eibarren egingo zuten lanik inportanteena, azkeneko doitzea, alegia...

## Zaldibarko Koral Elkarte

Labayru Ikastegiko buru Ander Manterolak honela idatzia du Zaldibarko Koral Elkartearen gainean: «Abesbatza hau, hirurogei urtean, herriko kultura eta baita kirol esparruaren suspergarri izan dogu. [...] Gaur egun urrin gelditzen jakun 1945 hartan, hain zuzen be orduko sasoiari 21 urte eukazan Balendin Lasuen gaztearen ekimenez, Zaldibar Koral Elkarte eratu eta taldearen lehenengo ekitaldia San Andres eguneko Meza Nagusian izan zan, herriaren jai nagusian». Gerra osteko euskal mugimendua Zaldibarren Balendin Lasuenek hasi zuen, koruaren bidez. Korua, dena den, egiazko kultur elkarte zen. Urte askoan Zaldibarko herrian egin izan ziren, eta egiten diren, hainbat kultur ekintza Koral Elkartearen eraginez egin ziren. Ekimen zerrenda luzea osatu zuen elkarteak: solfeo, txistu, piano, gitarra, trikitixa eskola, antzerkia, dantzak, Olentzero, Agate deuna, errege kabalgata, abesbatza eta musika kontzertuak, marrazki, margo, argazki eta etnografia erakusketak, aurreku eta trikitixa txapelketak, eskulan eta idazlan lehiaketak... Horrekin batera, elkarteak herriko hainbat pertsona ospetsuri omenaldia egin zien eta, bestalde, behartsuei

laguntzeko ekitaldiak ere antolatu zituen. Koruari berari dago-kionez, Zaldibarren eta Bizkaian egin izan ziren abesbatza emanaldietan ere parte hartu ei zuen.

«Ez dago zalantzarik. Gerra amaitu ostean Korral Elkartea herriaren kultur motorra izan dala, eta gaur egun be kultur lana egi-teko eta jarraitzeko erreminta baliotsua dala». Zuk idatzia da.

Hala izan da.

Askotariko ekitaldiak gorabehera, musika izan da behinen. Mu-sika, lehenengo, zure zaletasunetan, kultur mundura bideratu zintuena...

Aspalditxoan naiz musikazalea. Bost urte ikasi nuen mu-sika. Baina hori baino lehenagoko kontuak ere badira. Zal-dibarko organistaren semea, Felipe Zabala, gerran hil zen. Koruko zuzendaria zen. Nik, haren aitarekin —hau da, or-ganistarekin—, ikasi nuen solfeoa eta zuzentzen ere bai, apur bat. Eta parroko korua zuzentzen hasi nintzen. Nire

“

Koruan, kantu erlijiosoak bai, baina bestelako musika ezin zitekeen han erabili. Eta nik hori nahi nuen, bestelako musika ere bai!

”

gogoia zen elizako kantuak bakarrik barik, bes-telakoak ere sartzea, kontzertuak emateko. Bai-na, orduan ere bazen lege bat, Vatikanokoa, eta haren arabera emakumeek korura ezin zuten igo. Gizonak, eta mutikoak; tipleak-eta. Ko-ruan, mezak kantatzen genituen. Tipleak ba-neuzkan, baina neskekin koru mistoa egin eta kanpora atera nahi nuen, kontzertuak ematen. Elizan, kontzertuak ere ezin ziren eman! Kan-tu erlijiosoak bai, baina bestelako musika ezin zitekeen han erabili. Eta nik hori nahi nuen, bestelako musika ere bai! Parrokian, eli-zako koruaz jarraitu eta, handik aparte, korua osatu gura nuen, nahiz eta bateko eta besteko korukoak denak pertsona berak izan, gehienak behintzat. 65 laguneko korua eduki nuen, neska eta mutil. Kontzertuak ematen genituen, antzerkia egiten... Durango, Elorrio, Markina, Berriz... inguruan ibili ginen.

1950ean ireki zenuen zeure tailerra eta, aldi berean, taldeak eta ekintzak antolatzen ari zinen: korua ez ezik, kirol taldea, mendizale taldea...

Bai, bai... 40 urtez-edo egon naiz koruan zuzendari, adibidez. Egunez enpresan beharra egin, afaldu eta afalostean entsegua. Astean hiru entsegu. Eta kirol taldea... Zein urtetakoa da?

1942koa.

Hemezortzi urterekin sortu nuen. Pilota eta mendia, biak egiten genituen...

Korua, 21 urte zenituela antolatu zenuen, soldadutzara baino lehen. Gerra osteko giroa tristea izanagatik ere!

Bai. Lehen esaten hasi naiz baina ez dut amaitu. Lehenengo kultur errenazimendua Primo Rivera aurretik izan zen, eta Primo Rivera agintean egon zen denbora guztian iraun zuen, Errepublikari arte. Mugimendu izugarria izan zen. Nik, Zaldibarren, bigarren errenazimendua —horrela esan nahi baduzu—jarri nuen martxan koru mistoa eratu nuenean. Eta kontzertuak ematen hasi ginen. Antzerki taldea ere sortu nuen. Horiak jarri nituen martxan, egunez lanean eta gauz entseguak eginez. Eta ezkondu eta gero ere, berdin. 1951n ezkondu nintzen eta ezkondu ostekoa da koruarekin egin dudana etaparik garrantzitsuena. Esan behar dut jende baliotsua eduki dudala beti nire inguruan.

Politika jarduna guztiz galarazita zegoen, bistan da.

Bai, jakina. Gure taldeen izenak ere halakoxeak ziren: «San Bizente parrokiako dantza taldea». «Halako parrokiako korua»... Kamuflajea zen dena. Guk, Zaldibarren, korlaren izenean egiten genuen dena. «La coral de Zaldibar organiza la cuarta edición de exposición de etnografía», «Grupo de teatro de la coral»... Dena horrela, kamuflajea beti. Gerediagako presidente egon nintzen denboran ere, zerbait antolatu, programa gobernu zibilera bidali baimena eskatzen eta

kantak itzultzeko esaten zizuten. Itzulpena ere halakoa izaten zen, komenentziaren arabera! Komeni ez zena kendu eta aurrera. Helburua baimena lortzea zen.

**Garai honetan, Jose Antonio Agirre ezagutu zenuen...**

1955ean egon nintzen Agirre lehendakariarekin Parisen, Eusko Jaurlaritzak han zuen egoitzan. Bere bulegoan agurtu nuen.

**Zertan zinen zu Parisen?**

Urte batzuetan joan nintzen hara. Urrian, Automobilaren aretoa izaten zen. Urrian. Francoren Arraza egunean egon nintzen lehendakariarekin. Orduantxe urtean Citroenek *Marrazoa* modeloa atera zuen. Azoka ireki zen egunean Luis Mariano ere han zegoen. Hantxe ezagutu nuen. Gero, haren opereta bat ikusten ere joan nintzen. Esan nahi dut hainbat bider joan nintzela hara. Enpresa sortu eta nekazaritzarako gauzak egiten hasi nintzenean nekazaritza azokara ere joaten nintzen Parisera; urtero. Italiara ere bai, Bolognara. Nobedade gehienak azoka horietan agertzen dira eta joan egiten nintzen. Eta, ahal bazen, kontzerturen batera joaten nintzen, operaren bat ikusi, politikariren bat bisitatu... Horretan saiatzen nintzen.

**Zer gomuta duzu Jose Antonio Agirrerri egin zenion bisitaz?**

Oso ondo hartu ninduen. Galdera infantila egin niola ere gogoratzen naiz. «Noiz etorri behar duzu Euskal Herrira?», nik. Eta haren erantzuna: «Zuek gura duzuenean». Esan gura zuen euren aldetik ezin zitekeela ezer egin, hemen egin behar zela eurak hona etortzeko bidea! Horrela ezagutu nuen. Eta haren hiletara joan ginen, jakina. Gorpua ikustera joan ginen. Monzonen jauregitxo batean eduki zuten. Iskanbila ere izan zen hara joan ginenean. Itxura, Bilboko polizia sekretu bat infiltratu zen han, zer zegoen edo zeintzuk bildu ziren ikusteko. Nik handik aurrera nobedadeak izan nituen... Lehen bizi nintzen etxe baten alboan, guardia zibi-

letako sarjentu bat bizi zen. Hark zer edo zer aditzera eman zidan, erdi berbetan, baina ulertzeko moduan. Iparraldean ibiltzen nintzenez-eta, alegia, bazekitela non ibiltzen nintzen. «Kontuz ibili!» edo horrelako gomendioa egin zidan.

**Bazekiten zertan ari zinen: korua, dantza taldea eta gainerakoak... Zu Zaldibarren ari zinen, beste hainbat lagun beste zenbait herritan...**

Bai, baina ez dakit zenbateraino. Ni neure munduan sartuta nengoen, hementxe, Zaldibarren. Baina, horretarako, herriak ere eduki behar du... zer bat. Pertsona batek bakarrik ez du hori egiten. Pertsona motorra izan liteke, baina herriaren sentimendua ere... behar da. Ez nuke konparaziorik egin gura, baina Berriz, gure alboko herria, oso diferentea izan zen. Hemen beste maila bat egon da, sentsibilitate handiagoa, eta nik hori aprobetxatu nuen, gartzetan saiatuta.

**Bakarrik ari zinen edo bazenuen laguntzailerik?**

Laguntzailerik... Laguntzaileak denak izaten dira modu batera edo bestera. Nik taldetxo langile eta leiala nuen alboan. Koruaren zuzendari egon nintzen denboran beti edukitzen nuen bigarren bat, nik ezin banuen bestek jarraitzeko.

**Benetako kultur elkartearen Korala. Askotariko ekitaldien artean, hitzaldiak antolatzen ere jardun zenuen...**

Lehenengo hitzaldia 1954an antolatu genuen. Energia nuklearrari buruz berba egin zuen kimika ingeniari batek. Handik bi urtera, beste hitzaldi bat, Santi Onaindiak egin zuena, Kirikiñoren lanen gainean. 60ko hamarkadan hitzaldiak ugaritu egin ziren. 1969an ez zen hitzaldi bat izan, ziklo bat baino. Orduan, Zaldibarren izan genituen Rikardo Arregi, Juan San Martin, Gabriel Aresti, Joan Mari Torreal-dai, Abel Muniategi eta Patxi Uriarte. Handik aurrera, ia urtero izan genuen norbait, hitzaldiak ematen. 1975ean hasi-

“

Pertsona batek bakarrik ez du mugimendua egiten. Herriak ere behar du... zer bat

”

ta, berriz, etnografia erakusketak egin genituen eta Joxe Miel Barandiaran, Juan San Martin, Ander Manterola eta beste batzuk izan genituen Zaldibarren... Hitzaldiak oso gauza inportantea izan ziren korarentzat. Eta etnografia erakusketak ere bai.

### **Etnografiari buruzkoak dira zure lanetako asko...**

Bai... Hemen inguruan egiten ez zen gauza zen etnografia erakusketak. 1975ean lehenengoa egin genuen, eta gero hurrengoak. Eta gero eta hobeak! Laugarrena izan zen ederrena. 1981ean egin genuen. 700 elementu baino gehiago erakutsi genituen, etxeko altzariak, era askotako apaingarriak, artisau lanak, zeramika, kobre, brontze eta burdinazko ontziak, liburuak, agiriak, jantziak, armak... gauza mordoa. Herriko eskolan egin genuen, eraikineko bi solairuetan, zortzi geletan. Kanpoko aldean, berriz, ortu eta soroan beharra egiteko tresnak ipini genituen: goldeak, areak eta horrelakoak...

### **Gogoan duzu erakusketa, inondik ere.**

Bai, oso ederra izan zen eta. Erakusketa irekitzerakoan, Ander Manterolak egin zuen hitzaldia. Amaieran, berriz, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko buruak, Juan Ramon Urkixok.

## **Gerediaga elkarte**

Gorago esana dugunez, Gerediaga elkartearen lehendakari izan zen Balendin, kultur elkarte sortu eta lehenengo urtea bete orduko. Gerediagan beste dimentsio bat hartu zuen Lasuenen kultur egarriak. Urte asko lehenagotik Zaldibarren Korral Elkartearen bidez egiten ari zen lan eskergak tamaina eta oihartzun handiagoak izango zituen Durangaldeko elkarte sortu berri haren bitartez. Gerediaga sortu zela jakin bezain laster elkarte hartan bere izena eman guran zen Balendin Lasuen. Baita eman ere. Handik urtebetera Gerediaga zuzentzea egokitu zitzaion...

Gerediaga elkarte sortu zenean ez zinen bakarrik ari izan. Nola izan zenuen elkartearen berri?

Ez dakit zer egunkari izango zen. *La Gaceta del Norte*, uste dut. Irakurri nuen Durangon elkarte berri bat sortu zela, euskal kultura, liburuak, pintoreak... laguntzeko, euskal kulturaren alde lan egiteko. «Hauxe duk nirea!», pentsatu nuen. Eskutitza idatzi nion elkarteari, esanez zer poz hartu nuen albiste harekin, beti sentitu izan nuela horrelako zerbaiten gogoia, eta bazkide izateko eskatzen nuen. Leopoldo Zugaza izan zen hura sortzeko motorra. Gero, harekin egon nintzen, eta esan zidan: «Esa carta la voy a conservar en mi casa» (Eskutitz hori etxean gordeko dut). Badakizu, euskaltzalea da baina euskaraz ez zekien. Handik denbora gutxira, lehenengo batzar nagusia egin zen. Elkartek esaten zuen Durangaldeko antzinako merindadeko herriek parte hartuko zutela bertan, eta gura zuten, sinbolikoki, herri bakoi-tzak pertsona bat izendatuta eduki zezala zuzendaritzan. Orduan han ziren Arrate Salazar, Jose Luis Lizundia eta bata eta bestea. Ni Zaldibarko ordezkari legez izendatu ninduten zuzendaritzan. Presidente, Durangoko neska bat zen, Kontxita Astola. Hasi eta urte eta erdi ingurura, ez dakit elkartean zer pasatu zen, ez elkartean bertan, zuzendaritzako kideen artean baino. Euren artean zer edo zer gertatu zen eta Kontxita Astolak utzi egin zuen. Ni lehendakariorde nintzen orduan eta, automatikoki, lehendakari izatera pasatu nintzen. Zuzendaritza berrizatzeko hauteskundeak egin genituen eta berriro aukeratu ninduten. Sei-zazpi urte inguru egingo nituela uste dut. Sasoi hartan, enpresan ere mar-txa handian sartuta nengoen, ardura handia ere baneukan. Gerediagan, berriz, zuzendaritza zegoen batetik, eta batzar txikia, bestetik; batzorde iraunkorra, esaten dena, edozein momentutan, edozein tokitan bildu eta behar diren erabakiak hartzeko. Nik Berrizen daukat enpresa, eta nire enpre-sara etortzen ziren batzar txiki horiek egitera. Etxera ere bai, sarritan. Neure emazteak ere esan izan du inoiz: «Zenbat



“

Emazteak esaten du: «Zenbat kafe eman ote ditut nik Gerediagarendako!»

kafe eman ote ditut nik Gerediagarendako!». Neure bulegoan egiten genituen batzar txiki haiek, arratsaldeko bostetan, zazpitan, edo eurrei ondo zetorkienez. Gero, askotan, lanean jarraitzen nuen enpresan. Horrela egiten genuen lan.

**Gerediaga elkartearen Durangoko liburu eta disko azokaren sinonimo da parte handi batean. Baina Gerediaga hori baino gehiago da, ala?**

”

Bai, bai... Egia da liburu azoka Gerediaga sortu eta urtean bertan egin zela, baina elkar-teak egin zuen lehenengo-lehenengo egintza, margolan erakusketa bat izan zen. Garain egin zen, Valentin eta Ramon Zubiaurreren etxean. Euren obren erakusketa antolatu genuen, Santiago egunarekin. Zubiaurretar haiek Garaikoak ziren. Tira, Ramon Madrilen jaio zen, baina Valentin Garain. Haren aita, Valentin Maria, musikaria zen, eta Espainiako erregearen kapera zuzendaria. Kargu handia, gero! Beraz, erakusketa hura egin genuen lehenengo, eta liburu azoka gero, domu santu egunez. Margolarien alde saiatu ginen Gerediagan hasierako denboran. Baziren margolari eta eskulturagileak lanean, Gaur izeneko taldean, eta beste batzuetan, lurraldez lurralde. Guk, Gerediagan, haiek denek elkar ezagutu eta harremanak edukitzen saiatu ginen. Akordatzeko naiz batzarra egin genuela Garaiko garbaran —leku ikusgarria da, handia, zabala...—, eta hantxe bildu ziren asko.

**Ardi txakurren lehiaketa ere egiten zenuten...**

Eta oraindik ere egiten da! Eta ezpata dantzari eguna. Urtero-urtero egiten da, herriz herri. Hau da, merindadea osatzen duten hamaika herrietan dabil eguna, txandaka. Antzerki topaketa ere antolatu genuen. Argitalpenak ere baditu Gerediagak, Durangaldeari buruz... Liburu azoka baino gehiago da Gerediaga elkartearen. Mugimendu izugarria izan da...

«Izan da», ala «da»?

Da. Azoka esaten da, baina uste dut lehenengo azokan ha- maika stand eduki genituela, eta ez eurak etorri zirelako, bi- la joan ginelako baizik. Borondate ona zeukaten, bai, baina pentsatu ere egiten zuten: «Hauek ze saltsatan sartu behar gaituzte orain!». Orain alderantziz da.

Egia al da Durangoko azokaren ideia Andoni Esparzak eman zio- la Leopoldo Zugazari, hau liburu batzuk argitaratzeko-edo la- guntza eske joan zitzaionean Andoniri Elorriora?

Baliteke. Andoni Esparza beste motor bat izan zen. Gero Iruñera joan zen eta ez dut aspaldi ikusi. Haren anaiarekin bai, izaten naiz...

Nola ikusten duzu, gaurtik, orduko gogo hura?

Nik esango nuke orain akomodatu egin garela. Denetik dago. Lehengo intentsitatearekin lan egiten duen jendea ere badago oraindik, baina askok nahiago du erraz bizi. Kultu- ran, motelaldia dago. Gazteek ez ezik, nagusitxoago dire- nek ere euren ardurak dauzkate, seme-alabak eta beste. Baina guk ere bageneuzkan horrelakoak. Hala ere, horren gaintik ere, beste kezka bat geneukan, orain ez dagoena. Orain jendea errazago bizi da. Dirurik ez zaio inori sobra- tuko, seguruenara; alde horretatik jendea nahiko estu dabil: lana egin, seme-alaben gero eta gastu handiagoak... Bestal- de, uste dut jende asko erosokerian bizi dela. Abertzaleak izango dira, bai, baina ez daude guk egin genuen esfortzua- ren tamainakorik egiteko prest. Egia esan, nik ez dut esfor- tzu kontsideratzen egindakoa. Pozik egin dut egin dudana, eta berriro uste dut egingo nukeela. Bizimoduak molde be- rriak hartu ditu. Jende asko, lanetik irten eta gimnasia, edo igerilekura joaten da... Guk ez geneuzkan bideak bila- tu ditu jendeak. Guk beste ardura batzuk geneuzkan: gure herriko arazoak, politika, euskara, kultura, artea, liburute- gia, erakusketak...

**Ardura horietarik batzuk administrazio, erakunde, eskola, euskaltegi eta bestelakoen bitartez bideratuta daude...**

Eta uste dugu egitekoak horien esku utzita nahikoa dela. «Kobratu egiten dute, asko gainera!», pentsatzen dugu, eta egin dezatela lan eurek.

**Zer gertatu da euskararen erabilerarekin, Balendin?**

Jaurlaritzak baditu euskara eta kultura laguntzeko departamenduak, jendea, dirua... baina ez dakit zer emaitza izango dugun. Inoiz, eskolara joan izan naiz, herriko jaiak zelan ziren aditzera emateko. Umeak zirikatzeke ere aprobetxatzen nuen: «Ikusten dut zuek euskaraz ederto dakizuela, baina kalean ikusten zaituztet eta erdaraz sumatzen zaituztet. Hori zergatik egiten duzue? Zer dela-eta?». Askok gurasoak erdaldunak daukate, euskaraz ez dakitenak. Badakit haiek etxean ez dutela euskaraz egingo. Ez dakienarekin ezin euskaraz berba egin, baina kalean, dakitenen artean, euskaraz ez egitea? Kostatuko da horri buelta ematea. Itxura, ezin dute asmatu zelan konpon litekeen hori.

**Hori bera gertatzen da Durangoko azokarekin? Jende lamada bai, baina erdara asko, eta egunpasa eta molde berriko erromeria eguna. Zuk esana da, azokaren gainean: «Ni ez naiz inor ezer esateko, [Gerediagako] bazkide soila naiz, baina argi dago azoka topaleku bilakatu dela, urtean ikusten ez ditugunak han ikusten ditugu, eta batzuetan, familia osoak umeentzako orga eta guzti ikusten ditudanean, zalantzak izaten ditut. Argi dago jende asko joaten dela doan delako, baina ez daukate interes handirik. Hala izan behar da? Ez dakit».**

«Jende asko egon da», esaten dute gero. Urte batzuetan, onar liteke. Baina uste dut gauzak hobetzeko probak egin behar badira, egin behar direla. Sarrera kobratzea izan liteke bat, nire iritziz. Senar-emazteak, orga esku batean; bestean, beste ume bat, korridorearen zati handi bat hartzen dutela. Joaten dira mostradorera, denak hantxe, begira, liburu apartatu guran —eta ondo dago—, baina... Ez dut batzarre-

tan ezer esateko aukerarik eduki, baina Gerediagak pentsatu beharko lukeela uste dut.

**Uste dut zuk esana dela, lasaitasun eta patxada handiagoak nahiko zenituzkeela Durangoko azokan.**

Bai. Dudarik gabe.

## Liburuzale

Zaldibarko etxean eta Berrizen ditu liburuak. Zazpi bat mila. Etxeko langelan bistan dira bi mila liburu. Haiek inguraturik bizi da, gustura, eta gustuko lanean, herriaren historiari dagozkion askotariko alderdiak lantzen eta sakontzen.

Liburuz hornituriko bulegoaren alderdi batean, Sabino Aranaren argazkia, orain artean izan diren lehendakari guztienak, eta etxekoenak. Berrizko fabrika ditu etxean ez dituen mila-kita liburuak: bost bat mila liburu. Bestalde, museoa ere badu han, baserritarrek erabili ohi zituzten lanabesak, pilotarien erremintak, historia duen ikurrina eta beste...

### Liburuzalea zaitugu...

Bai, gazte-gaztetatik.

### Gurasoen dendan egunkariak irakurtzen zenituen garaitik?

Baliteke. Lehenengo, egunkariak irakurri nituen eta, gero, hemezortzi-hemeretzi urterekin, klasikoak. Hemen ditut orduan irakurri nituenak: Milton-en *El paraíso perdido*, Shakespeareren *Tragedias*, Platonen *Diálogos*, *Fausto* Goethere-na, Homeroren *Ilíada*... eta musikaren gaineko asko. Hemezortzi bat urte nituela hasi eta soldadutzara bitartean irakurri nituen. Soldadutza ere ondo aprobetxatu nuen nik. Apur bat ingelesa ikasi, bi ekintzako antzerki bat euskaraz idatzi...

### Antzerki lana idatzi zenuen euskaraz?

Bai. Gipuzkeraz idazteko ohitura hartu nuen Bitor Gari-taonandiaren lanak irakurriz. Haren jarraitzaile legez jardun nuen.

**Ez nuen zure antzerki lanaren berririk batere...**

*Garbiñe* zuen izena. Bi ekintzako obra, gipuzkeraz idatzia... Ez nuen argitaratu, baina prest neukan antzezteko. Pertsonaiak ere izendatuta neuzkan, zeinek zein jokatu, baina ez nuen gauzatu.

**Zergatik ez?**

Lanpetuta ibiliko nintzen garai hartan! Badakizu, pentsatutako dena ezin izaten da egin!

**William A. Douglass antropologoak behin esana datorkit gogorra: «Erakutsidazu liburutegia eta esango dizut nor zaren». Zer den zure etxeko liburutegian jakin gura nuke... Ikusten ditut liburukote batzuk, bai, Auñamendi, Harluxet eta Lur entziklopediak, Orotariko Euskal Hiztegia, Hermes bilduma...**

Nire liburutegiak, gehiena, euskal gaiko liburua dauka. Hori, batetik. Bestetik, klasikoak: euskal klasikoak, klasiko unibertsalak, musikagileak, operagileak, sinfoniagileak... Artea, etnografia... Denetarik. Niri dena gustatzen zait. Gauza asko gustatzen zaizkit niri... Hor gozatzen dut. Ez naiz ibiltzen «halako egunetan, klasikoak. Bestelako haue-tan, musikariak». Ez, datorren eran hartzen dut liburu bat, edo beste bat, eta irakurtzen dut.

**Zure idazlanetan historia gaiak landu dituzu, batik bat.**

Ume-umetatik neukan zaletasuna. Historia eta geografia. Horixe izan zen nire ikasgairik gogokoena. Ume-umetatik izan ere. Ez dakit nondik etor litekeen zaletasuna. Baliteke gure aitari zor izatea. Gure aitak sei urte egin zituen Ameriketara, AEBetara. Hura handik etorri zenean ni artean jaio gabea nintzen. Mutiko nintzela, berriz, hango kontuak galde-tzen genizkion, zer egiten zuen eta bat eta beste. Berak, zer estatutan egon zen esaten zigun, zelan batean egon zen lehenengo eta gero beste batera pasatu zen, eta azkenean Idahon egon zena. Horrela, kontatzen. Esaten zuen, beraren anaia bat soldadutzara joateagatik joan zela bera Ameriketara. Itxura,

orduan «kuotako soldaduak» zeuden, eta modu hartan soldadu joan behar zuen anaiari ordaintzen joan zen gure aita Ameriketara. Sei urte han egin eta heldu zenean guardia zibilak zain zeuzkan etxean, soldadutzara eroateko. Uste dut hogeita hiru urterekin etorri zela, eta etorri eta bertan egunean Salamancara soldadu eroan zuten. Hiru urte egin zituen. Aurretik armagin ikasita zegoenez, soldadutzatik etorri eta armagin jarraitu zuen. Gero, amarekin ezkondu, denda erosi eta gainerrakoak. Ez dakit aitzak kontatzen zituenetik etorri zitzaidan zaletasuna, baina kontua da historia eta geografia izan direla mutikotatik nire ikasgai gogokoenak. Eta begira, hor nabil, aztertzen, idazten eta publikatzen. [*«Herriko Kondaira Koadernoak» bildumako ale bat du mahaiian, bere aurrean. Bildumako 26. zenbakia da, azalean ageri duenez. Lehen froga itxura du, azken bertsioa argitaratu aurrekoa.*] Oraintxe egiten ari naizen ikerketan, esaterako, dorretxea eta inguruko etxeak aztertzen ari naiz. Bertan, bi leinuren historia dakart. Batetik, Garitaonandia leinua. 1520raino heldu naiz. Zortzi belaunaldi osatu ditut. Zortzigarren belaunean leinua agortu egiten da. Gizonezkorik ez leinuari segida emateko, eta kito. Emakumezkoa zen maiorazkoa, Garitaonandia abizena zuena, Zabala batekin ezkondu zena. Bigarren adar horretatik, bost belaunaldi gehiago ere azertu ditut: guztira hamahiru belaunaldi, familia horretakoak. Abadeak, mojak, alkateak, juezak... denetarik agertzen da hor.

Hala liburu txikiak nola handiak, bilduma osoak eta ale solteak dituzu zure langela eta liburutegian. Ondoan behar dituzu liburuarik, inondik ere.

Bai, bai... Liburuak, eta loreak.

Loreak?

Lorzalea naiz.

“

Historia eta geografia izan dira mutikotatik nire ikasgai gogokoenak

”

**Ohitura zaharrak, dantzak, antzinako jantziak... Etnografia lan handia egin duzu. Mundu baten galera erakusten dute zure idazlanek...**

Pasatu den mundu bat, ezta? Aldakuntza itzela gertatu da urte gutxian... Laurogeita lau urte egin berri nago eta gogoan dauzkat urte horiek denak. Gehienak, behintzat. Eta aldatu ere zelan aldatu den mundua! Ama laurogeita hamabost urte eginda hil zen. Aita, berrogeita laurekin. Amak kontatzen zituenak entzun eta konturatu nintzen zelako aldakuntzak ikusi zituen. Orain, berriz, neu pentsatzen hasten naiz eta horixe esaten dut, alegia, neuk ere zenbat aldakuntza ikusi ditudan! Amaren aitak, aitaita Domingok, esaten ei zuen, urpekoa asmatu zutela-eta, gustatuko litzaiokeela ikustea. Intereza zuen, nonbait. Bada, esaten ei zuen: «Bai, hori gauza handia dok, baina airekorik ez juek asmatuko!».

**Kar, kar, kar...**

Amak kontatuta, hori. Eta guk ere, zelako aldakuntzak ikusi ditugun! Bai ohituretan ere, jakina! Gure ume denboran, gazte denboran, etxeetan ez zegoen irratirik ez bestelakorik eta, orduan, berba asko egiten zen. Afalostean, egunero, kontua kontatu, bromak egin eta horrelakoak: gurasoekin berba! Gurasoen sentimenduak eta ibiltzen zituzten ardurak ikusten genituen. Gaur egunean, alde batetik presaka bizi da jendea; beste alde batetik, hor da telebista... Ikasi eta ikusi, bai, baina etxeoekin harremana, ez. Eta horrela, gizartea aldatuko da. Badoa aldatuz. Badakigu izugarritzko aldakuntzak izango direla, baina zein arlotan eta zein mailatan... Hori ezin liteke asmatu. Herenegun, gure ilobari esan nion. «Zer, jakin dituzu kurtsoko notak?». Berak, gehienak baietz baina bi edo hiru jakitea geratzen zaiola oraindik. IVEF ikasten ari da eta, nik: «Eta horiek jakitera noiz zoaz Gasteizera?». «Aitaita, horiek Internetetik jakiten ditut!». «A, banekien, banekien!».

**Nola ikusten duzu zure umetako Euskal Herria eta oraingoa, tradizioari dagokionez?**

Gaur gehiago daki gazteak tradizioari buruz. Hein batean, ikasketak egiteko aukerak eduki ditu, eta bitartekoak ere bai. Baina sentimenduari dagokionez, ez dakit. Guk euskara, euskal zaletasuna, aberria... sentitzen genuen moduan... Gazteak gauza asko dauzka, egiteko. Nik uste dut konpromisorik ez hartzeko joera duela gaur eguneko gazteak. Asmorik ere ez. Ez dute loturarik nahi.

«Sagarrak daude ustelak / mikaztu dira upelak / lehengo aldera orain gara gu / abertzale txit epelak». Horra Joseba Sarrionandiaren kopia. Horrela ote da, Balendin. Lehengo aldean, abertzale epelak oraingoak?

Bai, dudarik barik. Abertzale epelak. Bai, bai, bai... Sutsua-goak ginela esango nuke. Benetan maite genituen gure ohi-turak eta gure gauzak. Oraingoak baino zintzoagoak izan ginen politikan, kulturari eta bestelakoetan. Gaur egun, gazteak... Kontatuko dizut. Lehengo batean, arratsaldean, andrea eta biok pasieran, eta neskato bi. Pozik zetozen eta «Zer, gaur ez daukazue eskolarik, ala?». «Ez, orain oporretan gaude». «Notak zelan?». «Ondo, ondo». Horrelako kontuak. Eta gero: «Pentsatu dut erdaraz berbetan ibili zarete-la». Eta, «Bai...», irribarre txiki bat eginez, haiek. «Baina zuek badakizue euskaraz». «Bai, jakingo ez dugu, ba!». «Egizue gehitxoago. Ez dakizue ze polita den. Eta, gainera, entzun dut egin dituzuen hitz gutxiak eta oso polito egiten du-zue». Poza hartu zuten, baina gero, alde egin zutenean, ez jakin, ezta? Guk euskaltasuna barrutik sentitzen genuen. Lehen, nire ume denboran, erdaraz ez genekien... Nik apur bat bai, etxera Bilbotik-eta etortzen ziren saltzaileak erdal-dunak zirelako. Bergaratik-eta etortzen zirenak, berriz, euskaldunak ziren. Beti eduki nuen aukera hori, berbetan eta harremanetan aberasteko... Saltzaileetako bat Karlos zen. Urtean bi edo hiru bider etortzen zen, kutxa handiak zekar-tzan, gauzak erakusten. Aurretik postal bat bidaltzen zuten: «Karlos joango da, halako egunetan, goizeko zortzi eta er-dietako trenean. Har ezazu, faborez». Goiz guztian han iza-



ten genuen, bata erakutsi, bestea erakutsi, eskariak egin... Gurasoak ere saiatzen zitzaizkigun: «Bihar Karlos dator. Ea zelan agurtzen duzuen!... Ea, esan zuk, Balen: ‘¡Hola, Carlos! ¿Cómo está usted?’ ‘Muy bien, gracias. ¿Y tú?’». Akabo! Hor amaitzen zen gure erdara. Besterik ez. Berba gehiago esaten bazuen...

### Noiz sartu da gaztelaniaren sitsa Zaldibar bihotzean?

Eskolan ez zen euskararik egiten. Eskola erdaraz ikasten zen. Erdaraz ziren liburuak eta denak. Adibidez, geografia eta historia zalea ni —esan dizut—, eta : «A ver, Valentín, la lección 33: América del Sur» (Ea, Balendin, 33. ikasgaia: Hego Amerika). Eta han esaten nuen nik, erretolika! «Muy bien» (Oso ondo). Bai, esaten nuen, baina zer esaten nuen jakin barik. Ikasgaia buruz ikasita! Hego Amerikan zenbat nazio ziren, zeintzuk ziren, errekarik handienak eta bat eta beste. Horrela.

**Eskola gaztelaniaz jaso arren, euskaraz segitu zenuten lagunartean, jolasean, etxean... Noiz jabetu zen gaztelania euskararen eremuez Zaldibarren? Noizdanik izan duzu neskatoei «Egizue euskaraz» esan —ia erregutu— beharra?**

Gerra ostean. Gerra ostean euskara galarazita egon zen, badakizu. Gainera, atentzioa deitzen zizuten. «¡A ver si hablas en castellano!» (Ea gaztelaniaz hitz egiten duzun!). Batzuetan, «en cristiano». Laster, 50eko hamarkadan, kanpoko jendea hasi zen sartzen. Hemen tailerrak zeuden eta lanera etorri ziren. Denbora hartan etorritako batzuek euskaraz ikasi zuten. Orduko lagun bat daukat gaur egun Bartzelonan bizi dena. Santandretetik etorritakoen umea zen: Migel Corral San Emeterio. Alfan egiten zuen behar, Eibarren. Alfan bertan egin zuen prestakuntza eta Bartzelonara joan zen bizi izatera, makinak konpontzen, saltzen, erabiltzen erakusten...

“  
Denbora hartan,  
kanpotik etorritako  
umeez euskara egi-  
ten ikasi zuten

”

Han bizi da, eta lehen berba egiten zuen modu-moduan, berdin, egiten du orain euskara. Oso ondo, trabatu eta geldiunerik-eta barik... Horrekin esan gura dut denbora hartan, kanpotik etorritako umeek, gehienek ikasi zutela euskara egiten. Baina, gero, 60ko hamarkadan, enpresak gehitu ziren, kanpo jendea ere gehiago etorri zen eta, jakina, euskara kalean entzun ere ez.

... Arantzazuko batzarrean izan zinen 1968an...

Bai. Gerediagako lehendakari nintzen ni orduan. Gordeta daukat orduko «familia argazkia».

Hantxe ikusi zaitut zu...

Lizundia eta biok joan ginen. Ni presidente eta Lizundia idazkari. Harremanak genituen Rikardo Arregirekin eta beste askorekin... Kongresu horren aurretik, Juan San Martin, eta Imanol... Zelan zen hura... Eibarkoa...

Laspiur.

Imanol Laspiur! Arantzazukoa baino lehen, batzar bat egin genuen Ermuan, Gerediagak antolatuta —*Jakin*-en dago jasota (1968, 31-32 zenbakia)—, euskara batuari buruz. Badiotsut, kongresu aurretik egin genuen, euskara batuaren premia aztertzeko. Lehenengoetan, pena ematen zidan batuak, baina laster konturatu nintzen haren premia geneukala. Iparraldera sarri joaten nintzen, eta ezin ulertu! Zuberoan, batez ere, tutik ere ez! Behin, joan nintzen pastoralala ikustera, hartu nuen liburuxka eta hari esker ondo jarraitu nuen. Orduan konturatu nintzen euskara batuak, urte gutxian, zelako bentajak zituen. Lehenago, Euskal Herriko beste jende batzuekin ezin genuen elkar ulertu. Gaur egunean, bai. Tira, gaur egunean ere, bizkor egiten badute, frantses doinua gogor sartzen badute, gehiago kostatzen zaigu, baina ulertu egiten da. «Hau premiazkoa da!», esan nuen Iparraldera hasi nintzenean. Baina euskara batua ikasi arren, euskalkiak jarraitzea ere komeni zela iruditu zitzaidan. Eta hor ere saltsa! Gerediagan eta leku guztietan, saltsa!

«Saltsa» diozunez, argi plazaratu ziren Arantzazuko gomendio eta norabideak. Larresororen izenean argitaratu ziren liburu biak —*Euskara batua zertan den*, batetik, eta *Sustrai bila*, bestetik—, gogoan hartzekoak izan ziren. Barruko eztabaidaren kronikarik ez dut irakurri nik.

Bergarako alkate taldearen historiaren antzera. Tira, orain dela urte bi liburu bat atera zen Bergarako taldeari buruzkoa. Irakurri nuen, eta balekoa. Baina pobrea iruditu zitzaidan. Liburu horrek ez ditu azaltzen han erabili genituen gaiak, azal-azaltetik ez bada, behintzat. Dena dela, hor dago, konstantzia bat. Bada, Arantzazurekin, berdin. Barruko demak, hango aurpegi ilunak, haserreak... Nik ez dakit. Ez naiz filosofoa eta ez dakit horiek azaltzea komeniko litzatekeen, baina urteak joan dira, denok ere helduak gara, eta ondo izango litzateke zer gertatu zen adieraztea.

**Ezagutu zenuen Josu Arenaza?**

Bai. Ez daukat haren berririk. Denbora batean sarri egoten ginen elkarrekin. Nire anaia gazteagoa isilpeko lanak egiten zebilen eta hura gehiago egoten zen Josurekin...

**Juan San Martinek zioen Josu-eta euskara batuaren kontrako paperak botatzen ibili zirela...**

Oraintxe esanean... Ahaztuta eduki dut. Bai, bai... Nik pena hartu nuen Augustin Zubikarai eta beste batzuek —eta oraingo *Zer* aldizkarian ari direnek, Euskerazaleak elkarte-koek— bide hori hartu zutenean... Dena dela, denbora ere pasatu da ordutik hona eta uste dut hango haserreak-eta baretu direla. Tira, beti egongo da baten bat minduta oraindik; beti izaten da baten bat. [*Eskuera duen mahaiko egutegi ta-koari heldu dio*]. Begira hau, egutegia. Augustin Zubikaraik egiten zuen, BBKren laguntzaz. Bizkaiko diputazioak egiten du orain. Bi urtean-edo subentziorik ez zuten izan, euskararen araudiaren barruan ari ez zirelako, eta diru nahikorik ez zegoelako. Orain berriz argitaratzen da... Niri ere gonbita egin zidaten, orduko denboran, haiekin batera joateko. Nik,

ezetz: «Zuek gura duzuen moduan lan egiteko libre zarete baina ni beste era batera lanean hasita nago eta ez dut gura hor sartu. Zuengatik sentitzen dut baina ez». Augustin Zubikarai eta beste batzuk ziren han orduan.

**Augustin Zubikarai-eta. Euskararen alde lan handia egindako jendea..**

Lan handia, bai. Gizon garrantzitsua izan zen Augustin Zubikarai. Hark Ondarroa aldean-eta, etnografia aldetik, barrirei buruz-eta... zenbat liburu egin ote zituen! Eusko Jaur-laritzaren Bizkaiko kultur ordezkaria izan nintzenean han etortzen zitzaidan, liburuentzako diru-laguntza deialdia izaten zenean, eta beti ekartzen zizkidan bere liburuak. Lehenengo legealdian elkarrekin egon ginen Bizkaiko batzar nagusietan. Gaixorik egon zenean ere hainbat bisita egin nizkion... Eta maite ditut haren etxeokak, seme-alabak-eta. Jende ona. Zelako aita, halako seme-alabak!

**Zer leku izan behar du euskarak gure herrian?**

Orain arte, euskara eta gaztelania zen hemen. Denbora batean, frantsesa ere esaten genuen. Orain, ingelesa ere esaten dugu. Nik uste dut hurrengo belaunaldiak horiek laurak berdin-berdin egingo dituela; jende gazteak, eskolatuak, behintzat. Uste dut herri txikietan euskarak presentzia handiagoa izango duela. Bilbon gehiago kostatuko da. Hori izango litzateke ona, Bilbon euskara gehitzea. Bilbon orain baino gehiago egingo balitz, ez genituzke oraingo ardurak edukiko. Euskara geroan zer izango den ez ginateke ibiliko.

“

Bilbon euskara gehiago egingo balitz, ez genituzke oraingo ardurak edukiko

”

**Immigrazioarekin batera, hainbat hizkuntza ere heldu dira gure parajera. Atzerriko hizkuntza sarriago entzuten da zenbait lekutan, euskara bera baino..**

Parisen ere bai, Parisen ere hizkuntza gehiago entzuten dira, frantsesa bera baino. Herri handietan normala da hori.

Horri dragarik ipintzea alferrik izango da. Immigrazioak, gehiago ala gutxiago, kontrolatua edo ez kontrolatua, baina jarraituko du, dudarik gabe. Egia da hizkuntza txikiak, gu-reak legez, arrisku handiago izango duela beti, gutxitzeko edo galtzeko. Baina hori gure eskuetan dago. Erabiltzen badugu, ez da galduko. Eskoletan ikasiko dute, egin edo ez egin dago gorabehera. Hor formularen bat bilatu ahal bada... Nire iritzi- z, hor talde bat beharko litzateke —ez dakit zenbat lagune-koa—, baina arazo hori, bakarrik, aztertu eta erabakitzeko.

**Erabileraz ari zara, noski.**

Bai. Euskararen erabilera aztertu eta bultzatuko duen tal-  
dea. Sail bat horrexetarako bakarrik. Eta beti gaiaren jarrai-  
pena eginez: zelan doan, zein neurritan gehitzen den... bai-  
na beste lanik hartuko ez duen saila, gero!

## Etnografia

Etnografia lanean da 2000. urtean erretiroa hartu zuenetik. Oraindaino arte, 25 ale ditu argitaratuak «Herriko Kondaira Koadernoak» izeneko bilduman, Zaldibarko historiaren gaine-  
koak denak. Hona nola aurkeztu zuen Labayru Ikastegiko zu-  
zendari Ander Manterolak Balendin Lasueneren lana, 18. koad-  
ernoaren atarikoan: «Irakurleak esku artean dauan argital-  
pen honegaz, Herriko Kondaira Koadernoak bilduma bere 18.  
zenbakira heldu da. Orain arte argitaratutakoetan, 600 bat  
orrialde guztira, Zaldibarreko monumentu, pertsona ospetsu,  
familia, ofizio eta heziketa, kirol edo kultur erakundeen barri  
emoten da zenbakiz zenbaki.

«Balendin Lasuene, bildumaren sortzaile eta bilduma oso-  
tzen daben koaderno guztien egileak, antxinako hainbat ar-  
gazki berreskuratu ditu etxeetako album eta koadroetatik, ar-  
gitalpen bakotxean aztertzen dituan gaiak ilustretako. Zeregin  
honetan meritu handiko beharra egin dau, argazki honek be-  
netako agiri historiko bihurtuz; izan be, zehatz-mehatz identi-  
fikatu ditu argazkiotan ageri diran leku eta pertsonak, kontu

handiz azaldu ditu argazkietako gertakari edo ekintzak, bai eta egun eta lekuaren barri zehatza be emon dau.

«Berba gitxitan esatearren, testu idatzia ilustrazino egokiz hornituta dakarskun koaderno honeetan, egileak argi eta garbi erakutsi eta aituarazoten dausku Durangaldeko lurralde edegian lekututako euskal udalerri honetako bizitza eta kultura [...]».

**Idazle ere bazaitugu... 2000tik hona 25 lan argitaratu dituzu «Herriko Kondaira Koadernoak / Cuadernos de Historia local» bilduman. Lehenengo alearen aurkezpenean hauxe idatzi zenuen: «Zaldibarko Bainuetxeak izeneko ale honegaz emoten jako hasiera Elizate honetako bizilagunei era erraz batean herriko kondairari buruzko gaiak laburki azaltzeko egitasmoari. Hogeita zortzi bat orrialde inguruko Koadernoak izango dira, gai bakarrekoak, elebitara idatziak, euskaraz eta gaztelaniaz»...**

Pozik nago koaderno sistema aukeratu nuelako. Kultur ordezkarietan ari nintzela erabaki nuen. Neure buruari esaten nion: «Hamabi urte daroat behar honetan, jubilatzerenoa... Zer egingo dut jubilatzen naizenean?». Eta besteak beste, banekien, gehiago barik, herriko historia idatziko nuela, jendeak jakin dezan nondik gatozen, nora goazen ikus dezagun. Esaten nuen: «Tomo bat edo bi eginez gero...». Baina beldur nintzen irakurtzeko zaletasun txikia daukagula ikusirik. «Zelan egin?». Eta bat-batean asmatu nuen: «Faszikuluetan egingo dut, sartu argazkiak, marrazkiak... errazago izango da horrela!». Nire gaztetako aldizkari bat akordatu zitzaidan: *La Estampa* zuen izena, txarto ez banago. Antzerkiari buruz, zinemari buruz... apur bat denetik ekartzen zuena. Paper merkean egindakoa zen, berdexka kolorekoa. Hark ere argazkiak zituen, asko... Eta hura gogoan, faszikulua sartu zitzaidan buruan. Baina *faszikulu* izena ez zitzaidan gustatzen jende artean erabiltzeko. Gehiago gustatzen zitzaidan «koaderno» berba, sinpatikoa goa egiten zitzaidan. Eta halaxe asmatu nuen izena: Herriko Kondaira Koadernoak. Eta hasi nintzenetik ez dut ezer ere

aldatu formatua. Lehenengo aleak erakutsi zidan bidetik jardun dut, berdin-berdin. Jendea ere pozik dago, eta hortxe jarraitzen dut. Lantzean behin nire marrazkiren bat sartzen dut, eta aurrera.

**Deigarri zait zu bakarrik jardutea lan honetan. Laurogeita lau urte eta bakarrik, koadernoak idatzi eta idatzi... Neke behar du, ala?**

Ezta pentsatu ere! Pozik ni!

**Artxibo lan handia behar da zu egiten ari zaren lana egiteko...**

Bai, sarri joaten naiz artxibategietara. Gehienbat, Deriokora. Lana zelan den. Etnografia lanetarako, Deriokoak asko laguntzen du. Elizbarrutiaren artxiboetan familia izenak, bataioak, ezkontzak eta heriotzak agertzen dira. Donostiakora ere joaten naiz. Bergarara ere bai, han ere artxibategi ona dago eta. Beste artxibategi mota bat, foru diputazioena... Elizbarrutietakoak Derion eta Donostian dauden legez, udalenak ere hor dira, eta derrigorrezkoak dira.

**Zeu bakarrik joaten zara? Zelan moldatzen zara batera eta bestera joateko?**

Bilbora trenez joaten naiz. Donostiako apaiztegira, autoz...

**Ale bakoitzak babesle bana du. Enpresak dira batzuetan, Zaldibarko udala bestetuetan...**

Udalak laguntzen duenean, 1.300 ale egiten ditugu. Udalari, dagokion alearen gaineko informazioa ematen diot: zein gai, honenbeste orrialde, honenbeste argazki... Egindako ikerketaren laburpena ere kontatzen dut udalari aurkezten diodan zera horretan. Gero, aurrekontua ere eranstean diot. Deitzen didate udaletxetik eta: «Balendin, konforme zure aurrekontuarekin. Gertatu alea gabonetarako». Inprentarekin edizio lana egiten dut, maketazioa eta gainerako denak, eta prest dagoenean, udaltzainek banatzen dute. Ostera, enpresek babesten dituzten aleak neuk banatzen ditut etxez etxe, bi iloben laguntzaz. Batak 24 urte ditu, besteak 19. Enpresen kasuan, 1.000 ale egiten ditugu.

Hiruron artean Herriko Kondaira Koadernoak banatzen duzue...

Bai. Eta lanpetuta dabiltzanean, neuk bakarrik ere bai. Lagunek bakarrik ikusten nautenean koadernoak banatzen, esaten didate: «Deitu, bada, geuk banatuko dizkizugu!». Nik, ezetz: «Trankil, emakumeak, niri ez zait eraztunik jausiko lan hau egiteagatik. Mila esker. Premia denean eskatuko dizuet laguntza. Bestela, egingo dut neuk!». Horrela.

Kulturari jarduna zaitugu. Politikan ere bai. Zer dugu euskaldunok premiazkoago, politika ala kultura?

Biak. Biak dira beharrezkoak. Nire iritziz, kategoria galtzen ari da politika. Bata bestearendako errespetu gutxi, edozer gauza esaten da... Horrek, nire ustez, esan gura du politikari dagokionean oraindik ere amantaletan gaudela. Demokrazia berba asko erabiltzen dugu, baina ekintzetan ez gara demokrata. Hasi berriak gara, eta nahiko lotsabakoak sarritan... Baina zure galderara itzuliz, behar, biak behar ditugu, politika eta kultura. Batez ere kultura, hala ere. Familia bateko kideak izan behar dute politikak eta kulturak, lotura larregi barik, bakoitza bere lekuan, baina bata bestearekin harremanetan. Eta, badiotsut, nire iritziz, nagusia kultura da, politikaren gainetik. Politika ere behar da, jakina. Herriaren gobernua da politika, eta horrek ere bere maila behar du, orain daukana baino goratxoagokoa, aberatsagoa.

“

Demokrazia berba asko erabiltzen dugu, baina ekintzetan ez gara demokrata, hasi berriak gara

”

Politikaz arestian esan duzun hori, kategoria galtzen ari dela, alegia. Ibarretxe lehendakariari berari horixe irakurri berri diot, kexa horixe. Askorik merezi ez duen arloa omen politika...

Ez nekien Ibarretxek horrelakorik esan zuenik... Esaten dute lehengoa beti hobea izan zela. Nik Agirre lehendakaria ezagutu nuen... eta maila handia nabari zitzaion gizon hari. Europaren sortzaileetako bat izan zen. Gazterik joan zitzaizgun hemendik... Nik ordu erdi egin nuen harekin eskuz es-



ku berbetan Parisen 1955ean, berak eskaini eta eman zizkidan liburuak ere irakurri nituen eta, horrela, haren bidea jarraitu nuen. Errepublika garaian Justizia ministro izan zena ere oso maila handikoa izan zen... Lizarrakoa...

### Manuel Irujo.

Bai, harekin ere egon nintzen. Agirrerekin egon eta hurrengo egunean egon nintzen Irujorekin. *Inglaterra y los Vascos* liburua eman zidan, berak sinatuta. Gizon handia hura ere. Gehiago ere ezagutu ditut, jakina. Bestalde, neuk ere baren senide bat Izquierda Republicana-n. Osaba. Solozabal. Gobernadore zibila izan zen Nafarroan eta Araban... Orduko gizonak —geroko Guimón eta—, maila handiko pertsonak ziren. Nahiz eta norberaren alderdikoak izan ez, nahiz eta haiekin bat ez etorri, maila zuten: edukazio eta tratua... Gu, izan ere, arrapalada batean etorri gara demokraziara, gerra zibil baten ostean, berrogei urtean makilakadak hartuta, eta uste dut horrek zerikusi handia daukala oraingo politikarien jokaerarekin. Esate baterako, lehengo batean, ez aspaldi, Espainiako Berrikuntza ministroak, Garmendiak, Euskal Herriari egin dion eskaintza: lehenengo mailako berrikuntza agentzia Euskal Herrian jartzeko prest ei dago, baina baldintza batekin, ez dezagula eska haren transferentzia. Zeinen buruan sartzen da, ordea, «eskaintza» hori? Ministro batek esana! Horrelako mailako politikariak asko dira, gure artean, eta denean. Horregatik esaten dut benetako politikaren hasierako mailan gaudela hemen. Bigarreneira, hirugarreneira heldu orduko, oraindik badaukagu zer ikasi.

Ederra litzateke uste izatea oraingo garaian hasierako maila hori egin dugula, eta ondoren datozenek bigarrena eta hirugarrena egingo dituztela. Mundu bat gero eta hobea egingo dutela, alegia. Hori entzuten dudanero, Piarres Xarritonek behin esan zidana datorkit gogora, hau da, ondoko belaunaldiek ez dutela aurrekoek egindako okerretatik ikasten, are gehiago, haiek beren bekatuak egin nahi izaten dituztela. Ezinezko da urratsik aurrera egitea...

Esango nuke Xarritonek arrazoi duela. Gurpil zoroa da mundua...

## Politikari

Herriko alkate izana, Bizkaiko batzar nagusietako kide, Eusko Jaurlaritzaren kultur ordezkaria Bizkaian... EAJko kide da aspaldidanik, eta min du alderdiak izan zuen haustura historikoa. «Sinistu ezinda geratu ginen alderdiko denok. Hala uste dut nik. Hura gertatu zenean kultur ordezkari lanean ari nintzen, Bilbon, eta Garaikoetxea lehendakariaren argazkia, berak eskaini eta izenpetua nuen horman eskegita... Kendu ezinda egon nintzen haustura gertatu eta lehenengo egunetan. Jaurlaritzan kargudun izandako batek esan behar izan zidan: 'Hori kendu egin behar zenuke!'. Horrela kendu nuen. Min egin zidan hausturak. Zatitzekoa baino, batzekoa izan naiz ni. Zaldibarko batzokian ere zati bi egin ginen. Gutxiago ziren alde egin zutenak bertan geratu zirenak baino. Ni haiei ere joan nintzaian: 'Har dezagun patxada apur batekin. Ahalegindu gaitezen konpontzen, oraindino konpon liteke eta'. Baina ez. 'Nik hartuta daukat erabakia', esan zidan batek. Asko sufritu genuen. Batzuek, behintzat, asko sufritu genuen».

**Zaldibarko alkate izan zinen 1976tik 83ra. Franco hil osteko garaian. Jakin nahiko nuke zerk bultzatu zintuen lan horietan sartzera...**

Hara, bazen une bat... berezia. Nik ez neukan gogorik. Ba-neukan beste zereginik bestela ere. Dena dela, herriaren kalterako egoera iritzi nion orduko hari. Franco hilda zegoen, baina giroa bera zen. Sistemak, legeak eta osterantzekoak, berdintsuak. Udaletxean baziren bi teniente alkate, bata Pedro Garita, pilotari profesionala, eta bestea Estanis Garitaonandia. Hamaika lagun ziren udalbatzan —edo bederatzi, sasoi hartan, ez nago segurur—, eta joera bi zeuden; ez joera politikoak, pertsonalak baino. Aurrekonturik onartu ezinda zebiltzan, bi urtean. Alkatea gobernadore zibilar joan zi-

tzaion, salaketa eginez. Nonbait, bost lagun «disidente» gertatu ziren: traba egiten zuten, ezer ez zuten egiten uzten. Pertsona bat zen, batez ere, buru. Saltseroa, eta pertsona ona ere... Alkateak ahalmena zuen, zinegotziak hiru udalbatzarretara huts eginez gero, hura kargutik kentzeko. Gobernadoreari berri eman baino ez zuen egin behar zinegotzia kargugabetzeko. Bost disidente haiek hiru batzarretara ez omen ziren joan eta gobernadoreak kendu egin zituen. Horiek errekurtsioa sartu zuten, eta hor zebiltzan, itzuliko ote ziren, edo ez. Bitartean, aurrekonturik ez, udalbatzarrik ere ez zegoelako. Horretan, Franco hil eta lasterrera, dekretu bat onartu zen. Dekretuak gomendio bat egiten zuen, hamar urte zeramaten alkateei beren postua uzteko eskatzen zien, beste nor edo nori aukera emateko.

#### Horrela heldu zitzaizun gonbita...

Bai. Pedro Garita eta Jorge Artamendi zinegotziek egin zidaten gonbita. Haiek zera ikusi zuten, itxura, nigan: industri gizona, Koral Elkartearen zuzendaria, munduan ibilitakoa, zenbait elkartetako kide —Gerediagako presidente, besteak beste—, herriko jaiak ere geuk, koralak, antolatzen genituen udaletxeak emandako diruaz... Horrela. Gonbita jaso eta pentsatu nuen: «Herria horrela ez dago ondo, ez aurrekontu eta ez ezer. Egin ditzadan bi edo hiru urte...». Eta baietza eman nien. Alkatetzarako aurkeztu nintzen. Sasoi hartan udalbatzarrak erabakitzen zuen alkatea nor izendatu; zinegotziek beste inork ez zuen parte hartzen botazioan. Bi lagun aurkeztu ginen. Saltseroetako bat —teniente alkate zen Estanis Garitaonandia—, eta biok. Nagusitu egin nintzen, eta alkate izendatu ninduten. Gero, «maniobra» batzuk egin behar izan nituen.

#### «Maniobra» batzuk?

Bai. Gobernadoreak kargugabetu zituen zinegotziek errekurtsioa sartu zuten, esanez ez zituztela hiru batzar huts egin. Berez, deialdi bat bitan egin zutela eta, legearen ara-

bera, bitara ez zirela agertu. Nik arriskua ikusten nuen: «Hauek berriz itzultzen badira, akabo. Saltsa dago atzera ere». Eta Madrileran joan nintzen, Fragarekin hitz egitera. Nik ministroarekin eskatu nuen hitzordua, baina zuzendari orokorrarekin egon nintzen. Zertara nindoan esan nion, kargugabetutako haiek itzultzeko aukerarik ba ote zen jakiteko. Zuzendari hark, ezetz edo: «Aukera txiki bat, bai, baina aukera bat besterik ez». Ni ez nengoen lasai: «Hara, alkatetza hartuko dut, kargugabetutako horiek atzera ez itzultzeko baldintzapean. Bestela, oraintxe emango dizut dimisioa». Hori ere ez zuten nahi. Deitu zion ondoko bulegoan ari zen abokatu bati, beste bati ere egin zion kontsulta... Han zebilen mugimendua! «Baldintza horixe, eta kito. Nahi baduzue, bai, eta bestela, dimititu egingo dut». Beraien ere ez zuten asmatzen zer formula erabili errekursoak aurrera egiteko modurik ez edukitzeko. Neuk eman nien soluzioa: «Nahi izanez gero, erraza duzue: isiltasun administratiboa. Sar ezazue errekursoa kutxatila batean, giltza galtzen utzi, inork ez jakiteko moduan...». Horrelaxe izan nintzen alkate. Zazpi urte egin nituen. Bada, zortzi-hamargarren urtean edo, errekursoak irabazi egin zuen... Ordurako, erabakiak ez zuen batere indarririk, udal hauteskundeak ere eginda zeuden eta. Lehenengo hiru urteak era hartara aukeratuta egin nituen, eta ondoko laurak, ostera, hauteskundeak irabazita. Lehenengo agintaldi hartan, kargugabetutako bost haien ordeztu beste hainbat neure konfiantzazkoak izendatzeko ahalmena neukan, legez. Halaxe egin nuen, neure sokako bost lagun hartu nituen, eta *formidable* egin genuen lana.

Alkatetzarako gonbita egin zizutenean gogoan zenuen Zaldibarko desgobernua. Dena dela, zeintzuk izan ziren zure alkate asmoak? Nolako herria gura zenuen?

Orduko denboretan defizit handiak zeuden. Kaleak, hirigintza arauak, azpiegitura planak... Lehenengo, errazena egin nuen: kale izenak aldatu. «18 de julio» eta horietakoak,

denak kendu. Uste dut «Elizondo» eta «Aldatza» kale izenak izan ezik, beste denak geroko batean asmatutakoak zirela. Horiek kendu eta berriak ipini nituen. Batari, «Euskal Herria», besteari «Autonomia», eta gainerakoei, autobidea egikeran galdu ziren baserrien izenak ipini genizkien: Azkorrara, Bekoetxe... Udaletxean, bestalde, aurrekontua orekatu behar da: sarreren zerrenda, batetik —hau da, bilduko den dirua—, eta gastuak, bestetik: gastu finkoak, langileenak batik bat. Lehenengoari bigarrena kendu eta izango duzu proiektuetan gasta zenezakeen dirua. Denbora hartan hiru milioiko aurrekontua ei zen, eta lehenengo urtean bertan seira igo nuen, zergak eta gainerako prezioak zuzenduta. Horrela hasi ginen.

#### **Kale izenak aldatzea, zure lehenengo egitekoa.**

Eta lehenengo-lehenengo obra, berriz, «saltsero» haiek udalean zeudela gertatu zuten proiektu bat. Errepide nagusiaren azpian, zubipeko pasabidea egitea. Hainbat istripu gertatu izan ziren kaminoa gurutzarera eta proiektua egin da zegoen. Aurkitu nuen, atera nuen gordeta zegoen lekutik, aurrekontua ere zehaztu —milioi bat pezetakoa, orduan—, eta harexekin hasi nintzen. Herri lanetako departamendura joan, han ingeniari batzuekin ezaupidea egin eta: «Hauxe gura nuke egin. Proiektua gertu daukagu, lehen udalak onartuta; lurrak ere jabeek zubipeko hauxe egiteko eskainita...». Ingeniari haiek lagundu zidaten eta, obra amaitukeran bateko Urkixo kondea eta besteko diputatua ekarri nituen eta egin genuen inaugurazioa. Afaria egin, diskurtso eta guzti eta aurrera. Horrela egin genuen lehenengo obra hura. Milioi bateko aurrekontua neuk abalatu nuen. Kreditu bat aterata. Bi urtean amortizatu genuen.

#### **Alkate izan zinen eta, lehenengo egiteko nagusia, obra.**

Lehenengo, ikusi egin behar da zeren premia dagoen. Obrak ez dira beti etxeak egitea. Errekari bidea eman behar zaio, zubiak berriztatu, uriolak direnean izaten diren kalteak

galazteko neurriak hartu... Horiek denak egin genituen. Horiek ere obrak dira...

Askotariko obrak gorabehera, zergatik ez, adibidez, liburu zale-tasunaren aldeko kanpaina, gurasoen eskola edo kultur kutsuko ekimenen bat, zeu giro horretakoa izaki? Zergatik dira beti lehenengo obrak?

Zuk esan dituzun kultur gauza horiek denak egin genituen. Gerediagan nengoela, diputazioaren laguntzarekin, udal liburutegia egin genuen. Ez Zaldibarren bakarrik, baita Otxandion ere, esaterako. Alkate sartu aurretik eginda utzi nuen liburutegia. Eskolak ere egin genituen... Bazegoen premia. Gasteiza joan nintzen, Jaurlaritzara. Inaxio Oliveri zegoen sailburuorde. Harengana joan nintzen, alkate nintzela. Aurretik ezagutzen nuen, ez dakit zertatik baina. Joan nintzen eta esan nion: «Aurreko legegaldian ere egitekoak zineten Zaldibarko eskola, eta oraindino eskaka gaude». Era-kutsi nion dokumentazioa eta plana. «Inaxio, ni ez noa hemendik zure baietza hartu arte. Ez dut hemendik alde egingo!», esan nion. Bada, tranpatxoa egin zuen. Donostian, Amaran eskola egiteko proiektua zeukan, baina asmoa agertu barik oraindino. Haren hurrengoa, Zaldibarkoa. «Inaxio, mesedez!», nik, eta berak: «Gero ez inori esan zer erabili dugun hemen». «Ez, ez, emazteari ere ez diot esango, eta udaletxean ere ez dut esango!». Halaxe. Amarakoa hurrengo urterako utzi zuten eta gurea egin zuten urte hartan. Bi solairuko egoitzan, lau bat gela behean eta beste lau goian egin genituen. Eskola ederra, eta martxa!

Gaur egun zelan ikusten duzu Zaldibarko udalaren jarduna?

Zuk esan duzuna, apur bat. Edo apur bat baino gehiago... Zementu larregi! Berba hori lehenengoz Benidormen [Alacant, Espainia] esan nuen. Joan gara emaztea eta biok eta hango etxe eta hango zementua! Orduantxe esan nuen: «Zementu larregi ikusten dut hemen!». Horrelako berbaren bat esan nuen... Beti kontu eduki nuen hori, eta ez horrela pen-

tsatu dudalako beti, bakarrik horregatik ez, ahal ere izan behar da. Gainera, etxeak-eta ez ditu udalak egiten; hark baimenak eman besterik ez du egiten, eskatzen duenari, eta baldintza jakin batzuen azpian... Neurriak, kaleen zabalerak, altuerak, zenbat metro kubiko bolumenekoak eta horiek. Nik hori beti zaindu nuen.

“

Zementu larregi ikusten dut. Herriak hazi behar du, baina gehiegikeria gabe

”

«Hazi bai, baina tamainan». Herriek hazi behar dute, baina gehiegikeria gabe. Politika horri jarraitu nion. Orain, berriz, alderantziz egiten dute: etxea eta etxea! Eta sentsibilitate txikia kultur gaietan. Eta ez da Zaldibarren kasua bakarrik. Afan hori da, biztanle gehiago eta hau eta hura. Ni alkate egon nintzenean, sekula eduki duen biztanle gehien eduki zituen Zaldibarrek: 3.313. Harrezkero, gutxiago. Gaur egun ez dira 3.000. Eta, hala ere, begira zenbat etxe egin den! Zer arraio, nola da hau! Lehen

ere ez zuen inork kalean lorik egiten, ni alkate nintzela. Zeuden etxeetan moldatzen ziren. Urtean sei bizitzako etxe bat-edo egiten zen. Eta egiten zenean, gauza handia zen! Oraintxe bizi garen etxe hau amaitzen zegoela sartu nintzen ni alkate. Gogoratzen naiz, hiru edo lau ezkonberri: «Etxea ordainduta daukagu, eta zuek ez duzue bizigarritasun baimena ematen!». Esan nien: «Bai, konprenitzen dut, baina ez dut baimen hori emango, harik eta etxearen bueltako kaleak, espaloiak-eta, amaitu arte». «Mesedez!». «Hara, baimena ematen badut, bi hilabete baino lehenago etorriko zarete zuek etxearen buelta amaitu barik dagoela esanez». Eta hala egin zen: amaitu, eta baimena. Etxearen promotoreei ere esan behar izan nien: «Epe bat jarriko dizuet, eta berba eman behar didazue obra egingo duzuela: etxeak amaituta daude, baina etxe ingurua ez. Ez duzue kobratuko hori egiten ez duzuen bitartean». Handik bi edo hiru hilabetera, etxe ingurua amaituta zegoenean, baimena eman nuen. Hiru-lau familiarekin haserretu nintzen —ni ez eurekin, ez neukan zertan haserretu—, baina arrazoi haiek emanda.

Alkate izatea, hortaz, lagunak egiteko baino, haserreak izateko hobe da...

Ez, ez... Astean bi egunetan, goiz osoa, hamarretatik ordu batera, herriko jendea hartzeko neukan. Jendeak txanda eskatu eta etortzen zen bere *kuitak* konfesatzera. Denetatik entzuten nuen, mota guztietako kontsultak, pentsatuko duzunez...

Bestelako *kuitak* izan ziren Bergarako alkate mugimenduan...

Bai, oso diferenteak...

Zelan sartu zinen mugimendu hartan?

Arrasateko alkateak, Altunak, deitu zidan behin, zaborrei buruz berba egiteko. Zelan moldatzen ginen eta informatzeko. Horrelako kontuak ziren. Nire lehenengo alkatetza denboran izan zen hori eta uste dut hortixe etorri zela gero niri Bergarako horretara deitzea. Aditzera eman zidan zer plan zegoen Bergaran batzeko, foruak kendu zituztela ehun urte betetzen zirenean, uztailearen 21ean. Bergarara deitu zidaten beste batzar batera eta han batu ginen Elkoro, Imanol Murua... Eguna zelan egin ere pentsatuta zeukaten: kontzentrazioa, meza nagusia, kalejira ikurrina eta pankartak hartuta... Meza nagusiaz ondo akordatzen naiz, ni musikazalea naizelako eta Bergarako korduak kantatu zuelako bertan... Egun haren inguruan osatu zen alkate taldea.

Taldeko batzar txikiko kide zinen...

Begarako Jose Luis Elkoro, Arrasateko Altuna, Zarauzko Imanol Murua, Oiartzungo alkatea, Legazpiko ordezkaria, besteren bat, eta ni, Bizkaitik. Baina ez nintzen Bizkaiko bakarra mugimenduan: Dima, Zeberio, Ondarroa eta beste hainbat sartu ziren han. Batzar txikia, ordea, arin ibiltzeagatik egiten genuen. Presaka bildu behar bagenuen zerbait eztabaidatzeko, telefonoz deitu eta biltzen ginen. Begarako batzar hura ez ezik, Bilbon ere egin genuen manifestazioa, Casillan amaitu genuena.



### Orduan egunero zen manifestazioa bazterretan...

Ez dakit zein zen motiboa... Hauteskundeak, udal hauteskundeak eskatzen genituen! Batzar txikian asmatu genuen hori ere. Ez dakit non hasi ginen, baina Casillan amaitu genuen, behintzat. Eta hitzaldia gertatu zidaten, euskara batuan. Nik, berba batzuk aldatu egingo nituela esan nien, «jendeak hobeto uler dezan». Altunak esan zidan: «Gero, amaieran, 'Gora Euskadi Askatuta!' indarrez esan behar duzu!». Hori egin denak egin genituen. Manifestazio hura egiteko baimena behar genuen, Bizkaiko gobernadorearena, eta harengana joan ginen Jose Luis [Elkoro], Altuna eta hirurok. Emango zigula baimena eta zenbait gomendio eman zizkigun, manifestazioa zuzentzeko. Honetaz eta hartaz ari ginen eta, momentu batean, nik: «Horrelako neurriak hartzea erabakitzen baduzue, gu pase foralaz baliatuko gara». «Pase forala? Horrelakorik ezin duzue egin», gobernadoreak. Han ibili ginen gobernadore eta biok, atzera eta aurrera. Handik irteeran, Jose Luisek eta Altunak: «Zer ibili duk hor, pase forala gora eta pase forala behera. Zer da hori?». «Obeditu bai, bete ez», gaztetan irakurrita neukan, eta gogoan hartu ere bai...

### Zergatik ez zuen aurrerago egin alkate mugimendu hark? Zergatik ez zuen iraun?

Saltsak etorri ziren! Nire buruko ordenagailu zaharrean baztertuta neukan gai hori, baina eragin beharko nioke! Akordatzen naiz Martin Villak ere gonbita egin zigula Gasteizen, merezimendu sariren bat-edo zen aitzakia, baina kondizioen batzuk ere bazituela uste dut, eta ez ginen joan, apropos. Batzar txikian ez joatea erabaki genuen... Ez naiz gogoratzen, baina polita izango litzateke mugimenduaren historia berreskuratzea. Eta esaten dizut, baztertuta eduki dut nire buruan. Bestalde, aspalditxoan ez naiz egon Jose Luisekin. Pasa den Durangoko azokan ez nuen ikusi. Aurrerakoan, bai...

Hura itzali zen, Zaldibarko alkate izan zinen 1983 arte. Batzar nagusietako kide ere izan zinen garai hartan...

Alkatetzako bigarren agintaldia hauteskundeak irabazita egin nuen. «Legealdi bat behintzat egin behar dut!», neure buruari esanda joan nintzen. Alkatetzarako eta Gernikako batzarretarako aurkeztu nintzen eta bietarako irten nuen. Eta ez dut damurik.

**Bizkaiko batzar nagusietako kide zinen Espainiako erregeak bisita egin zuenean. HBko parlamentariak *Eusko gudariak* kanta-tu ziotenean, alegia.**

Bai, han nintzen. Batzar nagusietan egin nuen lehenengo legealdian izan zen... Han nintzen bai. Are okerrago, batzar nagusiaren ordezkari legez, Espainiako errege-erreginekin egin zen bazkarira joan behar izan nuen, Axpen. Atxondon izan zenez, Durangaldeko batzarkideari egokitu zitzaion joatea, niri.... Geroko batean, bertoko ugazabak esan zuena ere gogoan daukat: «Isiltasuna entzun ere egiten zen baserri-jatetxean».

**Axpeko jatetxean isiltasuna, Gernikako batzar etxean kantu eta zalaparta.**

Erregea zuri-zuri. Erregina ere bai. Denok ginen urduri han. «Zer pasatu behar du hemen?»... Horrelakorik egiten ez zen garaian egin zen, eta istilu handia izan zen. Gaur egun ez genion batere inportantziarik emango. Baina, orduan, non eta Gernikako batzar etxean, Espainiako errege-erreginak han zeudela... Gauza asko ikustea tokatu zait, bai.

**Ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Bizkaiko kultur ordezkartzara igaro zinen. Hantxe egin zenuen lan 1994 arte, erretiroan sartu arte...**

Hiru legealdi egin nituen han. Alkatetza utzi nuen urtean, batzar nagusietarako hautatu ninduten, Gernikarako. «Erraz egiteko moduko lana, gustatzen zaidana... Jarraituko dut», esan nion neure buruari. 1983ko martxoan Zaldibarko alkatetza utzi eta, uztailean, hilabete bi edo hirura, deia Gasteiztik. Jose Mari Velez de Mendizabal zen, kultura sailburorde orduan. Lehendakari, Garaikoetxea zen. Ez nuen Jose

Mari ezagutzen. «Zelan alkatetza utzita?», eta «Apur bat la-saitxoago». «Gonbita daukat zuretzat. Ea nire eskaintza onar-tzen duzun... Bizkaiko kultur ordezkaria izatea». Nik mo-mentu hartan ez nuen karguaren dimentsiorik ikusten. In-formazio eta Turismo bulegoan zen, baina ni inozoa, ez zi-tzaidan iruditzen bulego hark Jaurlaritzaren kultur orde-zkaritza izan behar zuenik. Joan nintzen eta «Ene, baina he-men egonda nago ni makina bat bider!». Izan ere, Geredia-gako-eta, Koral Elkarteko-eta... baimenak ateratzera joan behar izaten zen Francoren denboran. Jose Mariri esan nion: «Ez neukan horrelako asmorik. Ez dago ni baino pertsona zeragorik lan horretarako?». «Hori beste gauza bat da. Zuk esadazu ahalik eta bizkorren». «Noizko behar duzu erantzuna?». «Gaur hobe, bihar baino!», Jose Marik. «Etxean esan behar dut!». Ustekabean harrapatu ninduen deiak.

#### **Onartu zenuen.**

Bai. Galdetu nion Jose Mariri: «Eta, bulegoren bat-edo izango dut, ezta?». «Bai, bai...». «Eta zenbat langile?». «Ehun eta hogeig lagun inguru!». Madriletik transferitutako langileak ziren. Sekzio femininokoak-eta ziren tartean, eta bateko eta besteko gazterriakoak... Izan ere, han kultura, turismo, gazte-ria, gizarte ekintza... denetarik zen han. Mazarredo, Egaña eta Ibañez de Bilbao kaleetan zeuden bulegoak. Langile haiek han izan ziren hilabete batzuetan. Gero, transferen-tziak egin ziren Jaurlaritzatik Diputaziora eta ni, azkenerako, berrogei-berrogeita hamarren bat langilerekin geratu nin-tzen.

#### **Informazio eta Turismo bulegoak bazituen artxiboak...**

Hori beste historia bat da, eta uste dut badakidala nondik datorren galdera... Gure bulegoak hainbat diru-laguntza deialdi egiten zituen, auzolantegiak, GKEak... Erregistroa ere bagenuen, liburu eta argitalpenei lege gordailua emateko... Bada, *Jakin*-eko burua, Joan Mari Torreal dai, etorri zitzaidan behin, ea erregistroak ikus zitzakeen. «Bai, gizona», nik.

Euskal kultura eta literaturaren zentsurari buruzko lan bat egin behar zuela-eta egun bitan edo hirutan etorri zen. Edozeini ezin zaio erregistro libururik erakutsi, baina hura eza-guna zen, eta lana ari zen egiten. Azkeneko egunean esan zidan: «Gehiago ez daukazu, liburu hauek besterik ez? Nik pentsatzen dut hemen falta direla». «A, bai? Ideiarik ere ez daukat», nik. Orduan ez nuen jakin, hura ez zelako erraz kontrolatzen. Baina gero, pentsatu nuen eta Joan Marik arrazoi izango zuela erabaki nuen. Neuk ere, alkate egon nintzen denboran, gauza batzuk hartu, poltsa batean sartu eta denak erre nituen zapatu batean. «Hauek daudenik ere ez duk komeni inork jakin dezan». Gero, pentsatu ere egin izan nuen, «Ea baten bat etortzen zaidan niri honen gainean-edo galde-tzen». Baina inor ez zen sekula agertu. Horregatik esaten dut Joan Marik arrazoi izango zuela, gauzak falta zirela. Nik izan nuen idazkaria lehenagotik zegoena izan zen. Hark gehiago jakingo zuen... Kortesiak tratatzen genuen elkar, baina nork bere alderdia zaintzen genuen. Seguruenera, komeni ez ziren gauza batzuk hark eliminatuko zituen. Ahal zuen, behintzat. Ez dakit horrelakorik egin zuen.

**Francoren argazkia zegoen bulegoan lehenengoz sartu zinenean...**

Hura eta bandera eta denak kendu nituen. Francorena kendu eta egunetara lehendakariarena jarri nuen. Banderaren ondoan, ikurrina. «Nik zerbait egin behar zioat ba bandera honi!», eta idazkariari esan nion. «Bandera kontu hau ez zait gustatzen. Hona jende asko etortzen da, zuk dakizunez. Batzuk joera batekoak dira, besteak besteak. Batzuei bandera batek egiten die min, bestetzuei besteak...». Nik, zelan edo hala idazkaria bera konprometitu nahi nuen. Eta, horrela, esan nion: «Tira, erregalatu egingo dizut». Eta berari eman nion Espainiako bandera hura. Kito espainola nire bulegoan.

**Ez alferrik! Hor ageri da piperpotoa, lehen ageri ez zen udale-txeetan...**

Bai, hori ere egia da...

**Enpresaburua izan zara. Nola moldatu izan zara enpresa zuzentzeko, bateko kultura jardunbideetan eta besteko politika arduretan ari izanda?**

Beti izan dut norbait ondoan, laguntzaile. Dela koruan, dela beste arloetan ere. Talde txikia izan dut alboan, laguntzaile finak eta jende leiala. Beti gertu laguntzeko, nahiz nik eskatuta, nahiz eurek beren buruak eskainita. Koruan, banuen ordezkaria. Etnografia erakusketak egin genituenean, lauzpabost emakume, sekulako lana egin zutenak. Enpresan, berdin, han ere banuen taldetxoa. Jubilatu nintzenean, berriz, alabaren esku utzi nuen hura, eta kito. Baina beti izan naiz horren aldekoa: jende askorik ez, baina lagun batzuk inguruan edukitzen ahalegindu naiz beti.

**Orain arte! Zeu bakarrik ari zara Herriko Kondaira Koadernoak egiten...**

Nor bere lanetan ari da eta, gainera, ez dut inor behar lan horretarako.

“

Ahal dudan artean, horrela egingo dut.

Gero, akabo.

Gauza ez naizela ikusten dudanean, ezin dudala, huts egiten dudala... orduantxe amaituko da nire lana

”

**Eta ezinean gertatzen zaren egunean? Ez da talderik izango zure lanari jarraipen emango dionik...**

Ez dut horren ametsik. Gai naizen artean, buroa ondo dabilen artean, artxiboetan oraingo moduan ibiltzeko gauza naizen artean... segituko dut. Internetez ere biltzen ditut artxiboetako datuak, baina ez dut artxiboetako jendearekin harremanik galdu nahi. Badiotsut, nahiz eta etxetik, Internet bidez, datuak eskuratu ahal izan. Ahal dudan artean, gurago dut artxiboetara joan. Gaur, ostirala. Bada, datorren martitzenean txanda eskatuta daukat Deriora joateko, artxiboak ikustera. Hogeita hiru urte daromatzat hara bueltaka! Koadernoak lantzeko ez ezik, etxekoen zuhaitz genealogikoak egiteko. Horrek ere hara joan beharra ematen dit. Ahal dudan artean, horrela egingo dut. Gero, akabo.

Gauza ez naizela ikusten dudanean, ezin dudala, huts egiten dudala... orduantxe amaituko da nire lana.

Zure lana amaituko da, eta herriaren eskuetan geratuko da... Zure material guztien dohaintza egina diozu Zaldibarko herriari...

Erabaki horixe hartu nuen orain dela lau urte. Ez nion inori saldu nahi, partikularra izan, erakundea izan. Ez dut daukadana baino gehiago behar... Neure herriarentzat, jaioterriarentzat izan dadin nahi nuen. Liburutan badira 7.000 inguru. Artxiboan, 4.000 argazki eta klixex. Margolanak, koadroak, grabatuak... Zenbait eskultura tamaina txikikoak, eta laborantza tresnez osatutako museoak. Eta zeramika lanak ere badira, antzinakoak batzuk eta berriagoak beste batzuk, baina esku onek egindakoak. Zaldibarko herriarentzat izango da dena, udalaren bitartez, leku egokian gordetzeko baldintzapean. Ez dut nahi funts guztiak biltegian gorde ditzaten, zein kutxatan zer dagoen jakiteko modurik gabe. Baina esana, Zaldibarko herriarentzat, nire jaioterriarentzat da ondare hori...

## Harreman handiko bakarlaria

Jende askorekin izan ditu harremanak Balendin Lasuen Solozabalek. Askoren izenak isuri ditu elkarrizketan zehar. Harreman handiak gorabehera, bakarlari jardun du bere bizian. Hala ere, zenbaiten berri zuzenago eman digu. Tartean, hunkitu ere egin da izen batzuk entzun eta hitzari lotu zaionean...

**Jose Antonio Agirre.**

Lehendakaria. Jaun agurgarria. Zintzoa. Politikari trebea eta bihotz handiko gizona. Penagarria da erbestean hil izana. Donibane Lohizunen hilobiratu zuten, han nintzen hileta egin zenean eta harrezkero hainbat bisita egin dizkiot hilobira.

**Rikardo Arregi.**

Ez genuen harreman handirik izan. Arantzazuko batzarren inguruan izan ginen elkarrekin, eta aurretik Ermuan

egin genuen hartan. Mutil oso argia zela ikusi nuen, zentzun handikoa, hizlari trebea, noblea, idazle bikaina.

**Juan San Martin.**

Lagun maitea nuen Juanito. Asko ibili ginen elkarrekin mendian, biok mendizaleak ginen eta. Bestalde, saltzaile ibili zen denbora batean, urte pilatxo batean. Enpresa bateko makinak saltzen jarduten zuen eta beti bisitatzen ninduen lantegian. Saltzeko zituenak baino gehiago aitatzen genituen mendi kontuak, kobazuloak, liburuak eta abarrak. Hori izaten zen gure materiala. Hondarribian eman genion azken agurra...

**Jose Luis Lizundia.**

Esan izan dut taldetxoak eduki ditudala nire inguruan. Gerediaga elkartearen lehendakari izan nintzen urteetan nirekin izan nuen Jose Luis. Idazkari zen Garai, Izurtza eta Mañarian, oker ez banago. Administrazio kontuetan oso gizon zaildua zen. Asko estimatzen dut.

**Gerediaga elkarte.**

Elkarte kuttuna dut. Bi ditut elkarte kuttunak: neuk sortutako Koral Elkarte, eta Gerediaga. Beste zenbait elkartetako kide naiz —Euskalerriaren Adiskideen Elkarte...—, baina aitatu ditudan horiek biak bereziak dira.

**Bergarako alkate taldea.**

Esperientzia polita. Elkoro, Murua, Altuna... Esperientzia handirik ez genuen, baina borondatea bat! Borondateaz gainerako guztiak zapaltzen genituen... Uste dut denok elkar asko estimatzen genuela, denok.

**Jose Luis Elkoro.**

Gizon indartsua, ausarta... Foruak kendu zituzten mendeurrenarekin batera Bergaran egin genuen batzarra ez zait bizian ahaztuko. Eta Jose Luisek egin zuen hitzaldia! Mami politiko handiko berbaldia egin zuen. Uste dut baten bati

esan niola: «Honek esan dituenak batzuek entzungo bali-tuzte, kartzelara eroango gintuzkete denok».

**Ander Manterola.**

Liburu azoka egiten hasi ginenean ezagutu nuen. Baina, ordurako, lehenagoko erako euskal jaiak antolatu genituen eta han zen Ander. Gaitasun handia erakutsi zuen orduan, eta gaitasun handi hura bistara etorri da urteetan aurrera.¶



## Bibliografia

Bilbao Bizkaia Kutzaren —lehenago, Caja de Ahorros Vizcaína— «Temas Vizcaínos» bilduman:

- *Guerediaga y la Merindad de Durango* (1984)
- *Crónicas de las fiestas euskaras* (1986)
- *Orfeones y Corales de Bizkaia* (1987)
- *La anteiglesia de Zaldibar* (1987)
- *Los últimos hórreos de Bizkaia* (1989)
- *Puentes antiguos de Bizkaia* (1989)
- *Cruces de término en Bizkaia* (1991)
- *Agroturismo en Bizkaia* (1993)
- *Monumentos a vizcaínos ilustres* (1995)
- *Museos de Bizkaia* (1997)

«Herriko Kondaira Koadernoak / Cuadernos de Historia local» bilduman, 26 ale idatzi eta publikatu ditu, euskarazko eta gaztelaniazko edizio elebidunetan:

- *Zaldibarko Bainuetxeak / Balnearios de Zaldibar* (2000)
- *Zaldibarko San Andres eliza eta baselizak / Iglesia de San Andrés y ermitas de Zaldibar* (2001)
- *Garitaonandia'tar Bitor / Victor de Garitaonandia* (2001)
- *Euskal Pilota Jokoa — Zaldibar / Juego de pelota vasca en Zaldibar* (2001)
- *Euskal Abertzaletasuna / Nacionalismo vasco en Zaldibar* (2002)
- *Herriguneko Etxe eta Sendiak / Casas y Familias del Casco Urbano (1930-1940)* (2002)
- *Zaldibarko Kapera Neorromanikoa / Capilla Neorrománica* (2002)
- *Argazki zaharrak (I) / Fotografías antiguas de Zaldibar (I)* (2003)
- *Antzinako Ogibideak / Antiguos oficios en Zaldibar* (2003)
- *Antzinako Argazkiak (II) / Fotografías antiguas de Zaldibar (II)* (2003)
- *Zaldibar Dorrea eta Leinua / Torre y Linaje de Zaldibar* (2003)

- *Antzinako Argazkiak (III) / Fotografías antiguas de Zaldibar (III)* (2004)
- *Aranguren, Gazaga, Urizar auzoetako basetxe eta sendiak / Caseríos y familias de los barrios de Aranguren, Gazaga y Urizar* (2004)
- *Antzinako Argazkiak (IV) / Fotografías antiguas de Zaldibar (IV)* (2004)
- *Eskolak eta irakaskuntza / Escuelas y enseñanza en Zaldibar* (2004)
- *Goierri auzoko basetxe eta sendiak / Caseríos y familias del barrio de Goierri* (2005)
- *Antzinako Argazkiak (V) / Fotografías antiguas de Zaldibar (V)* (2005)
- *Zaldibar Korral Elkartea / La Sociedad Coral Zaldibar* (2005)
- *Antzinako Argazkiak (VI) / Fotografías antiguas de Zaldibar (VI)* (2006)
- *Jaiak, Ohiturak eta Gertaerak (I) — Zaldibar / Fiestas, Costumbres y sucesos (I) (1900-1960)* (2006)
- *Jaiak, Ohiturak eta Gertaerak (II) — Zaldibar / Fiestas, Costumbres y sucesos (II) (1900-1960)* (2006)
- *Zaldibarko zuhaitzainak (1906-2006) / Arboricultores de Zaldibar (1906-2006)* (2007)
- *Antzinako bideak — Zaldibar (1787-1999) / Caminos antiguos de Zaldibar* (2007)
- *Elizateko sinboloak — Zaldibar / Símbolos de la Anteiglesia de Zaldibar* (2007)
- *Eizaga auzoko basetxe eta sendiak / Caseríos y familias del barrio de Eizaga* (2007)
- *Garitaonandia dorrea eta leinua / La torre y el linaje Garitaonandia (prestatzen)*

Bestalde, artikulua ditu *Gerediaga, Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan.

Gainera, hainbat artikulua ditu argitaratuak Zaldibarreko jai-egitarauan, eta hogeit hamar ikerketa genealogiko eginak zenbait familiaren enkarguz.



**ARTEA 97**

Museoak udarako dira  
Dirua egitea, hori bai artea  
Zer dira ba 13.000 urte gizakiaren historian?  
Artearen historia, Historiaren artea

**XABIER GANTZARAIN**

**TEKNOZIENTZIA 103**

Bi izen propio  
Ur ona edaten iturbegira eta gerezi gozoa  
jaten Mañarira  
Bloggerook • Heriotzaren garaian  
Atzen izen propioa

**INAKI IRAZABALBEITIA**

**LITERATURA 110**

Gela propio bat • Tik-tak  
Lau urrats • Hienaren irribarrea

**UXUE ALBERDI**

**SOZIOLINGUISTIKA 115**

Demolinguistika • IV. Inkesta Soziolinguistikoa  
Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsua  
Euskararen erabilera

**LIONEL JOLY**

**TELEPOLIS 121**

Noiz arte IT departamentuak enpresetan?  
Opari ekonomia • Hodei informatikoa  
Internet bidezko bikoteak

**JOXE ARANZABAL**

**GLOKALIA 127**

Globalizazioaren ajeak • Europa, Europa  
Klimaren ekonomia • Energiaren korapiloa

**AITOR ZUBEROGOITIA**

## Museoak udarako dira

Gauza ederra da udara. Haurrak jolasean, gazteak maite kontuetan, helduak alferrean, udara da urtean zehar egin ezin izan ditugun gauza horiek guztiak egiteko garaia. Asko eta asko kanpora joaten dira, kasik abiatu diren bezala itzul-tzeko, hitzen bat edo beste ikasita, eta aurreiritzi pare bat gehiagorekin, normalean. Hori bai, jendeak maite du (jendea gu gara) bazterrak ikustea, argazkiak egitea, eta gero kontatzea non ibili den, zein leku ederrak ikusi dituen, zein diferente bizi den jendea han, urrutian, eta azkenean zertarako, eta beti ondorio berera iristeko: zein ondo bizi garen hemen. Eta holaxe urtero.

Urtero bezala, museoak turistaz betetzen dira, hiri orok badu bisitatu beharreko museoren bat, hiri orok badu gurtu beharreko lekuren bat, hiri orok badu erakusketa bereziren bat udaran, euria egiten badu jendeak aterpe hartzeko modukoa, bero sapa itogarria egiten badu jendeak freskura bilatzeko egokia. Zer erakusten den, zeini zaio axola? Bilbo-ko Guggenheimera datozenak, erakusten denaren arabera etortzen dira? Udara da, etxean gelditzea bekatu den garaia. Ibili, ikusi bazterrak, ikusi museoak, egin zerbait diferentea, ahaztu urtean zehar burua jan dizuna.

Ahaztu, horixe da udaran egiten duguna. Ordura arte hil ala bizikoak ziren eztabaida txit garrantzi handikoak, itzal-tzen hasten dira uztailearekin batera, eta erabat desagertzen dira abuztuan. Kontu batzuk berpizten dituzte irailean, politikariek hala nahi badute behintzat, baina beste guztiak hor gelditzen dira, udarak utzitako errautsen artean. Harri-garria da zinez: urtean zehar hain inportantea izan bada, zergatik ez abuztuan? Inportantea bada, urte osoan izango

da inportantea, ez? Ez dago albiste bat udaran ematea bezalakorik, inork ez dezan hitzik egin, ahotsik altxa.

Udara hastear zela eman zuen Bizkaiko ahaldun nagusi Jose Luis Bilbaok berria: beste Guggenheim bat egiteko asmoa zutela, oraingo hau Urdaibain. Udara gainean zelako-edo, ez zuen hauts askorik harrotu kontuak. Alderdiak kexatu ziren, bai, baina ez proiektuaren nolakoagatik, EAJk bere kabuz erabaki eta Jose Luis Bilbaok inorekin hitzartu gabe bota zuelako baizik. Baten batzuek zalantzaren bat agertu zuten, halako paraje batean beste Guggenheim bat eraikitzeak zer nolako ondorioak ekarriko ote lituzkeen esanez, biosfera babestuari kalte egin liezaiokeela-eta. Baina kulturaz, fisik ere ez inork. Sartu zaitez [www.politikak.org](http://www.politikak.org) webgunean, eta begiratu zenbat sarrera dauden gaiari buruz, eta batez ere, begiratu zenbat erantzun dauden. Etsiak hartzeko modukoa. Erramun Landari irakurri nion behin, herri honetako giro kulturala oso eskasa zela. Exajerazioa iruditu zitzaidan orduan. Motz gelditu zela pentsatzen hasia nago gaur.

Kontua ez da sarrera gutxi eta erantzunik batere ez dagoela arestian aipatu webgunean, nahiz eta hori sintoma argia izan. Kontua da hasi proiektuaren aurkezpenetik eta beste alderdien erantzunetara, arrazoiak (edo aitzakiak) ekonomikoak direla, urbanistikoak, turistikoak edo ekologikoak, baina sekula ez kulturalak, artistikoak. Inork ez du proiektua arrazoi kulturalekin justifikatzen. Krisiari aurre egiteko izango dela, ikur bat izango dela, totem bat, eskualdea berpizteko balioko duela... kulturaz hitzik ez inork, arteaz hitzik ez inork. Pentsatzekoa zen. Bilboko Guggenheimekin hasitako bidean beste urrats bat besterik ez da hau. Museoak industriaren ordezkotik, ekonomiaren mesedeko eta menpeko beraz, zer ikusirik ez artearekin. Arteak ezkurra ematen duela idatzi zuen Joseba Sarrionandiak *Hitzen ondoeza* liburu zoragarrian, baina gaur eta hemen, arteak diru asko mugitzen du, turismoak bezalaxe, eta museoak bete egiten dira udaran, jendez eta diruz.

## Dirua egitea, hori bai artea

Bada krisi hotsa bazterretan. Astebeteren barruan jakin dugu aurrezki kutxa handi batek erreka jo duela, eta munduko aseguru etxe handienak laguntza eskatu diola AEBetako gobernuari. Oraindik ikusteko dago hemen ze eragin izango dituen, baina gauza bat da segurua: artelanen salmentari ez dio asko erasango. Aberats zahar eta berriek, guztiek nahi dute artelan bat erosi. Enkante-etxeak abasto eman ezinda ari dira. Duela hiru bat hilabeteko albiste baten arabera, Dubain egindako enkante batean, enkantean jarritako guzti-guztia saldu zen, baina erosleek ez zuten esku hutsik alde egin nahi, eta gehiagoren eskean hasi omen ziren. Hauek ez daude krisian, antza.

Irailaren hasieran, berriz, Erresuma Batuko pertsonarik aberatsenen zerrendan dagoen Damien Hirst artistak bere lanak enkantean jarriko zituela iragarri zuen. Horraino dena normal. Enkante honek bazuen berezitasun bat, ordea. Artistak berak salduko zituen lanak, galeria edo bestelako tartekorik gabe. Esan gabe adierazi zuen bere lanaren lepotik inor aberasteaz aspertuta zegoela. Zer pentsatu behar dute orduan, beretzat lanean ari diren 120 langileek?

Ez dira azkenean gauzak hainbeste aldatu. Errenazimentuko artistek tailerrak zeuzkaten, eta mezenasak. Damien Hirstek tailerrak dauzka, eta erosleak. Erosle aberatsak. Astebete iraun zuen iraileko enkante horretan, inoizko preziorik altuena ordaindu zen bizirik dagoen artista baten lan bategatik. Gaurko aberatsak ez dira lehenagokoen oso bestelakoak, eta italiarrek *distacco* hitzean bikain laburbiltzen duten hori bilatzen dute artelanak erositak.

Kontu honen harira oso artikulu interesgarria irakurri ahal izan genuen [www.rebellion.org](http://www.rebellion.org) webgunean. Philippe Pataud Célérier zen egilea, eta Lucía Verak itzuli zuen espainolera. Hainbat kontu aipatzen dira artikulu honetan, eta besteak beste, Damien Hirst artistaren arrakastaren zergatiak aletzen ditu. 80ko hamarkadan ezagutu zuen Charles

Saatchik, munduko publizitate agentzia handienetako baten jabeak, Damien Hirst, eta bere lanak erosten hasi zen. Handik urte batzuetara, 1995ean, Tatek ematen duen Turner Saria jaso zuen. Sari hauen sortzaileak, The Patrons of New Art (Arte Berriaren Patroiak) izeneko mezenas talde bat eta Tate bera ziren. Mezenas talde horretan zegoen, nola ez ba, Charles Saatchi jauna. Ez du esaten iruzurrik egon zenik, ez du esaten Saatchik azpijokorik erabili zuenik. Datuak ematen ditu. Pentsa beza bakoitzak nahi duena.

Eta datu gehiago ere ematen ditu. *Art Review* aldizkariak urtero kaleratzen duen «Power 100» zerrendan, arte garaikidearen esparruan gehien eragiten duten 100 laguneko izenak agertzen dira. 2007ko zerrendan, bostetik bat ziren artistak: 6. tokian Damien Hirst, 13.ean Jeff Koons. Aldiz, 2002an bostetik bat ziren bildumagileak herena izatera pasatu ziren 2007an. Gero zetozen, %22rekin, galeristak eta tartekoak. Eta beste datu hau ere ematen du: bildumagileen %74, estatubatuarra edo britainiarra da. Hurrengo datu hau Natalie Moureaux ematen du: munduko 200 bildumagile garrantzitsuenen zerrenda hartuta, gehienak museoren bateko administrazio kontseiluan daudela ohartuko gara. Kontua hau da, beraz: sarea hain ondo osatuta baldin badago, eta hainbeste diru jokoan, nork zehazten du artelan baten balioa? Nahiagoko nuke beste erantzun bat edukiko banu, baina tamalez, garbi ikusten dut arrazoi duela Alain Quemin soziologoak: «Gaur erosleak egiaztatzen du artista, XVIII. mendean Akademiak bezala». 200 bildumagileen zerrenda horretan, ba ote da Guggenheim Fundazioko inor?

## Zer dira ba 13.000 urte gizakiaren historian?

Orain dela 13.000 mila urte ez zegoen Guggenheim Fundaziorik, ez Charles Saatchi jaun txit agurgarririk, baina gizakiak marraztu egiten zuen. Zergatik? Ez dakigu gauza garbirik. Baina badakigu marraztu egiten zuela. Ordukoak omen dira, milaka urte batzuk gorabehera, Debako lurretan

egon arren Zestoatik bertan dagoen Ekaingo haitzuloan aurkitu zituzten marrazkiak. Zinez diotsuet, inoiz egin dudan barne bidaiarik bortitzenetakoa izan zen Ekaingo haitzuloa egin genuena. Baimena eskatu genuen Aranzadira, eta handik hilabete batzuetara, baiezkoa eman ziguten, eguna eta ordua jarri, eta gidari bat bidali denboran atzera egindako bidaiari ez gintezen gal. Inoiz ikusi dudan gauzarik ederrenetako bat da Ekaingo haitzuloa, hartz eta zaldien marrazkiek are ederragotzen dutela.

Badakit, ez da gauza bera, baina ikustekoa izango da Zestoan ireki berri duten Ekainberri, Ekaingo haitzuloaren erreplika. Garai batean jendea bizi zen leku batean sartzeak sortzen duen sentazio berezia galduko da, baina irabaziko da erraztasunean eta erosotasunean. Jendeak esku-eskura izango du ordu hartako marrazkiak ikustea. Zinez diotsuet, ikaragarria da. Ikaragarria da marrazki haiek ze aldaketa eragingo zuten imajinatzen hastea.

Oso artikulua interesgarria idatzi zuen Felix de Azúak irailaren 13ko *El País*-en. Bertan esaten zuen zaldia, bisontea, mamutak irudikatzea hauek mailaz jaitea zela, unitate abstraktuetara mugatzea. Aurrerantzean ezin hitz egin zaldi honetaz edo beste hartaz, zu bezain eta ni bezain izate argi eta garbiez. Lehen irudiaren ostetik, zaldi guztiak zirela dominatu, zaldi hau eta zaldi hura Zaldia bihurtu zirela. Filosofiaren hastapenak beraz ikusgai Zestoako Ekainberri.

## Artearen historia, Historiaren artea

Urrian jarriko dute martxan Haizea Barcenillak eta Saioa Olmok [www.wiki-historias.org](http://www.wiki-historias.org) webgunea. Euren xedean artean, artearen historia beste modu batera egiteko modua jartzea da. Jendeak parte hartzea nahi dute, artistek euren datuak eta kontuak idaztea hor, norberak bere burua auto-definitzea bestek defini dezaten zain egon gabe. Ikuskizun dago egitasmo berri honek zer emango duen, baina egileak ezagututa, emaitza interesgarrikerik ekar dezakeelakoan nago.



Hainbeste fundazio, administrazio kontseilu eta bildumagile aberatsek Artearen Historia idazten duten bitartean, jendeak artearen historia ez ezik, historia ere idatz dezakeela sinesten dute behintzat. Eta historia idaztea, gure historia idaztea, behar-beharrezkoa dugun artea da.¶

## Bi izen propio

Bi izen propioen inguruan hasiko dut nire jarduna. Bertakoa bata, urrutiagokoa bestea.

Hilero etxean jasotzen dudana *Scientific American* aldizkarian zutabegileetako bat da Michael Shermer. *Skeptic* du izenburua bere zutabeak. Garbi azaltzen du horrek barrukoaren mamia. Oso gustura leitzen dut Shermerrek idatzitakoa. Idazle zorrotza eta estilo zuzenekoak. Zientziaren inguruko sasi-usteei eta egia-erdiei buruz aritzen da normalean, horien atzean egon ohi diren uste ustelak argitzen. 2008ko abuztuko alean AEBetan *wheatgrass juice* esaten diotenaz dihardu. Ur hori gariaren landare jaioberrietatik erauzten da eta hainbat osasun-arazo sendatzeko balio ei du, medizina naturistan ari direnen ustetan: besteak beste, hemoglobina-produkzioa emendatzen du; diabete-egoerak hobetzen ditu eta bakterio-bidezko infekzioak prebenitzen ditu.

(Bidez batez, botika naturistei buruzko informazioa Interneten *Natural Medicine Comprehensive Database* izenekoan topa dezake irakurle interesatuak: [www.naturaldatabase.com](http://www.naturaldatabase.com). Ez muxu truke ordea!) Artikuluaren osagarri doan argazkian Shermerrek eta bere lagunek gari berde horren ura edan eta gero jartzen duten nazka-aurpegiari erreparatuta, ez naiz ni izango edabe hori dastatuko duena! Ezertarako balioko balu, sikiera!

Shermer, *Skeptic* ([www.skeptic.com](http://www.skeptic.com)) aldizkariaren zuzendaria da eta, jakina, eszeptizismoaren defendatzaile sutsua. Merezi du webgunea bisitatzea.

Juan Tomas Hernani ingeniari bilbotarra Innobasqueko nazioarteratze-alorreko zuzendari nagusietako bat izan da orain-tsu arte. Hilabete batzuk baino ez ditu egin kargu horretan.

Uztailaren erdi aldean zoratzeko moduko bi egun izan ditu. Batetik, Cristina Garmendia Zientzia eta Berrikuntzako ministro andereak *Fundación Española para la Ciencia y la Tecnología* (FECYT) delakoaren zuzendari izendatu zuen. Bestetik, Europako Espalazio bidezko Neutroi-iturri (ESS) izeneko ikerketa-azpiegitura erraldoia Bilboko hautagaitza bultzatzen ari den erakundearen zuzendari ere izendatu zuten. Ez dira bi lan makal! Zortea opa diot. Bietan arrakasta ezin diot opa. Oraingoz, ESSk gure zientzia eta teknologia-sistemari zein onura ekar diezazkiokeen ez dut garbi. Arrazoiak bota ditut beste inon: [www.unibertsitatea.net/blogak/irazabalbeitia/nolako-zientzia-politika](http://www.unibertsitatea.net/blogak/irazabalbeitia/nolako-zientzia-politika). FECYT-en egitekoa den lanaren inguruan, ausart nadin iradokizun bat egiten. Erakunde horrek berri eta informazio zientifikoa barreiatzeko webgune bat du: [www.plataformasinc.es/](http://www.plataformasinc.es/). Informazio interesgarria argitaratzen da bertan, baina Estatuaren eleaniztasuna ez du kontuan hartzen eta informazioa gaztelania hutsez publikatzen da. Ministro anderea eta Juan Tomas euskal herritarrek izanik Estatuaren izaera eleanitza FECYT-en jardueretan isla egokia izan dezan espero dut. Helburu horrekin ere lan egin dezan eskatzen diot Juan Tomasi.

## **Ur ona edaten iturbegira eta gerezi gozoa jaten Mañarira**

Horrela dio Bizkaiko esaera zaharrak. Ez dakit Mañaritan gerezi gozorik gelditzen den edo harrobiak denak jan ei dituen. Halaber, iturbegian nahikoa urik egongo ote den zailtzak ditut.

Aurreko saioan Fenix eta bizia izan genituen solasgai. Guk ezagutzen dugun biziak ura behar du eboluzionatzeko. Fenixek Marten ura badela berretsi du. Biziaren arrastorik oraindik ez. Lurrean ere ura behar dugu bizitzeko. Ugaria da ura, gogoratu ozeanoek gure planetaren hiru laurdenak estaltzen dituztela. Edateko ura, aitzitik, krisi baten atarian egon daiteke. Batzuek diotenez urak eragingo ditu etorkizuneko gerrak, ez petrolioak. Jakizu!

Edateko uraren eskaera oso azkar hazten ari da munduan. Populazioa gora egiten ari da eta ura behar du: edateko, higienerako, saneamendurako, elikagaiak ekoizteko eta industriarako. Halaber, populazio baten garapen-mailak gora egin ahala ur-eskaria asko emendatzen da.

Lurraren gainazalera prezipitazio ugari erortzen da. Gaitza da kantitatea imajinatzea ere: ehun eta hamar mila kilometro kubiko ur urteko. Berrogeita zortzi kilometroko aldeko igerileku kubikoa beharko genuke ur-kantitate hori gordetzeko. Nahikoa munduko populazio osoa itotzeko! Pentsa pertsona batek urtean 1.000 metro kubiko ur aski dituela bizitzeko. Zenbat pertsona bizi litezke munduan Lurrak jasotzen dituen prezipitazioen ur guztia giza kontsumorako baltiz? Ez da kalkulu matematiko zaila. Animatu zaitetz egitera!

Ur horrek guztiak, alabaina, beste bide batzuk jarraitzen ditu. Gutxi gorabehera %61 lurra eta landareek xurgatzen dute eta gero atmosferara libratu. Beraz, ez da gizakiontzat erabilgarria. Gainerakoa ibai, laku, hezegune eta akuiferoetan biltzen da eta gizakiak balia dezake ozeanoetara iritsi baino lehen. Egia esan prezipitazio osoaren %36k ozeanoetan bukatzen du. Zer gertatzen da gainerako %8rekin? Ba, labore-lurren ureztatze naturalak eta azienden edateko urak %5,1 osatzen dute. Guztiaren %1,3 ozeanoetara iritsi baino lehen lurrindu egiten da. Gizakiok Lurrera jausitako uraren %1,5 baino ez dugu zuzenean baliatzen eta gainera, gehiena laboreak ureztatzeko: %97.

Bestalde, ur-baliabideak ez daude orekatuki banatuta. Bizi zaren tokiak erabakiko du zure beharretarako nahikoa ur duzunentz. Eskualde lehor batean dagoen garapen bidean dagoen eta populazio-hazkundera duen herri batean bizi bazara, arazoak izango dituzu urez hornitzeko. Nilo, Jordan eta Ganges ibaiak gainustiratuta daude. New Delhiko eta Pekingo lurrazpiko akuiferoen maila beheratzen ari da. Garatutako herrietan ere lehorreek hornikuntza-arazo larriak jartzen dituzte. Gogoratu aurtengo neguko Kataluniaren larria.

Aldaketa klimatikoak uraren hornikuntzan arazoak eka-  
rriko ditu orain arazorik ez duten hainbat tokitara. Dena  
dela, populazioaren hazkuntzak eragin handiagoa izan de-  
zake ur-baliabideak hobeto probesteko neurriak hartzen ez  
badira. Izan ere, ur-hornikuntzaren puntu ilunetako bat ura  
alferrik galtzea da.

Uraren oparotasunaren kulturaren bizitzen ohituta gaude.  
Ur-kanila ireki eta ura irten; hutsik egin gabe. Gure gara-  
pen-ereduan ura bukaerarik gabeko baliabidea da. Lurralde-  
antolaketarako plangintzak egin direnean (desegin esan  
beharko genuke kasu askotan) ura baliabide mugagabetzat  
hartu izan da. Mediterraneo aldeko garapen urbanistikoak  
horren lekuko dira. Ur oparotasunik ez eta eskasia dagoen  
toki batean golf zelaiak eta urbanizazio itzelak planteatzen  
dira, soropil berde-berdea lorategietan eta guzti. Orain hila-  
bete batzuk telebistan iragartzen zen Castellóko kostaldeko  
urbanizazio itzel hura, eski-pista artifizialak eta guzti, kultu-  
ra horren adibide paradigmakoa da.

Uraren oparotasunaren kulturatik beste batera pasatu be-  
har dugula garbi dago. Baliabide urritzat jotzen hasi behar  
dugu. Alferrik ez galtzeko eta bidezketasunez erabiltzeko  
egitasmoak abian jarri behar dira. Nekazaritzaren alorrean  
gauza asko egin beharko dira, alor horretan kontsumo han-  
dia dagoelako. Ura gutxiago eta hobeto usatu beharko da,  
ttantta bidezko ureztatze-sistemak lehenetsiz esaterako, ura  
biltzeko eta garraiatzeko azpiegiturek uraren lurrinketari eta  
itogin bidezko galerei aurre egiteko prestatuta egon beharko  
dute... Alabaina, nekazaritza-ura aurrezteko biderik egokie-  
na, oro har, tokian tokikoa haztea da eta, etsenplurako, Na-  
farroako Erriberan artoa edo ur-kontsumo handia duten la-  
boreak erein ordez, garia edo lehorreko beste labore batzuk  
ereitea. Horrela Itoizko urtegia, Nafarroako ubidea eta enpa-  
rauak ez lirateke beharrezkoak izango. Bide batez, errepara-  
tu al duzue Nafarroako ubideak, Alaitz mendizerraren pa-  
rean doanean, Elotik Artederreta aldera, duen itxura tristea:  
zementuzko ibilgua, hesi artean, itzalik ez, arbolarik ez. Jakin

nahiko nuke zenbat metro kubiko ur lurrintzen diren urteko ubidearen ibilbidean; alferrik galdutako ura. Ertzetan aldatutako arbolen itzalak, lurrinketa gutxiagotuko luke sikiera.

Kanila zabaltzea merkea zaigu. Ttanttaka ari den kanila hori konpontzea? Bi sos baino ez dira galtzen den ura! Berdin gertatzen da harrikoa egitean etengabe isurtzen ari den uraren kasuan. Ez da benetan pagatzen, ezta hurrik eman ere, ura kanilerako edateko moduan eramateak duen kostua. Uraren fakturak toki gehienetan 'subentzionatuta' daude. Administrazioak zerbitzu publiko moduan hartzen du ur-hornikuntza eta izan, bada. Alabaina, uraren tarifak kostura hurbiltzeko urratsak eman behar direla uste dut. Patrika estutzeak bultzatuko gaitu ura baliabide baliotsu moduan ikustera. Izan ere, uraren kostua ez baita soil-soilik, biltze-, banatze- eta arazte-azpiegiturak egitea. Bada ahaztu egiten zaigun beste kostu ez horren agerikoa: gure beharretarako ura naturaren ziklotik ateratzen dugu eta horrek ere kostua du. Ibaiaren iturburuan biltzen dugun urak ez du ibaian behera egiten; agorraldietan ibai horrek estres hidriko handia izango du nahiz eta usatutako ura araztuta ibilguan beherago itzultzen badiogu, itzultzen diogunean. Esaterako, Donostian edaten dugun ura Urumearen goi-ibilguko arroetako batean biltzen da, Añarben. Bizkaiko itsasora isurtzen da zuzenean erabilitako ur hori ibaira itzuli gabe.

## **Blogerook**

Sobra ere, blogerook zorionekoak gara. Blogak idaztea terapia ona omen da gaixo zaudenean. Ezaguna da esperientzia pertsonalei, sentimenduei edo pentsamenduei buruz idazteak ondorio terapeutiko positiboak dituela. Ikusi izan denez, norberaren esperientzia emozionalei buruz idazteak hainbat hobekuntza ekarri die HIESdunei: memoria eta loa hobetzea, zelula immuneen aktibitatea azkartzea eta karga birala murriztea. Blogerook ere emozio eta pentsamendu pertsonalak adierazten ditugu sarritan. Beraz, ondorio te-

rapeutiko onak ere guregana iritsiko dira. AEBetako hainbat ospitaletako webguneetan helburu terapeutikoak dituzten pazienteen blogak ostatatzen hasi dira.

Zientzialariek ez dute garbi zein den gertaera horren arrazoia eta espekulazioen mailan dihardute oraindik. Inoiz ondorio onen arrazoiak zein diren jakitea lortuko dugu, bien bitartean blogatzen jarraituko dugu.

Blog kontuak medio, utz iezadazue gomendatzen Donostiako Kimika Fakultateko Yanko Iruin irakasleak idazten duen *El blog del Búho* izenekoak. Bertan, zientzia-gaiak astintzen ditu oso modu atseginean: <http://elblogdebuhogris.blogspot.com/>.

## Heriotzaren garaian

Jainkoagan sinesten ez dugunok, gure familiartekoek zehatzago esateko, arazo batekin topo egiten dugu heriotzari aurre egin behar diogunean. Zer antolatu gure familiartekoek eta lagunek elkartu eta dolua ager dezaten elizatik pasatu gabe? Maiz izan dut gaia hizpide lagunartean. Inork ez du erantzun zehatzik. Askok esaten dute ezkontza zibilak araututa dauden bezala eta beren zeremonia baduten, botere publikoek hileta zibilak arautu beharko lituzketela eta zeremonia kutsua eman. Oker ez banago, oraindik orain Nafarroako Parlamentuan ekimen bat aurkeztu da horixe eskatuta Nafarroako gobernuari.

Gaur Gorkaren hileta zibilean izan naiz. Berak idatzita utzi zuen zer nahi zuen egitea. Eredututa utzi du. Orain badakit zer antola dezakedan. Idatzita utzi dut nire blogean. Hala ere, ospakizunaren eguna ahalik eta gehien atzeratzeko asmoa dut.

## Atzen izen propioa

Kronika hau amaituta neukalarik AEBetako lehendakariorde izateko hautagai errepublikarra Sarah Palin-en idearioaren

berri izan dut. Europako ikuspegitik politikoki eskuin muturrean lerratuta egoteak ez digu horrenbesteko harridura eragiten, kezkatzekoa bada ere. Aitzitik, auzi zientifiko batzuetan dituen jarrerak badira kezkatzeko modukoak: ez du uste aldaketa klimatikoaren erantzulea gizakiaren jarduna denik eta kreazionismoaren aurrean duen jarrera ez dago oso garbi (ikus [http://en.wikipedia.org/wiki/Sarah\\_Palin](http://en.wikipedia.org/wiki/Sarah_Palin)).

Jarrera azientifiko garbiak dituen pertsona bat sozietate aurreratu batean Sarah Palinek dituen moduko ardura politikoak izatera iristea, kezkatzekoa izateaz aparte, sistemak egoki funtzionatzen ez duela erakusten du. Zientziaren eta sozietatearen arteko lubakiaren beste lagin baten aurrean gaude. Kreazionismoaren aurrean kontrako jarrera irmoa ez agertzea, egia erlijiosoaren ikuspegi itxia bizitzaren neurri bakartzat hartzen dutenei keinua egitea da, gutxien-gutxienik, eta zientziaren ekarriari eta ospeari kalte egiten die. Alaskako hautesle ustez alfabetatuek eta ikasiek Sarah Palin aukeratu dute jada gobernadore izateko jaramonik egin gabe aldaketa klimatikoaren auzian datu zientifikoei eta munduko komunitate zientifiko ia osoak esaten dutenari muzin egiten diela. AEBetako hautesleek lehendakariorde egin dezakete eta McCainen osasun-ajeek lehendakari... AEBetako lehendakari berriak zientzia muinean duten erabaki asko hartu beharko ditu. Hainbatek, AEBetako zientzia-sistemari eragingo diote, hala nola, ama zelulekin eginiko ikerketa funts publikoekin finantzatu ala ez. Beste zenbaitek, klima-aldaketari buruzkoek, adibidez, Lurrean bizi garen guztioi eragingo digute. Oinarri azientifikoetan sustraitutako deliberoak izango dira Palin ataka horretara iristen bada.¶



## Gela propio bat

Ez eskatu gogoeta sakonik, nire burua ez dago zentratuta, ez daki nora itzuli behar duen gauetan eta nahastuta dago. Abuztuan 5 etxe eta furgoneta bat izan ditut lotarako leku. Lagunei «etxera noa» esaten nienean «nora?» galdetzen zidaten. Ni bizi naizen etxean gurasoak egoten dira abuztuan eta maleta batean hara-hona ibili ditut 3 galtza-pare, liburuak, ordenagailua eta idazten ari naizen nobela. Estresatu egin naiz eta ez dut ezer idatzi; irakurri ere, apenas. Hori bai, ondorio batera iritsi naiz irailaren batean aitona-amonek utzitako etxera itzuli naizenean: «etxe hau ez da nirea; baina nire etxea hau da».

Astebetean nobelako bi kapitulu idatzi ditut.

Agintariei oharra: konpon ezazue etxebizitzaren arazoa, gela propio bat, gela propio bat behar dugu, ez besterik. Konpon ezazue idazle guztiak bertsolari bihurtzea nahi ez baduzue behintzat.

## Tik-tak

Ettxeren batetik maleta hartu eta Miramar jauregian zabaldu nuen behin. Ikastaroak amaitutakoan furgonetara joan nintzen entzundakoa buruan ordenatzera.

Edozein lan (azterketa bat, harrikoa, artikulua bat, hankak depilatzea...) denbora jakin baten pean egiteko sekretuez aritu zen Andoni Egaña EHUKo Udako Ikastaroetan.

Bertsolaritzari buruz ari zen, jakina. 30 segundotan ideia polit bat aurkitu, formulatu eta elegantziaz ahoratu beharraz. Baina denboraren zama ez da bertsolariaren patriketan bakarrik pilatzen: ezarritako epeek beste pisatzen dute

nork bere buruari jarritakoek. Azterketa bat egiten ari den ikasleari ordubete eman diote, baina harrikoa egiten ari denak 10 minutu ematen dizkio bere buruari. Artikulugileari epe-muga jarri diote baina, horretaz gain, agendan apuntatuta dituen beste lan guztiak gainbegiratu eta «artikulua idazteko 2 ordu dauzkat» deliberatuko du.

Idazleek ere (buhameenek ere bai) ordulariak dauzkate belarrietan. Tik-tak-tik-tak. Inoiz sariketaren bateko oinarrietan zehazturiko epeen menpe daude. Askotan, merkatuaren menpe (*Durangorako bukatuko duzu?*). Eta halako presiorik ez dutenean estresatu egiten dira asko, eta beren buruari epeak jartzen hasten. Urteetan buruan eta zirriborroetan bueltaka darabilten eleberriak nekatu egiten dituelako (denbora hautsa bezala itsasten baita paperen gainean); beste zerbait idazten hasteko gogoia dutelako; argitaratu gabe luzaz egonez gero ahaztuko duten beldurrez (idazle batek kontatu zidan izan zuela garai bat egunkariak goitik behera arakatzen zituena, bere izenaren bila)... Eta hala erakutsi digutelako: gauzak hasi eta bukatu egin behar dira. Gauzak ez bukatzea porrota da. Horregatik, bistako amaierarik ez duten proiektuak karga bilakatzen dira, amaieran argirik ez duten tunelek beldurra ematen duten arrazoi berberetatik.

Baina azaldu zuen Oteitzak: batzuetan, tunelean zoaz, argia ikusten duzu... eta kontrako noranzkoan datorren beste tren bat da.

Beraz, zer da denbora? Eusten gaituen soka ala lepoan korapilatzen zaiguna? Orena, zalantzarik gabe, saihestu ezineko elementu hori gure mesederako erabiltzea litzateke eta, horretarako, ezinbestekoa da denboraren kudeaketa egokia. Arazo bakarra dago, Egañaren hitzetan: «denboraren nozioa edukitzea zailagoa da gaur egun, kudeaketarena edukitzea baino».

## Lau urrats

Dena den, lau urratsetara ekarri zuen denbora norbere probetxurako erabili ahal izateko sistema. Literaturaz idaztea egokitu zaidanez, hona, idazle blokeatuarentzako lau urrats:

1. «Ez ito arazo bat daukazula zeure buruari errepikatuz. Ahaztu arazoa eta hasi konponbidea pentsatzen» (beste era batera esanda, denboran etorkizuna baino ez zaigu axola).

2. «Asmatu zure protokoloak eta funtzionatzen dutela sinetsi». Esaterako, Andoni oso goiz esnatzen da, saioa hasi baino 3 ordu lehenago, gutxienez. Gero, egunkariak irakurtzen ditu. Etxetik irten aurretik kafea hartzen du eta Zarauztik irten baino lehen, herriaren irteerako bi tabernetako batean, beste kafe bat, Rosliak lagunduta (beste era batera esanda, engainatu zure burua, sinetsi denbora zeuk kontrolatzen duzula, pauso bakoitza egin behar den momentuan egiten ari zarela eta zorteduna zarela eraginkortasunaren sekretua zeuk —eta ez beste inork— aurkitu duzulako).

Beraz, garrantzitsua da aukeratzea: zerk inspiratzen zaitu gehiago, tinta urdinak ala beltzak? Eskuz ala ordenagailuz idazteak? Goizean goiz ala gaueko ordu txikietan? Etxeko idazmahaian ala itsasoari begira dagoen terraza batean? Gela ilun batean ala kalera ematen duten leiho zabalak dituen batean? Zer arroparekin sentitzen zara erosoan? Pijama jantzita idatz dezakezu ala kaleko arropak behar dituzu soinean? Eleberriarekin jarraitu aurretik ordura arte idatzitakoa irakurtzea komeni zaizu ala hutsetik abiatzea hobe? Zenbatero komeni zaizu atsedenaldiak egitea? Zenbat kafe behar duzu 2 folio idazteko?

Bai, txorakeria dirudi, baina ez dut ezagutzen bere ohiturak aldatuz gero urduri jartzen ez den sortzailerik.

3. «Zokomiatu buruan daukazuna. Ez duzu sortuko ezer, ez daukazunik» (beste era batera esanda, ez zara sortzailea, bilatzailea zara: Google). Idazle ona bilatzaile eta hautatzaille ona da, bere buruan garia eta lastoa bereizten dakiena, irudi eta ideia indartsuak detektatzeko gai dena.

4. «Artxibatu esperientziak, hurrengoan ere baliagarri izan daitezen» (beste era batera esanda: fitxategia/gorde honela/dokumentuak/onartu). Batzuetan bizitzaren pelikulan «pause» tekla sakatzea komeni da, eta esatea: hau gorde egingo dut hurrengoan, arazo bat daukadanean, konponbidetan zentratu, protokoloa bete, eta burua zokomiatzen hasten naizenean topatu ahal izateko.

Animo.

## Hienaren irribarrea

Ikasgela batean irakaslea ugaztunei buruzko lezioa ematen ari omen zen, hain zuzen hienari buruz hizketan: «hiena Afrikako hegoaldean bizi da, haragi ustela jaten du eta urtean behin ugaltzen da». Ikasle batek eskua altxatu, eta hala esan omen zion: «eta hain urruti bizi bada, urtean behin baino ez badu larrutan egiten eta kaka jaten badu... zeri arraio egiten dio barre hienak?».

Txiste zahar horrekin hasi zuen Isabel Franc idazle kataluniarrak literatura eta umore lesbikoari buruzko hitzaldia. «Umore lesbikoa?», galdetu zidan alboko ikasleak, «orain lesbianek ere umore propioa al dute?». Minduta sentitu zen, itxuraz, berak ezagutzen ez zuen umore mota bat, beretzat egina ez zen umore mota bat bazegoela jakitean. Gizon askori ere gauza bera gertatzen zaie «emakumeen umorea» entzuten dutenean. Jakina, gizonezkoen umorea (eta arazoak, eta kezkek, eta desioak, eta asmoak...) unibertsala dela erakutsi baitzaigu, baina zer da umorea nork bere kontraesanei eta minei aurre egiteko tresna ez bada? Munduan daukagun posizioa eta gure jarrerak onartzeko behar dugu umorea eta, posizio guztiak ezberdinak direnez, nork bere botika behar. Nori egiten diete barre gizonek? Emakumei, etorkinei, behartsuei, homosexualiei, beren sexualitate nahi baino pobreagoari... Eta emakumeek? Beren buruei, maitasun harremanei, gizonezkoiei... Eta lesbianek? Emakume heterosexualiei, gizonei... Eta pobreek? Aberatsei, beren egoera latzari... Eta hienak?

Isabel Francek jendearen umorea neurtzeko test bat daukela kontatu zigun. Jende ugari biltzen den solasaldietan, harira datorrenean zera esaten omen du: «ba nik etxean nire altuerako bonsai bat daukat». Hiru motatako erreakzioak dauzka erregistratuta:

1. Barre egiten dutenak.
2. (idazleak gustukoen dituenak) Harridura aurpegia jarri eta «benetan????», esaten dutenak.
3. «Ba, orduan ez da bonsaia», erantzuten dutenak.

Bat eta bi taldeetako jendea interesatzen zaio Isabeli, eta niri ere bai. «Bizimodu zaila izan nahi baduzu izan zaitez emakume, lesbiana eta idazle» bukatu zuen hitzaldia, «orduan ulertuko duzu hiena ez dela urruti bizi, bere herrian baizik; urtean behin larrua jotzen duenean ikaragarri gozatzten duela; eta kakak... kakak zapore ona duela. Akaso zue-tako inork probatu du?».¶

## Demolinguistika

2006. urtea oparoa izan da datu demolinguistikoei dago-kienez. 2008ko bigarren erdian sartuta 2006ko datuei buruz hitz egiten hastea deigarria izan daiteke, baina tira, 2008an baino lehenago 2006ko datuei buruz zerbait adieraztea ezinezkoa zen, datuak ez baitziren publikoak. Ez pentsa datuak ezkutuan gorde direnik denbora batez, ez, datu demolinguistikoak eskuratzea ez da lan batere erraza.

Inkestak prestatu behar dira eta egoki prestatu behar ere; hurrengo urteetan inkesten artean konparaketak egin nahi baditugu komeni da galderak ez aldatzea. Beraz, ondo pentsatu behar dira hasierako galderak, eta horretarako guk ere hainbat galderari erantzun behar diogu: bakarrik gaur egungo hizkuntza gaitasunari buruzko galderak egingo dira? Ama hizkuntzari buruzkoak ere sartuko dira? Eta erabilerari buruz zer? Zerbait galdetuko da? Eta nola? Galdera horiei guztiei erantzun behar zaie eta horrek bere denbora eskatzen du.

Gero, ikerketa zein eremu geografiko-sozialean, beraz zein «mundu» edo «unibertso»tan, burutuko dugun erabaki behar da, eta horren arabera gutxieneko adierazgarritasuna eta fidagarritasuna izango duten laginak zein diren zehaztu behar da. Beraz, horrelako galderei erantzun behar zaie: EAE bakarrik aztertuko da? Nafarroa eta Iparraldea ere bai? Herriak bakarrik? Hiriak bakarrik? Zein adin talde?...

Hurrengo pausoa inkesta egitea da, eta horretarako erabaki behar da —normalean ikerketaren prestaketa lanaren lehenengo pausoa erabakitzen da— datuak nola jasoko diren: inkesta bat betearazi? Telefonoz? Kanean jendeari eska-

tuta? Datuak behatuak izango dira (Euskararen kale neurketen kasuan bezala)?...

Datuak jaso ondoren, horien tratamendua egin behar da: galdetegiak jaso, galdetegiaren hustuketa egin, alegia: ditugun datu guztiak datu base batean sartu ikertzen dugun «mundu» edo «unibertso»ari buruzko datu guztiak aztertu ahal izateko. Gero datuen gutxienezko irakurketa bat egin behar da. Izan ere, datu hotzak ematea ez da izaten egokiena, bestela datuak jasotzen dituen galduta egoten da. Bere iritzi propioa izateko lehenago datuei buruzko gutxienezko informazioa izan behar du datuen jasotzaileak ere.

Beraz, lehen aipatu dudana moduan, 2008an datu anitz jaso ditugu Euskal Herriko 2006ko egoera demologikoa-ri buruz, eta duela gutxi datu horiek guztiak publikoak egin dira.

Hasteko IV. Inkesta Soziologikoa datuak argitaratu ziren ekainean. Inkesta horretan informazio anitz ematen da Euskal Herri osoari buruz: biztanleriaren hizkuntza gaitasuna, euskararen transmisioa eta euskararen erabilera. Euskarari buruzko jarrerak gutxi agertzen dira eta pena da, baina beharbada gai horri buruzko informazioa ikerketa kualitatiboaren bidez hobeto jasotzen da.

Beste iturri oso garrantzitsua dugu Eustatek ematen duena bere zentsuaren eta etxebizitzaren inkestaren bitartez. Kasu honetan informazioa EAeri buruzkoa bakarrik da, eta euskararen gaitasuna eta erabilera kontuan hartzen dira. Datuak ez dira Inkesta Soziologikoa bezain xehatuak.

Hirugarren iturri bat aipatuko dut hemen, ezinbestekoa iruditzen baitzait inkesta bitartez jaso diren datuak datu behatuekin konparatzea, eta datu horiek Euskararen Kale Neurketa orokorrak ematen dizkigu. Soziologia Klusterrak jasotzen zituen datu horiek 2007ko irailean *Bat* soziologia aldizkarian argitaratu ziren, baina 2006 urteari buruzko datuak dira, eta denok dakigunez, ikerketa horretan erabilerari buruzko datu horiek Euskal Herri osoari dagozkie.

## IV. Inkesta Soziolinguistikoa

Datu aipagarrienak aurkeztuko ditugu hemen, besterik gabe, Eusko Jaurlaritzaren web-orrian inkesta osoa erraz eskuratu baitaiteke. 2006ko datuen arabera, Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %25,7 elebiduna zen, %15,4 elebidun hartzailea eta %58,9 erdaldun elebakarra. Euskal Autonomia Erkidegoa zen herrialde euskaldunena, bertan biztanleen %30,1 elebiduna zen, %18,3 elebidun hartzailea eta %51,5 erdaldun elebakarra. 2006ko datuen arabera 557.600 elebidun zeuden, 1991n baino 138.400 gehiago.

Iparraldean gainbehera aurrera doa, ordea. Bertan biztanleriaren %22,5 zen elebiduna, %8,6 elebidun hartzailea eta %68,9 erdaldun elebakarra. Hamar urtetan 4.400 elebidun galdu dira, eta etorkizunari begira 16-24 urtekoen artean gorakada txikia jazo den arren, elebidunen %64k 50 urte baino gehiago ditu; horrek adierazten digu gainbeherak jarraituko duela ez bada azken momentuko aldaketa soziolinguistikoa handia gertatzen.

Nafarroari dagokionez, biztanleen %11,1 zen elebiduna, %7,6 elebidun hartzailea eta %81,3 erdaldun elebakarra. Beraz, ezagutzari dagokionez, herrialde erdaldunena zen; baina bilakaerari dagokionez, elebidunen kopurua gora doa Nafarroan, Iparraldean ez bezala: 1991n baino 16.200 elebidun gehiago zegoen 2006an, 56.400 izanik elebidunen kopurua.

Datu horien arabera, Euskal Herrian bizi diren euskaldunak, 16 urte baino gehiago dituztenak, 665.800 dira. Gehien-go handi bat EAEn bizi da (%83,7) eta zati txikiago bat Nafarroan (%8,5) eta Iparraldean (%7,8).

### Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsua

Eustaten zentsuan bi urte baino gehiagoko biztanleria hartzen da kontuan; Inkesta Soziolinguistikoa ikastoletan eta eredu elebidunetan ikasten ari diren gazteak hartzen dira kontuan. Datuak, aldiz, EAEn buruz bakarrik ditugu.



2006an 774.894 euskaldunak ziren, 458.939 ia euskaldunak eta 838.708 erdaldun elebakarrak. Inkesta Soziolinguistikoa-ren eta Eustaten datuak konparatzen baditugu, EAEn, bi eta hamasei urte bitartekoen adin taldean 217.294 euskaldun da-goela suposa genezake. Dena den, hobeto aztertu beharko li-zateke zer motatako hiztuna kontsideratzen den euskalduna Eustaten arabera eta zer den elebidun bat Inkesta Soziolin-guistikoa-ren arabera. Azterketa hori egitea, aldiz, beste ezta-baida batean sartzea litzateke, oso interesgarria baina aurkez-pen honen mugetatik kanpo aurkitzen dena. Gai horri bu-ruzko bibliografia izateko nirekin harremanetan jartzea bai-no ez du *Jakin* aldizkariaren irakurleak, gainera pozik saiatu-ko nintzateke bere zalantzak berarekin eztabaidatzen.

Eustateko datuen arabera, 2001etik 2006ra 118.000 biztan-le gehitu dira euskaldunen kopuruan eta ehunekotan lau puntu irabazi dira. Gainera, azken data horretan biztanle-riaren %59,5ek zerbait bazekien euskaraz. «Zerbait» hori zer den zehaztea, aldiz, zaila da, eta egoera soziolinguistiko-an eragiteko eta euskararen erabilera sustatzeko eraginkorra ote den jakitea zailagoa...

## Euskararen erabilera

Eta erabilerari dagokionez, Eustateko datuen arabera EAE-ko zazpi biztanletik batek euskaraz bakarrik egiten du etxean; Inkesta Soziolinguistikoa-ren arabera, aldiz, EAEko biztanle-riaren %18,6k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehia-go. Bi datuak ezberdinak dira noski, konparatzen duten uni-bertsoa ezberdina baita; baina kontuan hartzeko moduko in-formazioa ematen dute eta gainera ez dira kontrajarriak. Da-tu horiek kale neurketetan behatutako kopuruekin konpara-tzen baditugu ere oso koherenteak dira. 2006ko neurketaren arabera, Gipuzkoako elkarrizketen %32,7 euskaraz egiten zen, Bizkaikoen %10,4 eta Arabakoen %4,7.

Euskal Herriko datu orokorrak aztertzen baditugu, bi iturri bakarrik izango ditugu: Inkesta Soziolinguistikoa eta Euska-

raren Kale Neurketaren emaitzak. IV. Inkesta Soziolinguistikoan indize bat sortu dute euskararen erabilera neurtzeko. Indizea zehazteko erabileraren eremu soziofuntzional ezberdinak hartu dituzte kontuan: etxeko erabilera, kaleko erabilera eta formalagoak diren erabilerak. Eremu soziofuntzional bakoitzeko datuak edukitzea interesgarria izango litzateke konparaketak egiteko, baina datu horiek ez dira argitaratu.

Indize horren arabera, Euskal Herriko biztanleriaren %74,9k erdara bat baino ez du erabiltzen; %9,8k erdara euskara baino gehiago erabiltzen du; %5,4k euskara eta erdara maila berean eta %9,9k euskara erdara baino gehiago. Euskara bakarrik erabiltzen duenik ez dago momentu honetan, ez behintzat hamasei urte baino gehiagokoen artean, beti ere inkestaren arabera. Datu horiek Euskararen Kale Neurketan behatutako datuekin bat datoz neurri handi batean; izan ere, kale neurketetan kalean erabiltzen den hizkuntza baino ez da jasotzen, eta horregatik IV. Inkestaren datuak baino datu altuagoak jasotzea espero zitekeen eta hala izan zen: 2006ko kale neurketaren arabera Euskal Herriko erabilera indizea 14,2 izan baitzen.

Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa modu orokorrean aztertzea ez da modurik zientifikoena. Izan ere, eremuen eta lurraldeen arabera alde handiak daude, eta leku batean muturreko egoera soziolinguistikoa euskararen alde jasotzen bada eta beste batean kontrakoa jasotzen bada, alegia muturreko egoera bat baina erdararen alde, datuak batzen ditugunean eta batez bestekoak egiterakoan, datuak nahasten dira eta media bat lortzen da, adierazgarria ez den media bat ordea.

Horrela, lurraldeen arabera alde handiak daudela erraz ikusten dugu hemen erabili ditugun hiru iturriak kontuan hartzen baditugu. Adibide pare bat baino ez dugu emango hemen, ez baitugu gehiegi luzatzeko aukerarik.

Euskararen Kale Neurketaren datuen arabera, adibidez, Iparraldeko euskararen erabilera, elkarrizketen ehunekoari dagokionez beti ere, %4,6 zen; hurrengo herrialde erdaldu-

na Araba genuen %4,7ko emaitzarekin, ondoren Nafarroa %6,6ko kopuruarekin, Bizkaia %10,4koarekin eta Gipuzkoa %32,7ko emaitzarekin.

IV. Inkesta Soziolinguistikoan erabiltzen den indizearen arabera, sailkapena zertxobait aldatuta dago eta Iparraldea Nafarroaren aurretik jartzen da, baina gutxigatik. Interesgarria litzateke bi iturrien arteko aldea jarrerengatik gertatzen den jakitea. Inkestaren arabera, EAeko biztanleriaren %12,5ek euskara erdara baino gehiago erabiltzen du eta %6,1ek euskara erdara bezainbeste. Iparraldean, aldiz, biztanleriaren %3,6k adierazten du euskara erdara baino gehiago erabiltzen duela eta %6,7k euskara erdara beste. Nafarroan, aldiz, 3,2k adierazten du euskara erdara baino gehiago erabiltzen duela eta 2,4k bi hizkuntzak berdinduz erabiltzen dituela.

Herrialdeen arteko emaitzak oso ezberdinak dira, beraz; baina, gainera, herrialdeen barruan ere ezberdintasun handiak daude, eta Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa benetan ezagutzeko ezberdintasun horiek guztiak kontuan hartu beharko liriateke. Eta ezberdintasun geografikoak ez ezik, beste hainbat aldagai ere aztertu beharko liriateke: adin taldeak, generoa, maila soziala...

Informazio anitz dugu, eta informazio hori guztia egoki aztertzeko eta irensteko denbora eta indarra beharko dugu. Has gaitezen denok ahaleginean gure burua hobeto ezagutzeko gauza garen ikusteko; izan ere, etorkizunerako ditugun nahietarantz hurbiltzeko gaurko egoeraren kudeaketa egokia egin behar dugu, eta horretarako errealitatea, dagoena eta duguna ezagutzea ezinbestekoa da.¶

## Noiz arte IT departamentuak enpresetan?

2008ko otsailaren 12an, Eroskik inauguratu zuen Elorrion Euskal Herriko gunerik handiena datuak prozesatzeko. Eraikin bat da 2.500 metro koadrokoa, Geminis izenekoa, eta bertan dago areto bat, 850 metro koadrokoa, ekipo informatikoz beteta, zerbitzatzeko Eroskiren 3.000 denda, neurri guztietakoak. *El Correo* egunkariak biharamunean zioenez, Geminis kostatu zitzaion Eroskiri zortzi milioi euro, eta bertan lanean ari dira 10 eta 15 pertsona artean.

Banaketa enpresa bat izanda, zer dela-eta xahutu ditu Eroskik zortzi milioi euro berea ez den negozio batean, informatikan? Bere esku izan nahi duelako bere 3.000 dendek uneoro sortzen duten informazioa: salerosketak, eskariak... Eta, oraingoz, beste inork eskaintzen ez diolako zerbitzu hori.

Mende bat lehenago, elektrizitatea zabaldu zenean gure enpresetara, Unión Cerrajera de Mondragón (UCEM) enpresak antzeko zerbait egin zuen: bere esku hartu argindarra sortzea, ziurtatzeko Mondragoeko eta Bergarako lantegiak ez zirela geldituko, eta urtegi sare bat antolatu zuen Oñati inguruko mendietan, Aitzgain, Jaturabe eta Aloña inguruan, eta urtegi horietatik ura batzen hasi zen Olateko indarretxean.

UCEMen negozioa ez zen argindarra, baina garai hartan ez zuen beste erremediorik izan, munduko beste enpresa gehienek bezala, bere lantegiek behar zuten argindarra sortzea baino, horiek zekartzan gastu guztiekin. Harik eta enpresa batzuk agertu ziren arte argindarra modu fidagarrian eta nahi adina eskaintzen zutenak. Orduan, hasierako beldurrak uxatu (zelan utziko dugu argindarra beste enpresa baten esku, hori denean gure jardueraren motor ezinbeste-

koa?), Olateko indarretxea Oñatiko Udalari saldu eta argindarra zuzenean erosten hasi zitzaion Iberduero konpainiari.

Hori baina, gertatu zen Iberduero bezalako konpainiak hasi zirenean argindarra sortzen, kopuru izugarrietan eta inork baino merkeago, halako eran non enpresa bakoitzak ezin zuen berdindu. Gaur egun, inori ez zaio bururatzen enpresa barruan departamentu oso bat antolatzea argindarra sortzeko.

Teknologia berriekin, ostera, ez dugu berdin jokutzen. Eroskik bezala, munduko enpresa handi guztiek dute departamentu bat, askotan oso garestia, teknologia berriak kudeatzeko.

Baina gauzak aldatzen hasi dira. Sortu dira zenbait enpresa (Google, Amazon, Salesforce.com...) softwarea eta soluzio informatikoak neurrira eskaintzen dituztenak... sarean, nork bere aplikazioak erosten eta eguneratzen ibili beharrik barik. Urte gutxi barru, sareko eskaintza hobetzen denean eta gure enpresek beldurra galtzen dutenean (zelan utziko diogu beste enpresa bati gure informazioa erabiltzen?) Eroskik saretik erosiko ditu behar dituen informatika zerbitzuak, aplikazioak eta sareak. Eta hori egiten duenean, akaso Elorrioko Udalari saldu nahi izango dio Geminis erraldoia.

## Opari ekonomia

Sei urtean lehen aldiz, Sustatu lanean izan da abuztuko oporretan. Hasier Etxeberriak horrela eskatuta («Zer egin ez badakizue, antolatu lehiaketa bat, edo kontratatu beltzen bat orriari jira eta bira emateko noizean behin. Nahi duzue, baina egin zerbait, orain artekoaz desberdina dena. Jaungoikoaren izenean»), Sustatuk egokitu egin zuen blogaren azala —«Jamaika ikusteko...» atalari toki nagusia emanda—, eta aukera eman zien irakurleei eurek betetzeko atal hori, horretarako del.icio.us eta bildu.net aplikazioak erabilia.

Kontua da Sustatuko arduradunak oporretara joan zirela, baina Sustatuk egunean bizpahiru albiste jaso zituela, de-

nen pozerako. Arduradunek egitura ipini zuten eta irakurleek edukia, musu truk.

Fenomeno horri *the gift economy* deitzen zaio, opari ekonomia, eta sutautsa bezala zabaltzen ari da informazioaren aroan. YouTubek, adibidez, xemeikorik ere ez die ordaintzen beren bideoak webgune horretan eskegitzen dituztenei. Horien produkzio kostuak erabiltzaileen bizkar doaz; eurak dira zuzendariak, ekoizleak, idazleak eta aktoreak. Bideo horiek igotzen dituztenean YouTubera, oparitu egiten diete beren lana webguneko jabeei. Horregatik, 2006ko urriaren 9an, Googlek erosi zuenean YouTube 1.650 milioi dolar ordainduta, webguneko sortzaileek eskerrak eman zizkieten erabiltzaileei, propio grabatutako bideo batean, haiek egin baitzituzten aberats.

2005ean, bestalde, Yahook erosi zuenean Flickr argazki zerbitzua, horrek 10 lagun baino ez zituen nominan, baina milioika erabiltzaile edukiak igotzen etengabe, beroriek antolatzen eta zabaltzen.

Zabald.com ere modu horretan dabil. Pertsona bat arduratzen da mantentze zerbitzuaz, baina gero erabiltzaileek aukeratzen dituzte albisteak, interesaren arabera. Eta hori ere musu truk egiten dute, nahi dutelako.

Opari ekonomia bedeinkazio bat izan daiteke sareko hedabideentzat, baina arazo handi bat da hedabide tradizionalentzat. Zertarako ordaindu profesional bati, amateur bat pozik izango bada lan hori doan egiten?

Sustatu eta Zabald.com-en egitura ezin txikiagoa da, eta bertan egindako publizitateak aise ordain litzake gastuak. *Berria* egunkariak, ostera, ezingo lioke erantzun Hasier Etxeberriaren eskariari, ez behintzat paperezko edizioan.

## Hodei informatikoa

Aspaldian izan dut gogoan Sun Microsystems enpresako buru batek 90eko hamarraldian esana, alegia, «sarea dela ordenagailua», baina entzun nuenetik pentsatu izan dut

oraindik goizegi zela horretarako. Ordea, uda honetan sartu nintzenean Apple enpresaren webgunean ikusteko zer zen MobileMe zerbitzua, bideoa ikusiaz batera, pentsatu nuen gure artean dela *cloud computing* delakoa, hodei informatikoa.

MobileMe hodei informatikoaren bertsio bat da, Applen produktuetara moldatua. Bertan, posta elektronikoa, agenda eta egutegia sinkronizatzen dira erabiltzaileak dituen aparailuetan (kasu horretan mac bat, PC bat eta iPhone bat), Applek nonbait, hodei batean, dituen zerbitzariari esker.

Hala ere, hodei informatikoa hori baino gehiago da, zeren ordenagailu bat osatzen duten zatiak —disko gogorra informazioa gordetzeko, mikrotxipak informazioa prozesatzeko, aplikazioak informazioa manipulatzeko— sakabanatuta egon daitezke munduan zehar, baina integratuta Interneti esker, eta nahi dutenen artean partekatuta.

Gmail edo Hotmail irekitzen ditugunean gure posta elektronikoa kudeatzeko, hodei informatikoa erabiltzen ari gara, aplikazio horiek gure ordenagailuetatik kanpo daudelako. Flickr edo Picasa aukeratzen ditugunean gure argazkiak antolatzeko, hodei informatikoa erabiltzen ari gara, aplikazio horiek ere hodei batean daudelako, auskalo zer zerbitzari ostatu hartuta. Bloglines edo Google Reader hautatzen ditugunean gure sareko irakurgaiak irakurtzeko, hodei informatikoa ari gara erabiltzen, informazio batzaile horiek ere gure ordenagailuen mugetatik harago daudelako, zerbitzari batzuetan. Eta berdin gertatzen da irekitzen dugunean bloga, Skype, Tagzania, Google Maps, Twitter edo Web 2.0 osatzen duten milaka aplikazioak, Web 2.0 bera oinarrituta baitago hodei informatikoan.

Eric Schmidt Googleko lehendakari eta garai batean Sun enpresako kideak deitzen dio «ordenagailua hodeian», eta horrekin esan nahi du gure jarduera digitala Interneten gertatzen dela, edozein gailu darabilgula ere, dela ordenagailu bat, dela Blackberry bat, dela kontsola bat edo dela sakelako telefono bat. Izan ere, horixe baita azken urteotako alda-

ketarik handienetako bat: ordenagailua uztartu egin da beste gailu horiekin, Interneti esker.

Aldaketa hori ez da gertatu gauetik goizera, gu lotan geundela, baizik eta etorri da oharkabean, gu lanean ari girela. Izana duen guztiak izena behar-eta, orain badakigu hodei informatikoa gure artean dela, eta hobetu besterik ez dela egingo datozen urteetan.

## Internet bidezko bikoteak

2007an 4.400.000 pertsona ezkondu ziren AEBetan. Horietatik 100.000k Interneten ezagutu zuten elkar. Garbi dago gaur egun ligatzeko Internet erabiltzea ez dela tipo bitxi batzuen kontua, sarearen hasieran jotzen zen moduan. Orduan neskazahar edo mutilzahar erremedio bakotzat jotzen ziren sarea erabiltzen zutenak horretarako, moldakaitzak edo erloju biologikoa ate joka zutenak.

Gaur, ostera, amerikarren %61ek ez du jotzen sarean ligatzea etsi-etsian egindako ekintzatzat. Halaxe dio *The Pew Internet and American Life* proiektuak. Horren arabera, amerikarren ia erdiak uste du Internet bide egokia dela jendea ezagutzeko. Hori dela-eta, lau amerikar ezkongabetatik batek erabiltzen ditu sarean dauden 1.000tik gora webgune bereziak neskatan edo mutiletan egiteko.

Jendea albo batera uzten ari da lege zaharreko bideak bikotekideak bilatzeko —eliza, erakundeak edo zelestinak—, eta beste batzuk ari da erabiltzen, hala nola lantokia eta Internet. Azken horrek leku asko ditu horretarako, esate baterako Match.com eta eHarmony, baina baita gune bereziagoak ere, DateAGolfer kasu, non golf jokalaria bila daitezkeen, Animal Attraction, animaliak maite dituztenentzat edo Positive Singles, non elkartzen baitira ezkongabe seropositiboak.

Eta ez pentsa gizartearen behe mailako jendea ari dela Interneten bikote bila, AEBetan behintzat, ez. Gehienak ondo kokatuta daude gizartean, lan onak eta etxeak dituzte, hirietan bizi dira eta alderdi demokratari ematen diote botoa.



Euskal Herrian oso bestelakoak garela? Baliteke, baina us-  
te baino gutxiago seguruenik. Abuztuan, gehienok oportre-  
tan ginela, aspaldi ikusi bako bikote bat ikusi genuen Elo-  
rrioko plazan. Mutila Elorrion jaioa da; neska, berriz, Uru-  
guain. Orain sei bat urte Internet bidez ezagutu zuten elkar.  
Mutila eliza katolikoan bataiatua zen; neska, berriz, juduan.  
Hala ere, ezkondu egin ziren, eta gaur egun Urugain bizi di-  
ra, bi seme-alabarekin. Gure bi lagunak ez dira salbuespena:  
Interneten sortutako bikote gero eta gehiagotan nahastu  
egiten baitira nazionalitatea, erlijioa eta etnikotasuna.

Hala ere, Iparragirrerren leloa ausartegizat jotzen dutenek  
—«Eman ta zabal zazu munduan fruitua»—, aukera dute  
Kaixomaitia.com webgunean lagun euskalduna egiteko,  
webgune horrek horixe eskaintzen baitu abiapuntu legez:  
hurbiltasuna eta euskara.¶



## Globalizazioaren ajeak

Ia oharkabean igaro da kontua, eta bitxia da, udako albiste-eskasiak gaia sakon jorratzeko aukera ematen zuelako; bitxia da, era berean, nazioarteko ekonomian berebiziko garrantzia daukalako (altermundialistek ez dute garai batean besteko zaratarik ateratzen, argi dago). Munduko Merkataritza Erakundeak (MME) uztail amaieran Genevan eginiko bilera luzeari buruz (bederatzi egun) ari naiz. Erakunde horretako zuzendari orokor Pascal Lamyk abuztu hondarrean ez zuen artean etsi eta zera esaten ziharduen (hori esatea tokatzen zitzaion, bistan denez): nazioarteko merkataritzan eta hainbat zerbitzuren liberalizazioan koxka bat gehiago estutu daitekeela eta oraindik badagoela urtea amaitu baino lehen akordioaren bat lortzeko aukerarik.

Egitateak, ordea, beste batzuk dira: Dohako Erronda deiturikoa zarratu guran zazpi urte eman eta gero, azkenean Genevan ez da adostasunik izan, besteak beste, herrialde aberastuen eta pobretuen arteko tirabirak geroz eta nabarmenagoak direlako. Egin kontu MMEko 153 herrialdeen hiru laurdena sartzan dela *pobretu* kategoriarean (termino markatua da *pobretu*, bai, baina ez ordea *garapen bidean den herrialde* baino markatuago) eta apurka-apurka antolatzen (G-33 izenekoaren inguruan batik bat) eta ahots propioz berbetan hasi direla. Hona mahai gainean jarri dituzten gaietako batzuk: zein baldintzapean zabaldu behar dira industria- eta nekazaritza-merkatuak? Merkataritzak estatuaren esku-hartzerik izan behar ez badu, zergatik babesten dituzte herrialde aberastuek euren produktuak?

Hortxe dago gakoa, egon ere: mugasariak kentzea eta estatuaren esku-hartzea gutxitu eta ekonomia liberalizatzea,

horixe eskatzen zaie MMEko herrialde pobretuei, euren merkatuak norberak ekoiztako produktuz blaitze aldera; haatik, haien produktuak norberaren merkatura ate-joka datozenean, orduan bai *laissez faire*-ak bai ordura arteko premisa sakratu guztiak dantzan hasten dira. Hori argi ikusi zen Txina MMEn sartu ostean (hango produktuak samaldaka ailegatzen hasi zirenean) eta argi geratu da berriro uda honetako negoziazioetan.

Argigarria da, halaber, globalizazio prozesuarekin gertatzen ari dena: politikoki, ez da erakunde global sinesgarririk egituratzen asmatu (Irakeko inbasio garaian beste behin geratu zen agerian NBEren ezintasuna; Europan bertan, bestalde, Konstituzioa hitzartu ezinik gabiltza); ekonomiari dago-kionez, arestian aipatu ditugu korapilo nagusiak (azken berriak adituta, gainera, nekez sartuko da Errusia MMEn); arlo militarari gagozkiola, azkenik, hor bai, hor eraginkorra da Mendebaldeak gidaturiko proiektu globalizatzailea: Afganistanen, esate baterako (Philip Alston NBEren esatari bereziak emaniko datuak dira), 2008ko estreinako lau hiletan bakarrik 200 zibiletik gora hil dituzte NATOko osteek, eta ondorengo hiletan ere aldra galantak zendu dira (akabatu dituzte) Mendebaldeko zibilizazioa globalizatzeke misioan.

## Europa, Europa

Agirrez geroztiko EAJren ametsa izan da, eta baita Enbatako lagunena ere. Ilustraziozale askok, halaber, bera izan du ipar: estatuen boterea gutxitu eta kontinente batuaren egitasmoa gorpuzteaz gain, AEBena ez bezalako garapen-eredua eskaini behar zuen: orekatuagoa, sozialagoa, kultuagoa.

Lehen ere bazegoen arrazoirik horiek guztiak apaingarri huts zirela pentsatu eta prozesuaren funtsezko eragilea merkatu zabalagoen bilaketa baino ez zela ondorioztatzeko, baina Europako Batasunaren azken erabakiek ameslarienaren ametsa ere zapuzteko balio izan dute: muturreko liberalizazioa xede duen Bolkestein zuzentaraua, lan astea 65 ordura

luzatzeko proposamena, paperik gabeko etorkinak espetxe-ratu eta kanporatzeko *Itzulera direktiba*, Europako Erkidegoen Justizia Epaitegiak harturiko askatasun sindikalaren aurkako epaiak... Eta, itxura guztien arabera, hau hasi baino ez da egin...

## Klimaren ekonomia

Gatozen berriro MMEren kontuetara eta aipa dezagun Pernandoren egia bat: zenbait hamarkada buru-belarri nekazaritza-merkatuak liberalizatzen eman ostean, ez MMEren ez bere aitzindarien politikak ez dute lortu gosea ezabatzerik, kontrakoa baizik: herrien elikadura-subiranotasuna nabarmen murriztu dute, herri pobretuak nekazaritza-arloko multinazionalen eta inportazioen mende jarrita.

MMEren jardunak ingurumenari dagokionez ere eragiten du zehar-kalterik: erakunde horrek Uruguaiako Errondan harturiko konpromisoak praktikan jarri izanaren ondorioz, salgaien garraioa %70 hazi da munduan 1992az geroztik. Gauza jakina da, bestalde, garraio hori erregai fosiletan oinarrituta dagoela eta erregaiok direla eguratsera botatako CO<sub>2</sub>aren igorle nagusietakoak.

Ecologistas en Acción taldeko Tom Kucharz-i uda honetan irakurri diodanaren arabera, batez besteko tenperatura globala 2°C baino gehiago igo ez dadin —hori gertatuz gero hondamendi klimatikoa izango bide baikenuke—, nazioarteko merkataritza-sistema goitik behera aldatu beharra dago, eta horrek, besteak beste, Dohako irizpideak bertan behera uztea eskatzen du.

Klima aldaketari loturik, University of California-k zuzendutako ikerketa bat ere hizpide izan da uda honetan: berorren arabera, 1980az geroztik %15 gutxitu da euria Indiar Ozeanoaren mendebaldeko lurretan; gutxitze horrek, noski, zuzen-zuzenean eragin die herrialde askori, euren nekazaritzarentzat euria funtsezko elementua delako. Ikerketak

dioenez, egungo joerek irauten badute, 2030erako %50 haziko da bazter horietan txarto elikatutako lagunen kopurua.

Ikerketaren egileen ustez, hamarkada bakoitzean uztak %15 haztea (alderaketa argigarri bat egite aldera: pertsona bat urtero bi kilogramo loditzearen pareko, tamaina horretan haztea nekazaritza-gaitasuna) nahikoa litzateke gose diren lagunen kopurua erdira jaisteko. Helburu hori lorgarria omen da nekazaritzan diru publiko gehiago inbertituz gero. Horregatik, diote ikerlariek, datozen urteotan Afrikako hego-ekialdean txarto elikatutako umeak 9 milioi edo 42 milioi izatea «hartuko diren erabaki politikoen menpe» dago.

Prozesuak mantsoak izan ohi dira, badakigu, gauzak ez dira goizetik gauera lortzen, bai, baina gogorregi zait soa 22 urte aurrerago pausatu, bazter horietan 9 milioi lagun (kasurik onenean) txarto elikatuta ikusi eta hori aurrerapen modura hartzea (aldarrikapen kontuetan ere beherapen-sasoia bizi dugula, azken batean, 40 urtean Parisen ezinezkoa eskatzetik posible denaren laurdena eskatzera pasatu baikara)...

## Energiaren korapiloa

Globalizazio-prozesuaren ajeak gorabehera, ez dirudi hazkundearen eta merkatu zabalagoen bilaketan oinarrituriko ereduak zalantzan jartzeko gogorik dagoenik. Erregai-eskasia arazo bihurtzen ari dela? Bushen Administrazioak argi dauka (puntu horretan, funtsezko gehientsuenetan bezala, Obama bera ere bat dator harekin): zula dezagun Artic National Wildlife Refuge (ANWR), Zirkulu Artikoko natur babesgunea, guda-garaian zulo oro lubaki baita.

Gai hori hizpide duela, hara zer dioen Naomi Klein saia-keragile zorrotzak:

ANWRn zulaketak eginagatik, euron eragina ia nabaritu ere ez litzateke egingo munduko petrolio erreserbetan, eta hori ondo baino hobeto dakite zulaketen aldekoek. Darabilten argudioetako bat da horiek eginez gero prezioak jaitsi egingo liratekeela, baina merkatuaren psikoaanalisiaren oinarrituta

diote hori, ez ekonomia errealean: haien ustez, zulaketek mezua bidaliko liekete enpresaburuei, oraindik petrolio gehiago dagoela jakinaraziz, eta horrek prezioei beherantz eragingo bide lieke.

Klein, argi dago, ez da iritzi berekoa; berak dioenez, azken urteotan orain arte ukitu gabeko petrolio erreserba batzuk (Alberta-koak, Kanadan) bihurtu dira AEBen hornitzaile nagusi, baina horrek ez du merkatzerik ekarri. Zulaketak proposatzen diren bitartean, gainera, AEBetako Gobernuak bertan behera utzi ditu eguzki-energia ikertzeko hurrengo bi urteetarako egitasmo federalak.

Gurean ere bada mugimendurik, energia dela eta ez dela. Esanguratsuenetako batzuk, Petronorren ingurukoak. Gaur egun azalekoa, irudia denez funtsezko, enpresa horrek berea garbitzeari ekin dio: datozen urteotan Bizkaiko bigarren (lehenengo?) erlijio nagusiko jarraitzaileen elastikoetan agertuko da bere izena eta, horrez gain, Josu Jon Imaz du lehen-dakari berri. Hara zer dakusan Ander Iturriotzek izendapen horren atzean:

Petronorrek Koke egitasmoa gauzatzeko Madril eta Gasteizen baimenak behar ditu, eta jolas politiko horretan Imaz funtsezkoa da, oso ongi ikusten dutelako bai Madrilen, bai Euskal Herrian.

Muskizen hauts ugari harrotu duen koke plantaren egitasmo horri buruz itaunduta, hau izan zen David Hammerstein eurodiputatuaren erantzuna:

[...] argi izan behar da ikatza iragana dela; alternatibak daudenean behintzat ez litzateke ikatzik erabili behar. [...] ateratzerakoan arazoak sortzen ditu, ura kutsatzen du, basoak ere bai, eta klima aldaketa eta osasun arazoak ere aintzakotzat hartu behar dira. [...] horren orde, energiaren eraginkortasuna bilatu behar da, eta energia berriztagarrien alde egin behar da. Gainerakoan ez gara solidarioak gure planetarekin.

Haatik, egungo krisia aitzakia hartuta, energia-eraginkortasuna beste bide batzuetatik bilatzea proposatzen du nuklearraren aldeko *lobby* indarberrituak, baina uda honek zer pentsatua emango zien haiei ere: Garoñan izaniko akatsak

nahikoa ez eta Ascó, Tricastin (istripu bi bi astetan) eta Vandellòs 2-n (hiru azken bost hiletan) ere ustekabe galantak izan dituzte.

... eta fisioan oinarrituriko energia nuklearra segurua ez bada eta petrolioia agortzen ari bada eta, itxura denez, apalago bizitzeko prest ez bagaude, eta berriztagarriekin oraingoz nahiko ez badugu... Orduan zer? Fusio nuklearrari buruzko berriak ugaltu dira azken boladan (AEBek, EBk, Errusiak, Suitzak, Japoniak, Txinak eta Koreak babesturiko ITER proiektuari jarraiki, fusio-erreaktorea eraikitzeke lanak abiatu dituzte Okzitaniako Bocas de Ròse-ko Cadarache ikertegian), eta, horrek ere huts egingo balu (ea Inaki Irazabalbeitia sailkideak energia horri buruzko argibiderik ematen digun, garbiagoa, merkeagoa, segurua eta mugabekoa dela irakurri eta ederregi iritzi baitiogu...), Marte kolonizatzea izan daiteke hurrengo urratsa, NASAren Phoenix Mars Lander zundak bertan ura dagoela berretsi baitu uda honetan...¶